



2012-01-30
ASTELEHENA
351. ZENBAKIA
8. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

'Euskararen espektakulu' bikaina

Hiru aldiz bete zen Arkupeko aretoa | 29



Errasti eta Vega. | JULIO CALLEJA

Al-Andalus elkarteko kideek pozik ospatu zituzten 22 urteak | 11



Etxeko langileen erregimen berriaren gakoak | 4



Amesgaiztoak ez du oraingo bukaerarik Natra Aloñarendako | 24

Bergara UDA baino gehiago, penaltiz jositako derbian

Epaileak adierazitako hiru penaltietatik bat bera ere ez zuten aprobetxatu bi taldeek | 22



Iker Agirregabiriak penalti argia egin zion Iñigo Machori.

JULIO CALLEJA

"Aitok ere guraso izateko eskubidea dugulako, legea aldatzea nahi dugu"

Zaintza konpartituaren aldeko legea eskatu nahi dute banandutako aiten elkarrekin. Horietako bat, Agipase, lege-aldaketa eskatzeko sinadurak batzen ibili zen Bergaran, eta Arrasaten izango dira hurrengo. "Oraingo legearekin, gizona da beti galtzailea", dio Maolo Rodriguez aitak. | 4

Zuhaitz berriak Eskoriatzako 30 ume berrien omenez

Landaketa-ekitaldi polita egin zuten atzo goizean | 13



Umea, zuhaixka sartzeko gertu. | JULIO CALLEJA

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

BERRIA Atera etekina zure txartelari



JAIXAK
disfrutatzeko oparixak



HEMEN ERE!

► Zoaz 32. orrialdera.

Goiena klubeko txartela, beti aldean

Neskekin eta mutilekin hika zuzen erabiltzeko ikastaroak abian

- ▶ Eskoriatzan dagoeneko hasi dituzte saioak
- ▶ Bergaran otsailaren 13an ekingo diote ikastaroari

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Hika berba egitea nahi don/k? animatu eta emoin/k izena! Berba horiek erabili ditu Bergarako Jardun euskara elkarteak antolatutako hika ikastaroan parte hartzeko deialdia egiteko. Ez da hitanoari buruz asteotan Debagoienean iragarrita dagoen ikastaro bakarra: Eskoriatzan dagoeneko badabilta horren gaineko eskolak egiten.

Eskoriatzako gazte mugimenduko Eingeinkek antolatuta eta Udalak lagunduta, herriko hika ikasteko ikastaroa egiten hasi ziren hilaren 21ean, Leintz udal euskaltegiko zuzendari Karmele Agirregabiria irakasle dutela. Hain zuzen ere, 18 lagunek eman dute izena; bederatzi neska eta bederatzi mutil.

Praktikak eta gustuak

Agirregabiria bera harrituta dago esandako ikastaroak izandako harrerarekin, ez zuelako uste horrenbeste jende animatuko zenik. Kopuruaz gain, parte-hartzaileen interesarekin ere pozik dagoela jakinarazi du. Honakoa aipatu du: "Jendearen jarrera ezin hobea da parte hartzeko. Oso sentsazio ona daukat; horren gainean ematen nabilen lehenengo ikastaroa da eta oso gusturago". Denera, zortzi saio egingo

DATUA

18

GAZTE

Eskoriatzako Eingeinkek antolatutako hika ikastaroan 18 lagun dabilta: bederatzi neska eta bederatzi mutil.

dituzte, zapatuetan, 11:00etatik 13:30era. Lehenengoak teorikoak izan dira; hain justu ere, hitanoa zer den, nondik datorren, noiz erabil daitekeen eta antzeko ikuspegi teorikoak lantzen dabilta. Saio teorikoaren ondotik, aditz paradigmak ikasi beharko dituzte Eskoriatzan, eta parte-hartzaileen artean horiek erabiltzen hasi.


Otsailaren 13an Bergaran hasiko duten ikastaroa ere antzekoa izango da. Juan Martin Elexpuruk emango ditu han eskolak, eta honakoa esan digu: "Lehenengo saioan alde teorikoa jorratuko dugu: noiz, zeinekin, non, zein, eta lehengo eta gaur egungo egoeraren berri emango diet. Horren harira, Debagoienean, hikaren gaur egungo egoe-

ra ikusita agian mardulago erabili behar dugu. Hain justu ere, gogoia izanez gero eta praktikatzeko baldin bada, arauak alda daitezke. Esaterako, seme-alabek gurasoei hika egitea". Azken horrekin ez dago ados Agirregabiria, hainbat arau betetzeko daudela uste du-eta: "Esaterako, bilobek aitaita-amamei zukaz egin behar diete, ez hikaz. Hitanoak daukan berezitasuna da hori".

Nesken artean ez

Parte-hartzaileen ezagutzari dago-kionez, Agirregabiria esan digu neskek ez dutela ezagutzen. Haren esanetan, Eskoriatzako taldearen egoera gizartean dagoen isla "politikoa" da. Honakoa aipatu du: "Mutilek noizean behin erabiltzen dute, hartzen dituzten trago kopuruaren arabera: trago gehiago dituzten heinean gehiago erabiltzen dute. Dena dela, badago mutil bat egunero egiteko ohitura duena".

Elexpuru ere iritzi berekoa da: "Duda barik, mutilek erabiltzen dute gehiago. Gaur egun, neska gutxiri entzuten zaio hikaz egiten. Agian, 50 urtetik gorako emakumeen artean bai. Bergaran egiten bada ere, batez ere auzo eta herri txikietan erabiltzen dute; esaterako, Osintxun, Ubaran



eta Antzuolan. Baina neska gazteagoen artean ez".

Ez jakiteak nahasmena dakar

Mutilen artean bakarrik erabiltzeak nahasmenak eragiten dituela ohartarazi du: "Askotan gertatzen dena da mutilekin bakarrik erabiltzen dutenez, neskena ez dutela ikasi, eta ez dakitela. Hasten dira neskekin hika egiten eta, agian, mutilekin egongo balira bezala irteten zaie, eta emakumeak haserretu egiten dira, arrazoi osoz. Biak ikasi behar dira, ez dago diferentzia handirik". Horren harira, gaineratu du nahasmen hori ez dela agertzen Debagoieneko eda detuengan, hikaren erabilera ondo menderatzen dutelako.

Bestalde, Debagoienean hika mota ezberdinak daudela gogo-

rarazi dute Agirregabiria eta Elexpuruk: aldaera txikiak badaude ere, Leintz aldekoa oso antzekoa da; Bergarakoarekin, berriz, aldaketak daude, aditzak aldatzen dira-eta.

Bailaran hika galbidean dagoela ohartarazi dute, eta ikastaro horiekin egoerari buelta eman nahi diotela jakinarazi. Honakoa dio Agirregabiria: "Galduaz doa transmititzen ez delako. Ikasten duen apurra ez du zeinekin praktikatu. Hori da arazoa. Ume jaioberri bati sekula ez zaio hikaz egin, beti zuka, baina behin koskortutakoan, lehen gurasoek eta aitaita-amamek hikaz egiten zieten, eta gaur egun ez da egiten. Hori da galbidean egotearen arrazoi bat, berreskuratu beharko genuke".

ESANAK

"Eskoriatzako ikastaroan daudenen jarrera ezin hobea da; oso sentsazio ona daukat eta gustura nabil"

KARMELE AGIRREGABIRIA | IRAKASLEA

"Gogoia izanez gero eta praktikatzeko baldin bada, hikaren arauak alda daitezkeela uste dut"

JUAN MARTIN ELEXPURU | IRAKASLEA

"Galduaz doa transmititzen ez delako, ikasten duen apurra ez du zeinekin praktikatu; hori da arazoa"

KARMELE AGIRREGABIRIA | IRAKASLEA

"50 urtetik gorako emakumeen artean hikaz egiten da, batez ere auzo eta herri txikietan"

JUAN MARTIN ELEXPURU | IRAKASLEA

"Hitanoaren egoerari buelta eman behar zaiola badakigu, baina bidea zein den aztertzen gabiltza orain"

MAITE AGIRRE | AED-KO KIDEA

-n

Emakumeei berba egiterakoan, aditza deklinatzerakoan *-n* jarri behar da eta gizonezkoei berba egiterakoan, ostera, *-k*. Esaterako, emakumeei *hartu ezan* esango genieke eta gizonezkoei, *hartu ezak*.

Arrasaten bidea aztertzen

Arrasaten ere jakinekkoa da hika galbidean dagoela, eta neurriak hartzen hasi dira. AEDko Maite Agirrek gogorarazi du euskara elkarteak Siadeko enpresari eskatu ziola herri mailan euskaren erabilpenari buruzko ikerketa kualitatiboa egin zezan. Hortik ateratako emaitzak erabili nahi dituzte gai horren harira elkarrearen jarduera bideratzeko. Agirrek honakoa esan digu: "Emaitza horietan irten da euskalkia galdu

egin dela transmisio akatsak egon direlako, eta hikarekin berdina. Alde horretatik, buelta eman behar zaiola badakigu, baina bidea zein den aztertzen gabilta orain. Lantzen jarraitu beharreko gaia da, baina oraindik zehazteke dago formatua".

Joan den urteko udaberrian, esaterako, euskara elkarteak gazte sailetik 20 orduko iraupena zuen hika ikastaroa antolatu zen, herriko udal euskaltegiaren eskutik. Orain aztertzen

dabilta ikastaroa den biderik egokiena, bereziki gazteengana iristeko.

Transmisioarekin jarraituz, Agirrek gogorarazi du ikastetxeetan ez dela hika bultzatu: "Jasotzekotan etxetik jaso izan da; eskolan ez duzu jasotzen euskalkia edo hika, eta hor ere gabezi bat dago".

Ikastetxeetan ez, baina udal euskaltegietan hika zuzen erabiltzen ikasteko ikastaroak dituzte debagoiendarren eskura.

JUAN MARTIN ELEXPURU | IRAKASLEA

"Euskara galtzen joan zenean, hika galtzeaz gain, nahastu ere egin zen"

Bergarako Jardun elkarteak hika ikastaroa antolatu du ostera ere otsailerako. Juan Martin Elexpuru izango da ikastaro hori emateko ardura izango duena. **Beti izan zara hikaren aldekoa. Zergatik?**

Herri euskararen defendatzailea izan naiz beti; horren barruan, konfiantzazko jendearekin eta beste testuinguru askotan berba egitean hikan egiten dut. Bai, beti izan naiz hikaren aldekoa, eta ahal dudan guztietan praktikatzen saiatzen naiz.

Garai batean ze testuingurutan erabiltzen zen?

Orain dela 40-50 urte, euskara modu naturalagoan zetorrenean, adin berdinen artean ia beti erabiltzen zen, 15 edo 16 urterekin hasi eta hortik aurrerakoetan beti egiten zen lagun eta anai-arreben artean, eta baita familian ere. Dena dela, salbuespenak ere bazeuden.


Zeintzuk dira aipatzen dituzun salbuespen horiek?

Esaterako, inori ez zitzaion bururatzen abadeari hika egitea, ezta seme-alabek gurasoei ere. Azken horren harira, gurasoek seme-alabei hika egiten bazieten ere, seme-alabek zuka egiten zieten. Hor ere ezberdintasunak egoten ziren: neskei mutilei baino gutxiago egiten zieten; mutilei beti hikaz eta neskei, familia batzuetan hikaz eta beste batzuetan zukaz. Baina euskara galtzen joan zen sasoi hartan, hikaren erabilera galtzeaz gain, nahastu ere egin zen.

Gurasoek guri ez digute hori transmititu. Zer gertatu da?

Nik ez dut uste hikaren arazoa izan denik; euskara bera transmititzeko arazoa izan da. Lehen, ia %100 euskara egitetik eta entzutetik urte batzuen buruan gaztelania nagusitzen joan zen, eta orduan juxtu-juxtu eutsi zitzaion euskarari.

Hika asko egiten zen lekue-



Elexpuru. | ARRITXU BARRUSO

tan jarraitu zuten, baina erdi euskara erdi gaztelania edo gaztelania egiten zen lekuetan nahiko lan izan zuten euskarari eusten, eta hika luxua zen. Ez da hikaren arazoa hainbeste, euskararena berarena baizik.

Jardun elkartearen arduratuta daude hika ez dela horrenbeste irakasten eskoletan eta forma okerrak bere bidea egiten ari direlako... Hala da?

Egia da hikarik ez dela erakusten eskoletan, ez hika eta, normalean, ezta herriko euskara ere. Justifikatuta egon litekeen euskarak berak jasandako hil edo biziko egoera horren barruan dago. Ez da baloratu. Hortaz, batetik, hikarik ez da erakusten.

Eta bigarrenik, erabilera okerrarena dago. Transmisioa galdu denez, zaharrei ez zaienez ia entzuten, hika egin nahi duen generazio berriak ez du modelo onik eduki eta hika berrasmatu egin du askotan. Komeni ez denean ere hika erabili izan dute askotan, *hiper hika* egin dute. Baina nik uste dut hobe dela hainbat forma gaizki erabilia ere, hika egiten ahalegin-tzea.



Eskoriatzan oso harrera ona izan du Eingeinek antolatutako ikastaroa. | JOSETXO ARANTZABAL

Izen-ematea zabalik dago Bergaran

Bergarako Jardun euskara elkarteak hitanoa erabiltzen ikasteko ikastaroa antolatu du eta dagoeneko zabalik du horretarako izen-ematea. Interesa dutenek 943 76 36 61 telefono zenbakira dei dezakete, edo zuzenean Jarduneko Errotalde jauregian duen egoitzara jo. Otsailaren 8a baino lehen eman behar da izena. Prezioari dagokionez, Jarduneko bazkideek 27 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 30 euro.

Eskolak otsailaren 13an hasiko dira, eta hil bereko 23an amaitu. Ikastaroaren iraupena 16 ordukoa da. Hain justu ere, bi orduko zortzi saio egingo dituzte, astelehenetik eguenera bitartera, 18:30etik 20:30era, kultura etxean.

Esan bezala, Juan Martin Elexpuru bergararrak emango ditu eskolak. Hark nabarmendu nahi izan du Bergarako hiketan segurtasuna hartzea dela ikastaroaren helburua. Horren harira, gogorarazi du hika dela trataera normalena eta atseginena konfiantza eta lagunarte giroan, eta, jende askok erabiltzen badu ere, ikastetxeetan erakusten ez denez, galbidean doala edo forma okerrak gero eta gehiago entzuten direla.

Zaintza partekatuaren legea eskatzeko sinadurak behar dituzte

Gizartea politikarien aurretik doa dio Agipase elkarteak

OIHANA ELORTZA | BERGARA

"Momentu honetan bikote bat banandu bada eta adostasunik ez badago, bietako batek hartzen du seme-alaben zaintza, eta normalean ama izaten da. Guk uste dugu zaintza partekatua izan behar dela, eta horregatik ari gara sinadurak biltzen", zioen Arantxa Bergarak, Agipase elkartearen teknikariak zapatuan Bergaran egin zuten sinadura bilketan. Datorren zapatuan Arrasaten batuko dituzte.

Zaintza partekatuaren legea onartzea eskatu gura diote legebiltzarrari, eta 30.000 sinadura behar dituzte horretarako. "PSE-EE eta Ezker Batua alderdiak izan ezik, gainerako guztiak esan digute beraiek ere legea aldatzea-

ren alde daudela. Argi ikusten dena da gizartea politikarien aurretik doala beste behin, herri-tarrek legea aldatzea eskatzen dutelako", gaineratu dute.

Gizonak galtzaile

Maolo Rodriguez antzuolarra ere Agipase elkarteko kideekin batera ari da sinadurak eskatzen, "aitok ere guraso izateko eskubidea dugulako. Orain dagoen legearekin, gizonak dirua ateratzeko soilik erabiltzen dira banaketa baten aurrean; nik ezagutzen ditut Bergarako bi aita, adibidez, gurasoen etxera joan direnak bizi izatera, dirurik ez dutelako. Eskatzen duguna da banaketa bat dagoenean baldintza minimoak betetzea eta etxetik irten behar

duenari etxebizitza babestu bat eskaintzea". Egungo iritzi orokor-rrarekin bukatzea ere eskatu du Rodriguezek: "Uste da emakumea ama ona dela, eta gizona, berriz, izateagatik aita txarra dela, eta hori ez da horrela".



Bergaran egon dira eta zapatuan Arrasaten batuko dituzte. | JULIO CALLEJA

ESANAK

"PSE-EEK eta Ezker Batuak esan digute ez dutela lege berririk gura"

ARANTXA BERGARA | AGIPASE

"Orain gizonak dirua ateratzeko soilik erabiltzen dira banaketa baten aurrean"

MAOLO RODRIGUEZ | AITA

"Emakumea ama ona eta gizona aita txarra denaren ustea aldatu behar da"

MAOLO RODRIGUEZ | AITA

Manu Diaz | Abokatua

"Etxeko langileei alta eman behar zaie Gizarte Segurantzaz"

- ▶ Etxeko langileen erregimena arautu egin du Espainiako Gobernuak
- ▶ Manu Diazen iritziz, legeak azpi-ekonomiarekin bukatzen lagunduko du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Etxeko langileen erregimena arautu du Espainiako Gobernuak. Urtarrilaren 1a ezker dago indarrean lege berria. Manu Diaz abokatuaren esanetan, "legearen helburua ona da".

Zer dakar lege berriak?

Aurrerantzean, etxeko langile guztiak Gizarte Segurantzaz alta emanda egon behar dira. Langile horien ugazabek haien egoera eguneratu behar dute.

Ze helbururekin egin dute legea?

Bi helburu ditu legeak: alde batek, langileen egoera duintzea, eta langile arruntekin berdintzen joatea. Badago ere helburu ekonomiko bat: azpi-ekonomia eguneratzen joan behar da. Bestalde, nik uste langabezia-zerrendatik langile asko kendu gura dituztela. Helburu politiko bat ere bada go hor.

Zeintzuk dira legearen alderdi nagusiak, eta ondorio on nagusiak?

Etxeko langileen egoera eguneratzen joan behar da, eta langile arruntenarekin berdintzen. Hori onuragarria da. Jende asko dago etxe askotan lan egiten, inongo babesik gabe, Gizarte Segurantzaren babesik gabe, zergak ordaindu gabe... Erantzukizun bat dago hor.

Araudi berri horren bidez, etxeko langileak baja hartu ahal izango du? Erretiro pentsioa izango du...?

Bai. Lehenengo hiru egunak ez ditu kobratuko, baina hurrengo bostak etxearen jabeak ordain-



Manu Diaz abokatua. | GOIENA

"Ugazabek jakin behar dute ze erantzukizun daukaten"

duko ditu, eta hortik aurrerako egunak, Gizarte Segurantzaz.

Erretiro-pentsioa ere izango du. Berau kalkulatzeko oinarriak nahiko txikiak dira eta ez dira pentsio handiak izango, baina hori izango dira.

Bestalde, oraingo ez dute langabeziarik kobratuko. Lege Dekretuaren sarreran esaten da hori aztertuko dela, hala ere.

Kaleratzek ze baldintzatan izango dira?

Kaleratzeko bide bat zigor-kaleratzea da: langileak zerbait gaizki egiten badu, zigor diziplinario gisa. Baina lan-auzitegira badoa langilea, eta epaileak esaten badu kaleratze hori ez dela bidezkoa, lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko soldata jasoko du. Baina lan-harreman berezia delako, etxeko jabeak langilea kausa barik bota dezake. Kasu horretan, langileak beste kalte-ordain bat lor dezake: lan egindako urte bakoitzeko, 12 eguneko soldata.

Ugazabek kotizatu egin beharko dute.

Bai. Lehenengo lan-ordutik, Gizarte Segurantzaz alta eman behar zaio langileari. Hori Eibarren egin behar da, han Gizarte Segurantzaz duen bulegoetako baten; ez INEMen bulegoetan. Eta langileak hainbat ugazaba baldin badauzka aldi berean, ugazaba bakoitzak jarraitu behar du prozedura hori.

Legea urtarrilaren 1a ezker dagoenez indarrean, ugazaba guztiak prozedura eginda izan beharko lukete, ezta?

Bai. Dena dela, ez gara egoera berriak behar bezala jabetzen, eta beldur naiz jende askok orain arte bezala jarraituko duela. Orain arte derrigorra izan ez denez, jende askok ez du tramite hori beteko.

Horren aurrean, nik uste dut jendeak jakin behar duela ze erantzukizun duen. Inspekzioa badago, atzeratutako kuota guztiak kobratuko dira, eta errekar-goekin zein isunarekin. Baina istripua baldin badago, hori egon daiteke erantzukizun larria. Horregatik, nire gomendioa da norbera ondo informatzea eta ahalik eta azkarren egoera bere tokira eramatea.

Ugarte: "Kudeaketa txarra soilik egozten diet"

L.K. | ARRASATE

Larraitz Ugartek eta Markel Olanok elkarri kontrakoak esaten jarraitu zuten egunean, Batzar Nagusietan, Bidegiren diru-kontuen harira.

Larraitz Ugarte foru bozeramaileak urtarrilaren 17an esan zuena nabartu zuen, esanez ez ziola aurreko kudeatzaileari, EAJri, dirua bidegabe erabiltzea leporatu nahi izan, baizik eta "oso gaizki kudeatu izana".

Gaineratu zuenez, "ezinezkoa da obra batzuk prezio baten adjudikatzea eta gero 282 milioiko desfaseak egotea". Hori "batez besteko %48,1eko desfasea da, eta hori ez da gauzak ondo kudeatzea", esan zuen Ugartek joan den egunean. Bukatzeko, esan zuen Foru Aldundiaren "konpromisoa" zela "dirua edozein modutan ez gastatzea".

"Manipulazioa egon zen"

Markel Olanok, aurreko ahal-dun nagusiak, berriz kritikatu zituen Ugartek hilaren 17an esandakoak: "Datuak manipulatu zituen, herriarrak nahasteko helburuarekin". Gainera, "gezurra da zuloak edo desfaseak egon direla", baizik eta "Bidegik onartutako aldatetako eta proiektu osagarriak".

PPren iritziz, Ugarteren intentzioa "argituta" geratu da; PSE-EE obretan "desfaseak galarazteko alde" agertu zen; eta Aralarko Rebeka Uberak esan zuen "akatsetatik ikasi" beharra dagoela.

"Prozesionaria herrigunetik gertu egotea arriskutsua da"

Angel Loidi aretxabaletarra kezkatuta dago pinuetako harrak gurean duen presentziarekin

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Izen zientifikoa *Thaumetopea pityocampa* da, eta habia egiten dute gure inguruko pinu, izei eta zedroetan. Halakoak ikusten ditugunean, ondo begiratu eta poltsa zuri batzuk ikusiko ditugu, zuhaitzaren goiko adarburuetan. Prozesionaria izenez ezagutzen den harra da. Azken urteotan asko ugari da, eta asko hurbildu da herrigunetara. Hori da duen arriskueta. "Prozesionariaren arazoa ez da berria, baina orain arte mendian, basoetan egiten zuten habia. Aurretik, garbi ikusten da herrigunetik gertu dauden pinu edo zedroetan daudela. Gertutasun horrek hainbat arrisku ditu", esan digu Angel Loidik.

Prozesionaria kaltegarria izan daiteke gizakiondako. Gorputzean arantza batzuk ditu, eta azkura handia sortzen duen erresumina delako substantzia botatzen du. Animalientzako ere oso mingarriak dira, eta baita pinuak, izeiak eta zedroak: hostoak jan egiten dituzte, zuhaitza ia biluzik utzi arte.

Urteroko arazoa da, baina aurretik askoz lehenago heldu dela

uste du Loidik: "Negua nahiko epela da, eta prozesionariari epeltasuna eta eguzkia gustatzen zaizkio. Horrek guztiorrek prozesua aurreratu du".

Sentsibilizazio falta

Loidik uste du herritarrek ez daukatela arazoaren berri: "Sentsibilizazio gabezia dago. Zuhaitzetan poltsa zurixkak ikusi, baina ez dakite zer diren. Zaindu beharreko arazoa da". Baina nola? "Adarburuak edo zuhaitza bera moztuta. Herriguneko zuhaitzak ezin daitezke fumigatu", dio Loidik.

Hori eskatzeko bilera egin zuten Aretxabaletako udal ordezkariarekin. "Badakigu hainbat herritar kezkatuta daudela, eta gu ere bai. Baina poltsa zuriak zuhaitzen goiko adarretan daude, oso goian, eta horiek mozteko garabia beharko genuke. Aztertu egin beharko dugu zenbateko kostoa duen prozesionariaren arazoa konpontzea. Baina lanean gabiltza", esan digu Lore Martinez zinegotziak.

Foru Aldundian galdetu dugu eta esan digute herri barruan dauden zuhaitzak "Udalaren eskuduntzakoak" direla.



Aretxabaletako herrigunetik gertu dagoen pinu bat, poltsek in | MIREIA BIKUÑA



Angel Loidi, prozesionariak egindako poltsetako batekin. | MIREIA BIKUÑA

Osasun Ikasgelak Oñatin eta Bergaran

M.B. | ARRASATE

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) Osasun Ikasgelak ipiniko ditu abian. Helburu nagusia da herritarrei informazioa ematea gaixotasunen, tratamenduen eta bizi-tza estilo osasuntsuen gainean.

Ekimen berriak aurreikus-tzen du urtean 12 ikasgela antolatzea. Guztira, sei gai aztertu-ko dituzte.

Sentsibilizazio falta

Lehen bi ikasgelak Bergaran eta Oñatin egingo dituzte: hurrenez hurren, hilaren 31n eta otsailaren 7an. Bergarako Irizar Jauregian izango da eta Oñatikoa, kultura etxeko zinema aretoan. Biak ala biak, 19:00etan.

Etxeko ospitalizazio zerbitzuko buru Julio Sandoval medikuak emango ditu eskolak. Gai hauek landuko ditu: *Zer da etxeko ospitalizazioa?; Debagoieneko profesional taldea eta eskualdeko kobertura; Etxeko ospitalizazioaren abantailak ohiko ospitalizazioarekiko; eta Egiten diren prozedura terapeutikoak eta diagnostikoak.*

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Sagra Lopez eta Itziar Usandizaga | LAB Helduak sindikatuko kideak

"Bidegabekia da alargunen pentsioa ez handitzea"

LAB Helduak sindikatukook pentsiodunen egoera salatu dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

LAB sindikatuak Helduak arloa du pentsiodunendako. "Eskubi-deak gero eta zapalduago dauden garai honetan, apustu sendoa egin nahi dugu kolektiboaren egoera hobetzeko, guk geuk antolatuta", diote Itziar Usandizaga eta Sagra Lopez ordezkariak.

Zergatik uste duzue beharrezkoa dela LAB Helduak?

Itziar Usandizaga: Erretiratzeko garenok erlaxatzeko joera izaten dugu. Baina pentsatzeko modu hori aldatu beharra daukagu uste dugu, baldin eta gure interes espezifikoak defendatu nahi baditugu. Euskal Herriko nagusien eta pentsiodunen elkarrekin ere lan egin nahiko genuke.

Sagra Lopez: Gure eskubideak defendatzeko dihardugu: gure pentsioak gero eta baxuagoak dira, zerbitzu publikoak ez dira nahikoak eta mendekotasun arazoak bikoiztu egin dira.

Pentsioak %1 handituko ditu Espainiako Gobernuak. Zer diozue?

I.U.: Hori pentsiodunoi iseka egitea da. Bi urtean egon dira pentsioak igo barik. Garai batean, erretiratuok erosketahalmena, kinkenio baten, %10 galtzen genuen; gaur egun, hiru urtean galdu dugu horrenbeste.

Gainerako neurriak ere oso gaizki daude: mendekotasun legea



Lopez eta Usandizaga, Goiena telebistako platoan. | TXOMIN MADINA

ESANAK

"Lotsagarria da pentsioak %1 igozteak; ez ziren igo 2008tik"

ITZIAR USANDIZAGA | LAB HELDUAK

"Emakumeak ekonomikoki gizonen mende gelditzen dira"

SAGRA LOPEZ | LAB HELDUAK

aurten ez da aplikatuko, bakarrik kasu larrietan. Eta erretiratu asko horren beharrez daude. **Alargunen pentsioak ez dituzte ezer handituko. Aurreikusita zegoen kalkulatzeko oinarriaren %52tik**

%60ra pasatzen hastea aurten, eta ez da beteko...

I.U.: Ez, eta oso txarto gelditzen dira alargunak. Bizi-itxaropena asko handitu da; hala, orain 80 urteko alargun piloa dago eta

horien pentsioak oso txikiak dira. Bestalde, aurre-erretiratuaren alargunak muturreko egoeran daude.

Euskal Herrian 150.000 emakume alargun dago, eta hamarretik sei pobrezian bizi dira. Alargunen pentsioak ez handitzea bidegabekeria handia da. Toledoko Ituna egin zen garaian, pil-pilean egon zen gai hori, baina gaur egun ituna hilda dago. Alargunak guztiz ahaztutako taldea dira.

S.L.: Emakumeon egoerari begiratu behar diogu, ez bakarrik alargunona. Ikusi behar dugu ze gizar-te motan gauden. Alargunak, eta emakume gehienak ere, gizonen mendean gelditzen dira, ekonomikoki eta afektiboki.

Enplegu arloan, 12 emakumetik lauk bakarrik daukate lan egiteko aukera. Gizartean, banaketa sexista daukagu eta gizonak dira enplegua eskuratzen dutenak, eta eskubideak pilatzen dituztenak: soldata, langabezia ordainketa, gizar-te segurantzak eta pentsioak. Baina emakume gehienek ez dituzte eskubide horiek lortzen: gehienok zainketa lanak egiten ditugu, lan oso inportantea gizar-tearendako, eta KPIaren %52 da hori, baina ez dago behar bezala errekonozituta.

Ze irtenbide ikusten diozue pentsiodunen gaur egungo egoerari, bada?

S.L.: Merkatuak dabilta momentu honetan ekonomiaren ildoan markatzen, eta ez dago hortik irteterik. Horregatik, murrizketa handiagoak egongo dira, pentsioak okertu egingo dira, lantegietan arazo handiagoak izango dituzte langileek... Hemen Islandian bezalako mugimendua behar-k genuke. Eta, bestalde, emakumeok eskubide osoa dugu pentsio propioak jasotzeko, lan piloa egin dugu-eta bizi osoan.

'Vending' sektoreko Deman-eko langileak greban daude

Deman enpresako langileak greban daude. Deman, Serventa eta Autobar vending makinak mantentzen dituzte. 1.200 langiletik 170 kaleratzeko erabakia salatu nahi dute. Greba "luzea" izango dela jakinarazi, eta kaltetutakoei barkamena eta ulermena eskatzen diete langileek, eta grebak dirauen artean makina horiek ez erabiltzeko ere bai.

Miguel Altunako bi ikastarotan izena eman daiteke oraindik

Miguel Altuna Institutuak jakinarazi du bi ikastarotan oraindik jende gehiagorendako lekua dagoela: Urradura, elektro higadura eta prozedura berezian bidezko piezen fabrikaziorako CNCn programen sortzea (Sarpn bidez/Hari bidez). eta Fabrikazio mekanikoko produktuaren dokumentu kudeaketa (Solid Works. Multzoak).

Klinikako zainketen eta energia berriztagarrien gaineko ikastaroak

Foru Aldundiaren Sarbidea programaren eskutik, klinikako zainketaren eta energia berriztagarrien (fotovoltaikoa eta eolikoa) gaineko ikastaro bana izango da Mankomunitatearen egoitzan. Hautaketa Gipuzkoa osoan izena ematen dutenen izenemate-ordena jarraituta egingo da, eta Foru Aldundiak egingo du hautaketa. Argibideak: 943 79 33 99.

Mondragonek eta Industriak 32 nazioartekotze-proiektu egin zituzten 2011n

Elkarlanaren emaitzak baloratu zituzten biek, eta batera jarraitzea erabaki zuten

L.K. | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak Mondragon Taldeko 12 kooperatibarekin iaz egindako lankidetzak nabarmendu dute arduradunek. SPRIren bitartez egin zuten hori, eta kooperatiba horien 32 proiekturako zerbitzuak eman zituzten. Lankidetzak hori batez ere Txinan nabarmendu da, zortzi proiektuekin. Ondoren, Hungaria (4), Mexiko (3), Polonia, Errusia eta Txekia (guztiak birekin) daude; eta Alemania, Brasil, Bulgaria, Txile, AEB eta Arabiar Emirerriak.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak urteko osoko bilkura egin zuen martitzenean, bi erakundeek 2010-2013 aldirako sinatutako Lanki-

detza Hitzarmenaren jarraipena egiteko, eta esandakoa da ondorioetako bat.

Unda eta Aldekoa

Lan-bileran hitzarmeneko bost jardun-arloetako bakoitzaren

deskargua egin zen: Informazioa eta Komunikazioa, Ekintzailtza, Enpresa Garapena, Teknologia eta Berrikuntza, eta Nazioartekotzea. Bileran Jaurlaritzaren eta kooperatiba-taldearen bi ordezkari hartu zuten parte, Bernabé Unda eta Jose Maria Aldekoa (Mondragonen Kontseilu Orokorreko presidentea) bilaren buru izanik.

Nazioartekotze-alorrean "une garrantzitsua" izan da iazkoa Jaurlaritzaren eta Mondragon Taldearen arteko lankidetzari dagokionez, Industria Sailak baloratu duenez; izan ere, 2011n akordioa sinatu zen Kunshan Txinako eskualdearen eta Industria Sailaren artean, eta akordio

horri esker eskualde horretan 250.000 metro koadro erabili ahal izango dituzte euskal enpresek. Bi enpresa ezarrita daude eremu horretan eta orain beste hiru ezartzeko asmoa dago.

Garaiarendako, milioi bat euro

Enpresa Garapenaren alorrean, bi erakundeak elkarlanean ari dira Garaia Gunea finkatzeko. Kapital-zabalkuntzako proposamen bat zehaztu da, hiru milioi euro ingurukoa (Eusko Jaurlaritzak milioi bat ipiniko du), eta aurten egingo dute.

Teknologiaren eta Berrikuntzaren arloan Korporazioko enpresek zuzendutako eta Etorgai programara bildutako lau proiektu daude I+G-ri laguntzeko.

Mondragonen papera indartu

Bi alderdiek Mondragonen parte-hartzea "hobea eta eraginkorragoa" egiteko lankidetzak eredu bati eusteko borondatea berretsi dute. Aldi berean, Sailaren politikek, tresnek eta baliabideek Mondragonen enpresa-helburuetan laguntzea ahalbidetzeko asmoa du, euskal industria-sarearen lehia-kortasuna hobetzea sustatuz.

ESANAK

"Funtsezkoa da industria-jarduera, eta horri eutsiko diogu"

INDUSTRIA SAILA

"Nazioartekotze-arloan une garrantzitsua izan da 2011"

DIBORTZIO OSASUNGARRI BATERAKO PAUSOAK

Sara González Muro
Psikologoa eta Bitartekari Familiarra

Sara Gonzalez donostiarra, eguaztenean Bergaran hitzaldia egin aurretik. | TXOMIN MADINA

Sara Gonzalez | AGIPASEko psikologoa eta bitartekari familiarra

"Gure esku dago dibortzioa zerbait positibo moduan ikustea"

Dibortzioa era osasungarrian nola eroan azaldu zuten eguaztenean Bergaran; dibortzioaren fase ezberdinak igarotzea da gakoa

TXOMIN MADINA | BERGARA

Bergarako Udaleko Prebentzio Zerbitzuak gurasoendako antolatatu dituen hitzaldien artean, dibortzio osasungarria izan zen ardatza eguaztenean egindako saioan. AGIPASEko (Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarte) Sara Gonzalez izan zen hizlaria.

Dibortzioak ez dira errazak izaten, are gutxiago seme-alabak tarteko daudenean. Nola eragin diezaike gurasoen dibortzioak?

Dibortzioa bera ez da arazoa. Bikote batek banantzea erabakitzean esan gura du aurretik bazeudela arazoak. Dibortzioak berak ez du eragin positibo edo negatiborik izan behar seme-alabengan; bikotearen arazoen kudeaketan dago gakoa. Bikote bat banantzeak esan gura du komunean zuten proiektuak porrot egin duela; baina benetako porrota da zoriotsua ez izatea eta gatazka gaizki kudeatzea. Kudeaketa gaizki egiteak dakartza arazoak seme-alabengan.

Umearen adina dena delakoa izanda ere, kudeaketa berbera izan behar da?

Kudeaketa bai, baina egia da adinaren arabera seme-alaben beldurrak ezberdinak direla eta horrek baduela eraginik. 2 urteko ume batek eta nerabe batek dibortzioaren ulermen ezberdinak dituzte, baita beldur eta beharrak ere. Beraz, banaketaren informazioa transmititze-

rakoan bai izan behar dugu kontuan adina.

Nola detektatu arazoak daudela?

Dibortzioa krisi bat da, familia osoarentzat aldaketa bat. Aldaketa horrek guztioi eragin ahal digu: beldurra, tristura, depresio sintomatologikoa... Jarrera horiek denboran mantentzen badira, negatiboa izan daiteke. Tristura nabarmentzea guztiz normala da, baina tristura hori mantentzen bada, semeak edo alabak urtebete badarama horrela, kontuan izan behar da. Jarraipena egin eta ez badago aldaketa positiborik, laguntza profesionala eskatu behar da.

Zeintzuk dira egin ohi diren akats handienak?

Arazo larriena da ez ezberdintzea gure rolak senar-emazte eta guraso moduan. Ez baditugu ezberdintzen, seme-alabak bikotearen gatazkan sartzen ditugu, eta hori heldutasun faltaren adierazle da. Dibortzioaren inguruan beti ikusten dugu batak galtzailea eta besteak irabazlea izan behar duela; baina galtzailearen kasua, ez du berak bakarrik galtzen, baita seme-alabek ere. Beste akats bat

da bikotekide ohia ez errespetatu eta seme-alaben aurrean autoritatea kentzea, deslegitimizatzea. Seme-alabek ez dute entzun behar amaren aldetik aitak zerbait gaizki egiten duela, eta alderantziz. Hezkuntza irizpideetan ezberdintasunak baditugu, gurasoen artean egin behar da berba. Ideialena da irizpideak adostea, baina ezin denean, etxe bakoitzean irizpide batzuk egongo dira eta batak besteara errespetatu behar du.

Seme-alabek ez dute hori ulertzeko arazorik; badakite, esaterako, amamaren etxean arau batzuk daudela eta gurasoenean beste batzuk. Ikusi behar dute, baina, irizpide edo arau horiek sendotasunez aplikatzen direla.

Zertan datza dibortzio osasungarria?

Nire ideia da *dibortzio* hitzari buelta bat ematea: beti era negatiboan ikusten dugu, eta gure esku dago zerbait positibo moduan ikustea. Ez gara dibortziaz okerrago egoteko; dibortziaz erabakia hartzen dugu gure familia hobeto egoteko. Dibortzioak aukera ematen dizu birplanteatzeko zure familia eta

zure rola, eta ondo erabilita izugarrizko onurak ekarriko dizkizu bai zuri eta baita zure familiarendako. Ulertzen dut, baina, askotan zaila izan daitekeela eta ez gaudela prest dibortziorako; horrelakoetan, laguntza eskatzea gomendatzen dut.

Zein aholku emango zenieke dibortzioa era osasungarrian eroan gura duten gurasoei?

Dibortzioa osasuntsua edo zerbait positiboa izateko, fase ezberdinak ezagutu behar ditugu. Dibortzio legala bat da, baina hainbat alderdi ditu. Lehenengo, dolua egin behar dugu, banaketa emozionala edo psikologikoa. Horretarako, pertsona askok erabakitzen dute bakarkako terapia egitea. Dependentsia banaketa ere egin behar da, askotan bikotekide batekin dependentsia emozionala edo ekonomikoa izan dezakegu-eta, baita rolana ere. Banatzen garenean, bakoitzak autonomia izan behar du. Nola? Kontziente izanda alde onak atera ditzakegula. Gero etorriko litzateke dibortzio legala; gauza asko adostu behar dira, eta gero eta gehiago ikusten da bitartekaritza familiarra era-

bilgarria dela. Azkenean, helburua da ardurak erabakitzea: zeinekin egongo den umea, zenbat diru... Izan ere, bikote ez, baina guraso bizitza osorako izango dira; familia ez da banatzen, hor dago, aldatzen dena da sistema, antolaketa.

Aholku hauek aplikagarriak dira seme-alabarik ez duten bikoteentzat?

Seme-alabarik ez badago, ez duzu zertan harremana mantendu bikotekide ohiarekin. Hala ere, banaketa psikologikoa eta dependentsiarena pasatu egin behar dira. Baita legala ere: etxea, autoa... Baina egia da, hori banatzean, gure erlazioak ez duela zertan jarraitu; horretan guztiz ezberdina da. Dena den, uste dut dolua egin beharrekoa dela; izan ere, bestela, arazo bat egon daiteke: hurrengo bikotekidearekin akats berak egitea. Hausnartu egin behar da; izan ere, seme-alabak izan edo ez, zure proiektuak huts egin du.

Eta guk dibortzioa era osasungarrian eroan gura izan arren bikotekide ohiak ez badu halakorik nahi, zer egin?

Hori zaila da era osasungarrian eroan gura duenarentzat. Hala ere, praktikotasunetik pentsatu behar dugu, gure esku dagoena eginaz. Seme-alabak badaude, nire gomendioa da joko horretan ez sartzea eta zure bikotekide ohiak zuri buruz zerbait negatiboa esaten badu ez erantzun, batez ere seme-alaben aurrean. Mezu horiek, seguru asko, eragin negatiboa izaten ari dira zure seme-alabengan; beraz, egin behar dena da entzun, onartu eta saiatu seme-alabekin harreman ona izaten. Helburua da seme-alabengan pentsatzea. Hori oso gogorra da pertsona batentzako, eta, ondorioz, laguntza ere eska daiteke. Zure esku dago lehian sartzea edo ez sartzea, baina kontziente izan behar duzu lehia horretan sartzeak zein eragin izan dezakeen bai seme-alabengan eta baita norberarengan ere. Senideei dago kienez, euren dako nire gomendioa da ez sartzea gatazkan; izan ere, horrela egiten badute, erlazioan sartzen dira eta hori ez da ona ez bikotekide ohiarentzat ezta seme-alabentzat ere. Bikotekide ohiari buruz gaizki berba egiten badute, moztu egin behar dugu.

Noiz komeni da bitartekari baten gana joatea?

Gatazka bat dagoenean eta ez garenean gai gure artean konpontzeko. AGIPASEko bitartekariok bikotekideen arteko komunikazioa errazten dugu, baita itzultzailearen lana egin ere: gatazka baten gaudenean ez gara gai entzuteko, eta zaila egiten zaigu besteari ulertzea. Honetaz gain, bitartekaritza familiarrean orientatu ere egiten dugu hitzarmen arautzaile bat lortze aldera; psikologo eta abokatu rola ere egiten dugu. Norbaitek bitartekari beharra duela uste badu, AGIPASEra deitu besterik ez du, gizarte langile bat daukagu eta lehenengo pausoa da berarekin hitzordua egitea. Bitartekaritza familiarra beharrezkoa ikusten bada, orduan hasten gara lanean. Helburua da bospasei saiotan hitzarmen arautzailea lortzea.

"Seme-alabengan arazoak ez dakartza dibortzioak berak, kudeaketak baizik"

"Dibortzioak aukera ematen dizu zure familia eta rola birplanteatzeko"

"Gatazka egon eta konpontzeko gai ez garenerako da bitartekaritza"

ZABALIK

ENEIDA ITURBE
http://goiena.net/iritzia/



Alemaniara goaz lanera

Egun, gero eta gehiago, gazteek familiari edo lagunei "Zerbait daukagu zuei esateko" bota eta gero, ohiko "ezkondutako egingo gara" edo "umea izango dugu" horien ordez "Alemaniara goaz lanera" edo antzerako zerbait esaten dute. Alemaniara, Txinara, Estatu Batuetara... gustuko duten horretan lan egin ahal izango duten herrialde batera, behintzat.

Askok denboraldi baterako dela esango dute, Erasmus beka batekin joatea bezala edo ingelesa hobetzeko asmoarekin hilabete batzuk kanpoan pasatzea bezala. Baina atzerrian ondo ordaindutako eta euron ikasketa mailarekin bat datorren lana topatuz gero, bueltatuko ote dira etxera? Oporretan, akaso!

Denboraldi bat kanpoan igarotzea benetan aberasgarria da. Denboraldi hori urteetan luzatzen bada, baina, aditu-ihesa dela esan dezakegu.

Aditu-ihes hori bultzatzeko edo, Espainiako gobernuak zientzia eta teknologia alorreko ikerketara 600 milioi euro gutxiago bideratuko ditu aurten. Erabaki horren aurrean, 250.000 pertsonak baino gehiagok ondorengo proposamenari babesa eskaini diote Internet bidez: errenta aitortzearen zergen %0,7 ikerketara zuzentzeko aukera eskatzen dute. Zientziaren alorrean ikertzaile izan nahi duten gazteak dira murrizketek gehien kaltetutako taldeetako bat. Eta baita ikertzen jarraitu ahal izateko Austriarako, Holandarako edo Alemaniarako bidea hartu dutenak ere.

Kanpora doazen gazte horien ikasketetan inbertitutako diruak eta euron talentua Europako eta mundu zabaleko enpresek, erakundeek edo unibertsitateek aprobetxatuko dituzte.

Urteetan askoren ardura immigrazioa izan bada ere, orain estatistikek bestelako datuak luzatzen dizkigute. Azken urteetan ez bezala, 2011n estatuko migrazio-mugimendua negatiboa izan da. Egoera berrira egokitzeak, jendeari ateko ixteko neurriak bultzatu beharrean, gazteendako lan aukera duinak eskaintzeko modua bilatu beharko litzateke.

USTEAK USTE

MAIDER ARREGI | marregi@goiena.com


Mega-iraultza sarean

Internet sutan dago. Lehenengo, pirateriaren aurkako *SinDe* legea; orain, lege bera, baina AEBetan: SOPA (Stop Online Piracy Act). Egile eskubidea babestu gura du lege proiektuak. Erabiltzaileak, baina, beldur gara lege horrek adierazpen askatasuna urratuko duelako. Gainera, Estatu Batuetako legea izanik, zuzenean eragingo digu. Momentuz, lehen kolpea jaso du sareak Megaupload-en itxierarekin; 180 milioi kaltetu utzita. Honen aurrean, Wikipediak eta Google erraldoiak protesta egin dute, eta Kongresuan egin beharreko bozketa atzeratzea lortu. Argi dagoena da indarrak batzea modukorik ez dagoela batzuek egin nahi duten gizarte hau aldatu nahi badugu.

"Zergen %0,7 ikerketara zuzentzeko aukera eskatzen dute"

KALE INKESTA

Hasi zara Aratusteetako mozorroa prestatzen?




AITOR MALTRAS
ARRASATE

"Poliziaz jantzea pentsatu dugu lau lagunek. Karrozarik edo bestelako tramankulurik ez dugu eramango. Zapatuan aterako gara".




ANJE PILDAIN
ARRASATE

"Ni ere polizia mozorrotuko naiz. Guk pentsatu dugu baina gelako lagun asko zertaz jantziko diren ez dakigu, sekretua da oraindik".



UNAI GALAN
ARRASATE

"Patinetelariz joango gara. Aurten geuk diseinatuko dugu mozorroa: ordenagailua, spray-a eta kamiseta bat behar ditugu".



UNAI ESTRELLA
ARRASATE

"Bai. FBIko agentez jantziko gara ni eta lagunak. Maritxuko arropak erabiliko ditugu trajea prestatzeko, eta betaurrekoak".

HANDIK ETA HEMENDIK

Merkurioa zure platerean

Unai Brea
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Ia seguru, RASFF hizkiek ez dute esanahi berezirik zuretzat, niretzat orain dela bost minutura arte ez zuten bezala.

Europar Batasunaren (EB) Elikagai eta Pentzuen Alerta Azkar Sistemaren ingelesezko siglak dira.

Bada, 2011n RASFFek merkurioz kutsatutako arrainen 76 kasuren berri eman du.

Arrain eta bestelako itsaskien kutsaduraren kausa nagusia da merkurioa, izan ere.

Eta 76 kasu diogunean, EBk ezarritako mugak gainditzen diren kasuez ari gara.

Zerbait elkarte ekologistak diotenez, hortik behera ere kutsadura dago; haien ustez, Europak maluegi jokatu du gehienezko kopuru onargarriak zehaztean.

Espainiako Ecologistas en Acción esanetan, europar araudiak ez ditu kontuan hartzen ez batez besteko

kontsumoa, ez eta kontsumitzaileen gorputz-ezaugarriak ere.

Hala, EBren irizpideak ez dira, inondik inora, FAO/OMERen Batzorde Mistoak ezarritakoak bezain zorrotzak.

Datu zehatzak nahi badituzu *Ecologistas en Acción* helarazi digun idatzi honetan aurkituko dituzu. [Sarean bertan dago idatzi hori irakurtzeko lotura]

Merkurioaren kalteez idaztea legokidake orain, baina eginda daukat lan hori duela ez hainbeste.

Elikagaien kutsadurari buruzko erreportaje honetan koadro oso bat eskaini nion gaiari (joan erreportajearen amaieraraino). [Sarean bertan dago erreportaje hori irakurtzeko lotura]

Ordutik hona arrain askotxo jan dudanez, eta horren ondorioz zehaztu gabeko metilmerkurio kopuru bat metatu dudanez nire organismoan, ziur naiz nire garuna ez dela gai izango orduko hura baino testu hobea ekoizteko.

Honenbestez, jatorrizko bertsioa gomendatzen dizut, besterik ez baita izanen.

Kontuz arantzekin.

Eredua

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi

Julio Ramón Ribeyro idazle perutarrik ondo zioen: mundua ez dago haurrentzat egina. Aizto bat hartzen badute, ebakia. Eskaileretan gora tapa-tapa hasita, erorikoa. Jostailu batekin airea astintzen hasita, kolperen bat auskalo non. Ez dira ezer egiteko gauza, beti behar dute bateren bat gainean. Entxufeak, sua, aulkia, dena dute arrisku. Loreak, alfombra, pareta zuri-zuriak, dena dute debeku. Moldatu ezina, arriskua, debekua. Ez, mundua ez dago berentzat egina. Ez dute beste biderik ikusten: mundua gobernatzen dugula dirudigunok esandakoa betetzea. Eta gu imitatzen hasten dira, gure ispluan antolatzen dute beren izaera, gu ez baikara aulkitik erortzen, guk ez baitugu kaka egiten fardelean, gu polito batean moldatzen baikara koilara ahora eramaterakoan.

Balekite helduok beren xalotasunaren nostalgia dugula, balekite pozik hasiko ginatkeela sukaldeko mahaia astintzen berdura-purez beteriko koilara batekin...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Asteburuko edizio arduraduna
Leire Kortabarría
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martín, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.

GOIENAN ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

zatoz ikastolara!

matrikula epea zabalik

urtarrilaren 30etik otsailaren 10era



HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

UDAL ZERBITZUA

URIBARRI urtarrilak **31** 18:00 ARRASATE

UMEZAINZA otsailak **1** 18:00 ARRASATE

UDAL ZERBITZUA

ATE IREKIAK

ARIMAZUBI urtarrilak **30** 17:00-18:30 ARRASATE

JOSE ARANA urtarrilak **31** 18:00-19:30 ESKORATZA

UDAL ZERBITZUA

LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

ARIMAZUBI urtarrilak **30** } 18:00 Bilera informatiboa

SANTA TERESA otsailak **1** } 19:00 Gunearen bisita

ARRASATE

ATE IREKIAK

ALMEN otsailak **4** 16:30-18:30 ESKORATZA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

GAZTELUPE urtarrilak **31** 18:00 ARRASATE

otsailak **1** 18:00 ARRASATE

ALMEN otsailak **2** 18:00 ESKORATZA



informa zaitez

943 77 20 25
www.arizmendi.eu

A
Arizmendi
ikastola

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Arritxu Oliden | Aretxabaletako alkatea (2003-2007)

- ▶ EAJ ordezkatzeko Udalean emandako garaiaz oso oroitzen onak ditu aretxabaletarrak
- ▶ Bi agintalditan egon zen Udalean; lau urte alkate eta 2007tik 2011ra zinegotzi
- ▶ Kultura etxearen eta zaharren egoitzaren proiektuak nabarmendu ditu, besteak beste

"Momentu txarrak bizi izan nituen, baina asko disfrutatu nuen alkatetzan egon nintzenean"

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Alkatetzara heldu zenean Aretxabaletan gabezia handiak zeudela gogorarazi du Arritxu Oliden jeltzaleak. Bada, herriak oraindik ere beharrak baditu ere, 2003tik 2007ra bitartera gabezia horiei irtenbidea emateko "oinarriak" jarri zirela uste du.

Nolatan sartu zinen politikan?

Gure etxean politika beti bizi izan da asko, gure aita alderdian sartuta egon da betidanik. Ni ere nahiko gazte sartu nintzen alderdian; beti ibili naiz eta segituko dut horretarako grina izaten.

Zer eman zizun profesionalki eta pertsonalki alkate izateak?

Pertsonalki, oso aberatsa da, asko ikasten da, jendea ezagutzen da, gauza onak eta txarrak ikusten dira, gatazkak gainditzen eta kudeatzen ikasten da... Profesionalki, aberasgarria izan daiteke, eta baita kontrakoa ere. Lanpostua edukita eta bueltatzeko aukera izanez gero, oso ondo; hori ez zen nire kasua. Laguntza baino gehiago, oztopo izan zen. Hutsune handia izan dut: alkatetza utzi eta gero, denbora luzea egon nintzen ezer egin barik; baina, azkenean, lortu nuen bideratzea.

Nola gogoratzen dituzu alkatetzan emandako lau urte haiek?

Oso oroitzen onak daukat. Momentu txarrak ere izan banituen ere, asko disfrutatu nuen.

Zeintzuk izan ziren abian jarritako proiektu esanguratsuenak?

Gauza politikak egon dira: kultura etxea eta zaharren egoitza. Plaza berritzeko eta tunela egiteko proiektua ere garai hartakoa da, baita ingurunea oinezkoendako egiteko egitasmoa ere. Gero, parte-hartze prozesua abian jarri zen



Arritxu Oliden, egubakoitzean, Arkupe kultura etxea atzean duela. | MIRIAN BITERI

kirol etxeako proiektuaren inguruan.

Zein duzu gustukoena?

Kultura etxea eta zaharren egoitza. Kultura etxea, beharra zego-

lako eta nahiko denbora egin genuelako gabezia horrekin. Bestetik, zaharren egoitza oso proiektu berritzailea zen. Kooperatiben inguruko antzeko egitasmoak ez

zegoen; berritzailea izateaz gain, ona ere izan zen. Gabezia handia zegoen arlo horretan ere. Alkatetzara heldu ginenean, hainbat gabezia handi zegoen kultura eta



2006ko otsailean egindako osoko bilkura, Oliden alkate zela. | MIRIAN BITERI

gizarte inguruan, eta oraindik ere badaude, beti daude eta erronkak udaletan. Baina gabezia horiei irtenbidea emateko oinarriak jarri genituela uste dut.

Eta ze proiektu izan zen gaitzena aurrera eramateko?

Zaharren egoitzarena. Buruhauste handiak eman zizkidan, ez zegoelako adostasunik Udalean; pertsona askorekin berba egin behar izan nuen. Konplexua zen, Diputazioa, alderdi politikoak, kooperatibak eta zeudelako.

Nola ikusten duzu gaur egungo Aretxabaleta?

Garai hartan ez zegoen behar garrantzitsua dago egun: krisialdia. Horri erantzuna emateko beharra ikusten dut; hori da garrantzitsua. Hor dago industrialdea eta langabezia. Horri bultzada eman behar zaio, samurra ez bada ere. Industrialdeari erakunde guztietako laguntzekin eman behar zaio bultzada; Oñatirekin batera, lehenetarikoa izan zen. 30 urte inguru pasa dira ordutik eta proiektu berritzailea egin behar da horren harira.

Zerbait falta zaio herriari?

Gure garaian, auditorium handia egin nahi genuen. Baina egun, ezin da horretan pentsatu, eta ez dut uste beharra dagoenik ere.

Amaitu aurretik, Udalera bueltatuko zinake?

Oraingoan, ez. Baina etorkizunean, agian bai. Gastatu egiten du, bereziki, ardura edukita, tentsio handia dago; baina poztasunak ere badaude. Proiektuak aurrera doazela ikusita, pozgarria da, Aretxabaletaren onerako delako. Udalean daudenei animoak bidaltzen dizkiet.

"Etxean politika beti bizi izan da asko, aita alderdian egon da sartuta betidanik"

"Industrialdeari erakunde guztietako laguntzekin eman behar zaio bultzada"

DERBIA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK | BERGARA ETA ARETXABALETAREN ARTEKO DERBIA

URTARRILAK 30, 20:42 | XABI URTZELAIAK AURKEZTUA



HERRIAK



Alegría de la Sierra taldearen emanaldiaz gozatu zuten domeka eguerdian Al-Andaluseko elkarteko egoitzara gerturatu zirenek. | AMAIA TXINTXURRETA

ARRASATE

Al-Andalusen 22 urteak giro ederrean ospatuta

- ▶ Egubakoitzean Bedoñan egin zuten afarian 100 lagun batu ziren
- ▶ Zapatu eta domekako musika ekitaldiek jendea dantzan jarri zuten

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Atsedean gabeko asteburua izan dute Arrasateko Al-Andalus elkarteko kideek. Egubakoitz gauean hasi eta domeka eguerdira arte iraun zuen elkartearen 22. urteurrena ospatzeko jaiak. Musika lagun, ez dute aspertzeko astirik izan Arrasate edota inguruan bizi diren andaluziarrek eta euren lagunek.

Musika lagun, jai ederra

Egubakoitzean hasi ziren 22. urteurrena ospatzeko ekitaldiekin. Urtero egin ohi izan duten bezala, afari bat egin zuten etxetik kanpo, Bedoñan hain zuten, eta 100 pertsona inguru elkartu ziren. Rafa Gomez elkarteko lehendakariak esan digu ondo afaldu zutela, animazio bikaina izan zutela eta giro ederrean egon zirela.

Zapatuan elkarteko bi taldek emanaldia eskaini zuten: Sueños de Andalucía dantza taldeak eta Al-Andalus abesbatza errozieroak. Horietan ere ikus-entzule ugari

batu ziren eta giro aparta izan zuten. Gauean afariaren ostean, Tolín el Mariachi Bilboko mariatxiak eskaini zuen ikuskizuna eta jaia goizeko hirurak arte luzatu zitzaizen.

Domeka eguerdian eman zioten 22. urteurren jaiari amaiera Alegría de la Sierra taldeko kideen

eskutik; Sevillako doinuak, rumba eta pasodobleak jo zituzten eta bertaratutakoek txalo eta dantzekin animatu zuten jaia.

Gomez lehendakariak aitortu zigun elkartearen urteurren ospakizuna ez dela izaten euredako urtean egiten duten ekintza garrantzitsuena, baina hala ere,

"jende asko etorri da antolatu ditugun ekitaldietara, giro ona izan dugu guztietan eta denok jarri gara kantuan eta dantzan, umore ona galdu gabe. Beraz, Al-Andalusen 22. urteurrenaren balorazio oso positiboa egiten dugu", azaldu zigun Gomez lehendakariak.



Zapatu gauean egin zuten afarian batutako lagun talde bat. | JULIO CALLEJA



RAFA GOMEZ
LEHENDAKARIA

"Gaur egun 320 kidek osatzen dugu elkartea eta gustura gaude"

Al-Andalus elkartea 1990. urtean sortu zen eta asteburuan ospatu dute elkartearen 22. urteurrena. Gaur egun, Rafa Gomez da lehendakaria eta adierazpen hauexek egin dizkigu.

Gaur egun zenbat kidek osatzen duzue Al-Andalus elkartea?

320 kidek osatzen dugu. Denboraldi baten gehiago ere izan ginen; batzuk euren jaioterriara bueltatu dira eta beste batzuk hil egin dira. Gaur egun, ez dira horrenbeste pertsona etortzen hona, orduan, geroz eta jende gutxiago batzen da elkarera, baina egia esan, azken urteotan gora egin dute kide berriek gure elkartearen.

Gipuzkoan horrelako zenbat elkarte daude?

Gipuzkoan momentu honetan horrelako hiru elkarte daude. Bata Errenterian, bestea, Lasarte-Orian eta gelditzen dena hementxe daukagu, Arrasaten. Esan behar da baina, geurea dela Euskadiko handiena bai egoitzari dagokionean, baita kideei dagokionean eta baita urtean zehar egiten diren ekintzetan ere. Euskadin guztira 13 elkarte gaude, baina Arrasatekoa da handiena.

Gainera, elkarte barruan hainbat talde dituzue?

Bai, bost talde daukagu. Batzuk antzerkia egiten dute, abesbatza erroziero ere badaukagu, dantza taldea ere bai, txirigota taldea ere ez zaigu falta, eta azkenik, talde erroziero daukagu. Egunotako ospakizunetan gure hiru taldek hartu dute parte eta pozgarria da eurak eszenotoki baten ikustea eta jartzen duten giroaz gozatzea.


"Musika, kantua, dantza eta antzerkia lantzen duten taldeak daukagu elkartearen"



Aterkina eskuetan duela ibili da asteburuan jendea Zaporeen Azokan. | JULIO CALLEJA



Mirarizko zartaginak. | JULIO CALLEJA

**IKER ETA IZASKUN**
ELORRIO

"Gazta probatu dugu eta gustatu zaigu eta erroskilak erosi ditugu. Zartaginak, mantelak eta antzerako produktak ere badaude eta agian opari bat eramango diogu amamari".

**NAIARA ARANBURU**
BERGARA

"Gurasoekin eta anaiarekin etorri naiz eta olagarroa probatu dugu. Lehendik ere banekien zein zapore zuen eta hemen prestatutakoa ere asko gustatu zait. Azoka dena gustatu zait".

**EKHI ETA JOXE**
BERGARA

"Zapatuan ibili gara azokan, lagunekin eta etxeko senideekin eta gure plana izan da gazta, txorizoa, erroskilak eta olagarroa jatea. Platerean jan dugu olagarroa. Gozoa da".

**JOSE GAONA**
LUGO

"Jendea etorri da baina aurten eguraldiak ez digu asko lagundu, egia esan. Muskuiluak, olagarroa, txorizoa, babarrunak eta urdaiazpiko egosia ekarri ditugu Galiziatik, probatzeko".



Mota askotako fruitu azukredunak eskaintzen zituen postuan aukeratu ezinik. | JULIO CALLEJA

BERGARA

Oliorik gabeko zartaginak eta Galiziako olagarroa Bergaran

Extremadura, Euskal Herria edo Galiziatik etorritako 18 postu egon dira asteburuan San Martin plazan, hirugarren Zaporeen Azokan

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Ezer, ezta esnea ere, itsasten ez den zartaginak izan dira aurten ere zaporeen azokan arreta handiena piztu duen produktua. Azoka zabalik egon den denbora osoan pilatu da jendea oilaskoa, piperrak edo patata frijituak oliorik gabe prestatzen dituen mira-

rizko zartaginak nolakoak diren eta nola erabiltzen diren ikusteko. Zikintzen ez duten mantelak edo altzairuzko koloreetako labanak ere eskuartean izan dituzte azokara joan direnek. Txokolatezko madalenak ere erosi ditubatek baino gehiagok eta aloe vera landarearen onurez ere gal-

detu dute. Beste askok, aldiz, Extremadurako gazta edo Galiziako olagarroa eta ardo zuria jan eta edan dute. Denak, hori bai, aterkia eskuetan zutela. "Euriak ez digu batere lagundu", aitortu du Lugotik Bergarara etorri den Jose Gaonak, "jendea etorri da muskuiluak eta olagarroa

jatera, baina eguraldi onarekin beste kontu bat izango zen, ziur". Hirugarren urtez antolatu dute Bergaran Zaporeen Azoka eta 18 postu egon dira eguenetik domekara bitartean San Martin plazan, tartean Kantabria, Mallorca, Euskal Herria edo Gaztela Leongoak.

ARRASATE ETA BERGARA

Meatzerreka eta Uberako jaiak, bikain

Asteburuan jaiak izan dira Arrasateko Meatzerreka auzoan eta baita Bergarako Ubera auzoan ere. Giro ederrean igaro dituzte jaiak auzotarrek. Argazki batean Meatzerrekako patata tortilla lehiaketako irudia duzue; bestean, Uberako Mari Justaren jaitziera.



ESKORIATZA

Ibarraundi ingurua apaintzen dute atzoz geroztik herriko 30 umetxoren haritzek eta lizarrek

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA

Zuhaitzak ezohiko leku baten landatzea erabakita zuten, Ibarraunditik gertu dagoen San Pedro auzoko parkean; baina, azkenean, hori ere aldatzera behartu zituzten antolatzaileak domekako euriak eta hotzak. Hala, Ibarraundiko zelaian bertan landatu zituzten 30 bat familiak beste hainbeste haritz eta lizar, iaz jaiotako umeak adinako kopurua.

"Elur-ura ziharduen eta, une baten, elurra egin du", Ibarraundiko Saioa Alzuaren esanetan. Horregatik, denbora alperrik galdu gabe, familien artean aitzurrak banatu eta lanean hasi ziren. Ordu betean landatuta zituzten ume jaioberrien omenezko arbolatxoak. Landatu barik geratu zirenak Ibarraundiko arduradunek landatuko dituzte.

Umeak, bisitan

Aurrerantzean, ume horiek euren arbolatxo izango dute Ibarraundi inguruan. Alzuak esan duenez, "umeak joaten dira euren zuhaitza zelan dagoen ikustera". Ea bada, denok indartsu hazten diren!



Denborarik galdu gabe, aitzurrak banatu eta jo eta su ibili ziren familiak, zuhaitzak landatzen. | JULIO CALLEJA



Umea, aita zelan diharduen begira. | JULIO CALLEJA



Umeak ikusminez begiratzen dio zuhaixkari. | JULIO CALLEJA

DATUA

20

ZUHAITZ

Landatu barik geratu ziren 20 bat zuhaixka, eta horiek Ibarraundiko arduradunek landatuko dituzte astean barrena.



ANTZUOLA

USOA AGIRRE

AHTren lanak ikustera joateko ibilaldia

AHT Gelditu! Elkarlanak antolatuta mendi ibilaldia egin zuten atzo, domeka, Antzuolan egiten ari diren AHTren lanak ezagutzeko. Hilario Manzanedo elkarlaneko kideak esan zigunez, "Antzuolan suntsiketa handia egiten ari dira, batez ere Basalde auzoan". Datozen egunetan beste zenbait ekintza ere egingo ditu AHT Gelditu! Elkarlanak. Gaur, astelehena, adibidez, Gipuzkoan azpiegitura handiak geraraztearen aldeko mozioa aurkeztuko dute Bergarako Udalean, 19:00etan.



ESKORIATZA

JULIO CALLEJA

Ur-jolasak, hotzari aurre egiteko

Kanpoan egiten zuen hotzari aurre egiteko, kiroldegiko igerilekuan jarritako uretako parkean jolasean aritu ziren atzo Eskoriatzako zenbait ume. 6 urtetik beherakoak izan ziren lehenengo, eta 7 eta 9 urte artekoak gero; 20 bat ume batu ziren bigarren txandan. Domeka hotz baterako plan bikaina, dudarik gabe.

Komunikazio arduraduna izango du Udalak, "beharrezkoa" duelako

EAJk eta PSE-EEK, berriz, ez dute uste beharrezkoa denik eta aurrekontua onartu eta lehen hilean partida bat aldatzea salatu dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak aurki komunikazio arduraduna izango du, udal gobernuak "beharrezkoa" ikusten duelako. Onartu berri den 2012rako aurrekontuan Pertsonal Sailera bideratuko den partida bat kenduko da -Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoa kontuan hartuta, 43.304 eurokoa, hain justu- postu hori betetzeko. Hala ere, funtzionarioei zuzendutako ordainsarietatik konpentsatuko da. EAJk zein PSE-EEK ez dute uste postu hori beharrezkoa denik eta lehen hilean aurrekontuetako partidak aldatzea salatu dute.

Komunikazio arduraduna alkatearen ardura politikoaren menpe egongo da eta Gizarte Zientzia eta Komunikazioan lizentziatua izan beharko da. "Konfiantzazkoa" izango da eta beraz, udal gobernuak kideek aukeratu dute. Urtean 32.831 euro ordainduko zaio egun osoko jardunagatik. Besteak beste, komunikabideekin harremanetan jarri eta Udalaren webgunea eguneratu beharko du.

Diputazioari itzulketa, aurrera

Joan den eguneko ezohiko pleno luzea eta eztabaidaz jositakoa izan zen, eta aurreikustekoa zenez,



Askotariko interbentzioez gain, hainbat bozketa egin ziren joan den eguneko osoko bilkuran. | J.B.

mozioek eragin zuten eztabaida gehien. PSE-EEK foru funtsaren edo FOFINaren gainean aurkeztu zuen mozioa ez zen onartu, Bildu eta Aralarrek kontra bozkatu zutelako -EAJ eta PSE-EEK alde bozkatu zuten-.

Foru funtsa da, bi hitzetan esanda, Udalak Diputazioari itzuli beharrezkoa, urte hasieran larregi jaso duelako. Sozialistek

uste dute itzulketa behartuz gero Diputazioak Udala ekonomikoki "ito" egingo duela, eta ordainketa hori egiteko erraztasunak eskatzen dizkio. Horren aurrean, Bilduko bozeramaile Iraia Solak adierazi zuen Diputazioaren egorra ere oso larria dela eta Arrasateko Udalak zorra ordaintzeko gaitasuna duenez, ordainketa eskatu moduan egingo dela.

Atez atekoa, plenora beste behin

Sozialistek beste behin ekarri zuten atez ateko hondakin kudeaketa sistema plenora, mozio bidez. Ez zen onartu, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin eta Bildu eta Aralarren kontrakoekin. Bilduko bozeramaileak hondakinak "ahalik eta modurik berezituenean" jasoko dituen sistema defendatzen dutela esan zuen:

"Uste dugu arduragabekeria handia dela egungo sistemarekin jarraitzea; aurreko plenoan esandakoa errepikatzen nator: hondakinak guztion ardura dira, ez da borondate kontua".

Talde sozialistako bozeramaile Aritz Arrietaren arabera, udal gobernuak informazioa ezkutatu eta elkarrizketa saihesten ari da: "Udalean gehiago absolutua izango duzue, eta hori erabiltzeko asmoa ere bai, baina gehiago absolutua ez du esan nahi arrazoi edota egia absolutuaren jabe zarenik". EAJko Juan Carlos Garitanok, bestalde, "ikerketa sakona eta inpartziala" eskatu zuen. Honakoa ere gaineratu zuen: "Ez dugu ulertzen bost urtetan bosgarren edukiontzia erabilera hobetzeko ezer egin ez denean orain prisa sartzea".

Azkenik, Igor Iturbe herritarrak "azpiegitura erraldoien" aurka aurkeztutako mozioak aurrera egin zuen. Beste "Gipuzkoa bat" eta "beste gizarte eredu bat" posible dela aldarrikatzeaz gain, udalbatzari eskatu dio, besteak beste, azpiegitura horietako obrak geldiarazi ditzala. Bilduk bere egin zuen mozioa eta EAJk eta sozialistek kontra egin zuten. Beraz, aurrera egin zuen mozioak.



Lizaso eta Egañak ezagutzen dute Gesalibarko elkartea; aurtan Jokin Labayen eta Manex Agirre etorriko dira. | ARTXIBOA

Gesalibarko jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

Egubakoitzeko bertso afarian, Manex Agirre eta Jokin Labayen; izenematea zabalik dago, elkartearen

J.B. | ARRASATE

Badatoz Gesalibar auzoko jaiak. Otsailaren 3tik 5era bitartean ospatuko dira eta aurtengo egitarauko nobedadea, Josu Ibabe jai batzordeko kidearen arabera, Toka txapelketa -otsailak 3, 19:00etan- eta patata tortila lehiaketa -otsailak 4, 11:00etan- izango

dira. Bi lehiaketak lehen aldiz egingo dira. Era berean, lehen aldia da Ibabe jai batzordean diharduela, baina bertakoa izanik txikitatik ditu oroitzen onak: "Lehen animaliak izaten ziren eta baita musika kontzertu ederak ere. Orain ez dago horrelakorik". Hori horrela, honakoa

aurreratu digu: "Hotz handia egiten du garai honetan eta pentsatzen gabiltza udara begira kontzertu edo beste ekitaldiren bat antolatzea".

Jendetsuena, bertso afaria

Jaietako ekitaldi arrakastatsuen elkartearen egiten den egubakoitzeko bertso afaria izaten da (21:00). Izenematerako zerrenda elkartearen ireki dute dagoeneko eta "eguztena arte-edo" eman ahalko da izena. Manex Agirre eta Jokin Labayen izango dira gonbidatuak. Eta zapatuan, nola ez, kantuan irtengo dira baserriz baserri, Santa Ageda bezpera ospatzeko.

Eguraldi txarrak eraginda, aldaketak izango dira asfaltatze lanen egunetan

J.B. | ARRASATE

Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak Sailak aldaketak iragarri ditu erdiguneko asfaltatze lanetan. Amaia antzoki pareko zebra bidea eta ondoko aparkalekuak gaur eta bihar egokituko dituzte. San Frantzisko kalearen txanda bihar izango da eta otsailaren 3an eta 6an Arrasate pasealekua eta Gazteluondo sarrera konponduko

dituzte. Azkenik, otsailaren 7an ospitaleko aurreko aparkalekua egokituko dute

Aldaketa zirkulazioan

Otsailaren 3an eta 6an egingo diren lanetan alde zaharreko zirkulazioak aldaketak izango ditu: Maalatik sartzen diren autoak Erdiko Kale eta Olartetik irteten beharko dira. Euririk egiten ez badu beteko dira datak.

Arrasate Pilota taldeak antolatzen duen zozketa, domekan

Arrasate Pilota taldeak urteroz zozketatzen dituen bi bixiguak eta angula kiloa eramango dutenak asteon ezagutuko ditugu. Izan ere, otsailaren 5ean egingo da zozketa. Txartelak salgai daude oraindik eta saltzen ez direnak eguztenean jasoko dira. Antolatzailen esku geratuko da saria diruz trukatzeko aukera.

Gazte txokoak: sukaldaritza tailerrak, egubakoitzean hasita

Erguingo eta San Andresko gazte txokoek berriz ere helduko diote sukaldaritza tailerrari. Otsail eta martxoan zehar egubakoitzero martxan jarriko dituzte gazte txokoetako sukaldariak. Lehen saioan, egubakoitz honetan, ogia egingo dute. Aurrerago egingo diren saioetan plater berezi bat prestatu eta dastatuko dute.

Erabiltzaileek kirol instalazioen prezioak merkatzea eskatu dute

Aukearen instalazioak eta kudeaketa hobetzeko inkestaren emaitzek diotenez

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aukeak inkestak egin zituen erabiltzaileen iritzia jasotzeko, azaroaren 28tik abenduaren 18ra bitartean. Inkesta hori, diotenez, kirol erakundearen hobekuntza iraunkorraren barnean dagoen hausnarketaren parte da eta bi atal izan ditu: batetik, Aukearen kudeaketaren balorazioaren gainean galdetu dute eta, bestetik, instalazioen balorazioa eskatu diete herritarrei.

Kudeaketaren gainean honakoak erabiltzaileek okerren baloratu dituztenak: prezioa –oso garesti dela uste dute–, bai abo-

nuarena eta baita ikastaroena. Ondo baloratutakoaren artean daude, berriz, monitoreen jarrera eta ordutegiak, bai instalazioena

eta baita bulegoena ere. Bestalde, instalazioei dagokienean, txarto baloratuen artean daude Fitness makinaren kopurua eta horien kalitatea. Eta ondoen baloratutakoaren artean daude, igerileku txikiko uraren tenperatura eta igerilekuaren araudia.

Domekan zabaltzeko erronka
Inkestaren egileek eskerrak eman gura diete inkesta horretan parte hartu dutenei: "Erabiltzaileek ematen duten informazioa ezinbestekoa da gure zerbitzua hobetzeko". Jasotako informazio horrekin Aukearen helburuak



Instalazioak erabiltzeko prezioak garestiegiak dira, erabiltzaileen ustez. | J.B.

DATUA

284

PARTE HARTZAILE IZAN DIRA

284 erabiltzailearen iritzia jaso ditu Aukea kirol erakundeak inkesta bidez.

zehaztuko dituzte, legealdi honetan beteko dituzten esperantzaz. Eta gaineratu dute aurrerantzean urtean behin egingo dituztela halako inkestak, beti ere erabiltzaileen eskaeren bilakaerari jarraipena egiteko. Inkestek 284 herritarren iritzia jasotzen dute

eta horietan jasotako iradokizunak kontuan hartuz, Aukeak honako erronkak zehaztu ditu: domeka arratsaldetan instalazioa zabalik izatea, saunaren eta fitness eremuak hobetzea eta jendaurreko atentzioa zein mantedu zerbitzua hobetzea.

Iturbide dantzan jarri zuen Nagusilan elkarteak

Urteroko jaiaren barruan, Jose Mari Soroa musikariak dantzaldia eman zuen egunean

J.B. | ARRASATE

Urteroko jaiari eutsiz, Nagusilan elkarteak dantzaldia antolatu zuen egunean Iturbide egoitzan. Jose Mari Soroa abeslari donostiarrak dantzan jarri zituen Iturbideko egoiliarak. Euskal kanta eta denetariko kanta ezagunez gain, zenbait txiste ere kontatu zituen boluntario donostiarrak. Opari batzuen zozketa ere egin zuten. Nagusilan elkarteak hamar urte daratza Arrasateko edadetuen-

dako ekimenak antolatzen. Tomas Atxa elkarteak ordezkarriak aditzera eman duenez, egun 41 boluntario dabilta lanean Iturbide egoitzan, ospitalean eta eguneko zentroan. Hilero 400 ordu sartzen dituzte.

Atxak adierazi du atek zabalik daudela parte hartzeko. Horretarako, Arrasate pasealekuan duten egoitzara jo, 943 25 09 90 telefonora deitu edo nagusilanarrasate@hotmail.com helbide elektronikora idatzi.



Arantxa Olabek prestatutako otzara, Iratxe Bidaolarendako

Urteko lehen baserriarren azokako otzaren zozketako irabazlea Arrasaten bizi den Iratxe Bidaola –ezkerrean– urnietarra izan da. Otzara osatzeko produktu sorta Gesalibar auzoko Euzketa Aldekoa baserriko Arantxa Olabek –eskuinean– prestatu du. Aurrerantzean ere zozketatutako otzara BAZen jarriko da ikusgai azoka egin eta osteko egubakoitzean.

ARRASATEKO UDALA



Hainbat egoiliar dantzan jarri zituen Jose Mari Soroak. | JOKIN BEREZIARTUA



Iturbideko kultura aretoa bete egin zen dantzaldian. | J.B.

Leku eta ordutegi aldaketak Dorleta Martinezen hitzaldietan

Dorleta Martinez medikuari geratzen zaizkion bi hitzaldietan aldaketak eman dira. Aurreko biek izan duten arrakasta ikusita, Amaia antzokian egingo dira geratzen diren beste bi saioak. Fibromialgiaren gainekoa otsailaren 7an egingo da, 18:30ean hasita. Antolatzaileek jakinarazi dute, gaixotasun hori dutenen mesedetan, hitzaldira joateko ez dezatela perfume edota koloniarik erabili. Azkenik, otsailaren 21ean egitekoa zen azken hitzaldia martxoaren 7ra arte atzeratu dute. Azken hitzaldi horretan elikadura eta minbiziaren gainean arituko da Martinez.

Arrasate yoga elkarteak 2012rako ikastaroen berri eman du

Arrasate Yoga elkarteak urte berriari begira antolatu dituen ikastaroen berri eman du. Yoga eta pilates ikastaroak eskainiko dituzte, hobekuntza zein hastapen fasean diharduten herritarrei begira. Ikastaroak otsailtik ekainera izango dira. Hona hemen pilates ikastaroaren ordutegia: astelehenera, 10:00etatik 11:30era eta 18:30etik 20:00era eta eguaztenetan, 10:00etatik 11:00etara eta 18:20etik 19:20era. Yoga ikastaroa, berriz, astelehenera izango da, 20:00etatik 21:30era.

Izena emateko deitu telefono hauetara: 943 79 66 98 edo 636 386 066. Helbidea honakoa da: Altamira auzoa, Jose Luis Inarra pasealekua, 26-28B. 0

Biteri eta Laubideko aparkalekuak, Tokiko Gobernu batzarrean

Gaur egingo den Tokiko Gobernu batzarrean (16:00) hainbat gai jorratuko ditu Udalak. Horien artean nabarmentzekoa da, hirigintza batzordearen barruan, Biteri eta Laubideko aparkalekuen gunea ustiatzeko administrazio emakidaren urteko jarraipena egingo dutela. Jarraipena egiteaz gain, Gespark enpresari epe berri bat emango zaio, instalazioak ikuskatzeko txosten teknikoa aurkez dezan. Bestalde, Ferixalekuko igogailuen mantentzeari buruzko faktura ontzat eman beharko du batzarrak, eta horrez gain, Kanpazar harrobiko uren azterketa ere jarraitu beharko du.

Herriko merkataritzaren gaineko plangintza aurkeztuko dute otsailean

Udala, Bedelkar elkarte eta Ikertalde aholkularitza taldeko ordezkariak aurre diagnosis ezagutzeko bilera izan zuten egubakoitzean udaletxean

EDU MENDIBIL | BERGARA

Herriko merkataritza indartzeko plana martxan jarri zuen Udalak irailean eta zehaztutako ekintzen berri emango dute arduradunek otsailean. Krisiak eta bestelako faktoreek eraginda, merkataritzaren beherakada eman da Bergaran azken urteotan, inguruko herri askotan gertatu bezala. Egoera horrekin kezkatuta, Eusko Jaurlearitza Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta Bedelkar herriko dendarien elkartearekin batera, merkataritza indartzeko neurriak aplikatu nahi ditu Udalak.

600 inkesta inguru

Ikertalde aholkularitza taldeak eraman du zuzendaritza tekniko eta irailatik hona 600 inkesta inguru egin dituzte, 400 telefono bidez eta 200dik gora aurrez aurre. Ikertaldeko Ainhoa Mitxelenak azaldu digunez, besteak beste, Bergarako merkataritza eskaria eta eskaintza aztertu dituzte eta herriko kontsumitzaileen erosketak ohiturak jaso dituzte baita. Egindako inkestekin lotuta, ordeko inkestatzaileetako batzuk ez ziren elebidunak eta hori dela eta barkamena eskatu nahi diete elkarrizketa euskaraz egin ezin izanagatik eragozpenak izan dituzten herritarrei.

Egoera, "gris iluna"

Jesus Elortza alkatea eta Bedelkarreko ordezkariekin batera Ikertaldeko Ainhoa Mitxelena eta Iñigo Artetxe bildu ziren egubakoitzean udaletxean. Udaleko hainbat zinegotzik (gubernukoak zein EAJko Arantzazu Amasorrain eta Ander Alberdi) eta zenbait



Ikertalde aholkularitza taldekoen ustez "gris iluna" da Bergarako merkataritzaren gaurko egoera. | JULIO CALLEJA

udal teknikariek ere hartu zuten parte ikerketaren aurre diagnosis ezagutzeko egindako bileran. Ikertaldeko ordezkarien ustez, herriko merkataritzaren egoera "gris iluna" da.

Horren adibide dugu azkenaldian itxitako komertzioak edota sasoi bateko kale garrantzitsuek merkataritzaren dagokionez gal-

lutako protagonismoa. Edozelan ere, Mitxelenaren arabera, inkestan zera jasotzen da: orokorrean herritarrek iritzi ona daukatela gertuko komertzioarekin.

Eman beharreko urratsak

Herri mailako jarduerak, enpresa jarduerak edota merkataritza izan dituzte aztergai Ikertalde aholku-

laritza taldekoek. Bergarako merkataritza indartzea da helburu nagusia. Bedelkar da indarberritze plana aurrera ateratzeko agente nagusietako bat. 1994. urtean sortuta, 80 bazkide inguru dira gaur dendarien elkartearen. Datozen egunotan, esan bezala, egoera hobetzeko eman beharreko pausoen berri emango dute.

OHARRAK

SAN MARTIN IKASTETXEA: HITZALDIA BIHAR

2012-2013 ikasturteko matrikula kanpainaren barruan, bihar, martitzena, gurasoei zuzendutako bilera informatiboa izango da San Martin Herri Ikastetxeko liburutegian, 18:00etan. Argibideak: 943 76 21 47.

MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEEN ZOKKETA

Mariaren Lagundia Ikastolako DBHko 4. mailako ikasleen zokketan 2.578 izan da saritutako zenbakia. Zumelaga jate-txean bi lagunendako afaria eskuratuko du irabazleak. Holandako ikasleekin elkartrukea egiteko dirua lortzeko antolatu zuten zokketa. Txartelaren jabeak Mariaren Lagundira (943 76 25 40) dei dezake otsailaren 29a baino lehen.

HIKA IKASTAROA OTSAILEAN JARDUNEKIN

Jardunek antolatuta, otsailaren 13tik 23ra hika ikastaroa emango du Juan Martin Elexpuruk; bi orduko zortzi saio izango dira astelehenetik eguenera, 18:30etik 20:30era. Argibideak Jardunen, kultura etxean, edo 943 76 08 19 zenbakian.

ARRILLAGA ETA LARRAÑAGA NAHIKARIN

Anton Arrillagak eta Jose Mari Larrañagak margo erakusketak jarri dute ikusgai Barrenkaleko Nahikari tabernan. Olioak, tenpera teknikaekin egindako koadroak, lumatxo egindako lanak... Guztira, formato txiki eta ertaineko 16 lan zintzilikatu dituzte, hilaren 31ra arte.

ORTU EKOLOGIKOAREN GAINEKO IKASTAROA

Udaleko kultura zerbitzuaren eskutik, ortu ekologikoaren gaineko oinarriko ikastaroa izango da San Juan auzoko elkartearen, otsailaren 7an, 9an, 13an eta 14an, 17:00etatik 21:00etara bitartean. Biolurreko kideek emango dute ikastaroa. Argibideak kultura etxean, Errotalde jauregian, edota 943 77 91 58 telefonoan.

YOGA ETA ZERAMIKA ESKOLAK

Shamadi Yoga Elkartearen nidra-yoga erakusten hasiko dira laster. Argibideak 629 23 57 53 telefonoan. Xanti Arrietak, berriz, zeramika eskolak ematen ditu aste barruan eta zapatuetan. Gaztetxoendako eta helduendako taldeak. Argibideak: 656 77 85 91 (Xanti).

ARATUSTEETAKO BAZKARIA SAN JOXEPEN

San Joxepe elkarteak Aratusteetako martitzenerako bazkaria iragarri du. Otsailaren 21ean izango da. Izenematea erretiratuen egoitzan egin daiteke.

Gaztetxoan urteko lehen mendi irteera

Urteko lehen mendi irteera egin zuten Pol-Poleko kideek eta eskoletako ikasle zein gurasoek. Asentzio eta Intxortako magalean barrena ibili ziren aurreko domekan. Intxortako lubakiak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten Iraitz Lazkano elgetarraren eskutik. 130 lagun joan ziren Bergaratik.





Opilen bedeinkaketa egingo dute egubakoitzean. | GOIENA

San Blas opilen bedeinkapena egubakoitzean Buruñao auzoan

Egubakoitzetik domekara hainbat ospakizun prestatu dituzte auzotarrek

EDU MENDIBIL | BERGARA

San Blas jaiak ospatuko dituzte Buruñao auzoan aste bukaeran. Egubakoitzean, San Blas egunean, aspaldiko ohiturari jarraituz, opilen bedeinkapena egingo dute 11:00etako meza nagusian. Herri-tar mordo bat hurbiltzen da egun horretan Buruñaoa, opilak, ogiak, gozokiak eta bestelakoak bedeinkatzera. Mezaren ostean salda eta txorizoa hartzeko aukera izango da auzoko elkartean. Ermita egun guztian irekita izango dela adierazi dute auzoko orde-

kariek. Arratsalderako, 20:30erako, auzotarrendako afaria iragarrita dago eta ondoren erromeria izango da. Bergarako trikitilariak jardungo dute, goizeko ordu txikiak arte.

Mus txapelketa zapatuan

Zapatuan, otsailaren 4an, mus txapelketa izango da elkartean, 16:00etan hasita. Tradizio handiko txapelketa: 24. ekitaldia izango da aurtengoa. Bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko du parte hartzearen eta irabazleek

garaikurra eta 120 euro jasoko dute. Lau bikote onenendako egongo dira sariak: bigarrena, 80 eurokoa; hirugarrena 50 eurokoa; eta, azkenik, laugarren geratzen den bikotearendako sari berezia. Azkenik, San Blas Txiki eguna ospatuko dute domekan. Meza izango da 11:00etan (aurretik ermitako ermandadako kideen bilera egingo dute), salda eta txorizoa banatuko dituzte jarraian ermitan eta bukatzeko dantzari eta trikitilarien saioa eta umeendako kukañak.



Erakusketa osoko bilkuren aretoan jarri dute ikusgai. | E.M.

Kontsumo arduratsuaren gaineko erakusketa zabalik

'Hondakin gutxiago, ongizate gehiago' erakusketa osoko bilkuren aretoan ikusgai dago, domekara arte

E.M. | BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak hondakinen sorreraren prebentzioari buruzko erakusketa ibiltaria antolatu du. Bergaran otsailaren 5era egingo du geldialdia.

Hondakin gutxiago, ongizate gehiago izenburupean, erakusketa zazpi ataletan banatuta dago eta horietako bakoitzean prebentzioaren eta berrerabilpenaren alderdi bat lantzen da.

Kontsumo arduratsua

Esandako moduan, urtarrila eta apirila bitartean Debagoieneko herri guztietan egongo da ikusgai eta publiko ororentzat ikusgai baldin badago ere, DBHko ikasleei zuzendutako bisita gidatuak antolatuko dituzte kontsumo arduratsuen inguruko kanpainaren barruan. Beraz, Bergarako ikastetxeetako ikasleak udaletxeko erakusketatik pasako dira egunotan.

Bisita gidatua etzi

Era berean, publiko orokorrari zuzendutako bisita gidatuak egingo dituzte Bergaran eta etzi, otsailaren 1ean, izango da azkena 19:00etan, hasita. Ez da apuntatzeko beharrik izango, nahikoa da udaletxeko osoko bilkuren aretora agindutako orduan joatea.

Esan bezala, erakusketa domekara arte, otsailaren 5era arte, izango da zabalik. Astelehenetik egubakoitzera arratsaldez zabalduko dute, 18:00etatik 20:30era; zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.

Zabalotegi berriro ere zabalik bihartik aurrera, martitzena

E.M. | BERGARA

Mariaren Lagundiko *eraikin berria* botatzeko lanek aurrera segitzen dute. Dagoeneko azken zatira, Zabalotegi 14ko etxeekin bat egiten duen eraikinaren zatira iritsi dira Demoliciones Ryde enpresako langileak.

Lanak uste baino gehiago luzatu dira. Hain zuzen, eraikinaren ondoan etxeak egoteak segurtasun neurri bereziak hartzea eta lanak luzatzea ekarri du. Gabonen ostean amaitzekoak ziren eraiste lanak, baina oraindik astebete pasatxo beharko dute. Halaxe adierazi digute arduradunek. Ondoren, pilatutako material guztia atera beharko dute gero. Hala ere, bihartik, martitzenetik, zabalik izango da

Zabalotegi ibilgailuendako. Gabonen aurretik kalea itxita egon da eta ordu jakin batzuetan bakarrik zabaldu dute. Dena dela, lanak amaitu bitartean errei edo bide bakarra zabalduko dute eta semaforo bidez zuzenduko dute zirkulazioa.

Lan ikusgarriak

Erregetxo plazako eraikina botatzeko lanak abenduaren 19an hasi ziren, eta ikusmin handia piztu dute herritarren artean. Eraikinaren lekuan etxeak egingo dituzte. Dagoeneko jende askok agertu du etxe berriekiko interesa. Ortubarrek eta Jabier Arregiren Lotzen enpresak egingo dituzte etxeok.



Lanak uste baino gehiago luzatu dira. | JULIO CALLEJA

Olentzerorekin ikastetxeak elkarrekin: hobetu beharrekoak

E.M. | BERGARA

Bergarako ikastetxeetako ordezkariak eta Udaleko ordezkariak bilera egin zuten eguaztenean. Besteak beste, Gabonetako Olentzeroren esperientziaren balorazioa izan zuten mahai gainean. Jakingo duzueenez, aurtan, lehen aldiz, ikastetxeak elkarrekin aritu ziren kantuan abenduaren 24an. Eguazteneko bileran, San Martin Agirre herri eskolako guraso elkarteko ordezkariak, Aranzadi ikastolako Ane Barruso zuzendaria eta guraso elkarteko ordezkariak, Mariaren Lagundia ikastolako guraso elkarteko ordezkariak, Leire Iruin Udaleko kultura zinegotzia

eta Nagore Narbaiza hezkuntza teknikaria izan ziren.

Balorazio positiboa

Ikastetxeak elkarrekin irteari buruz balorazio positiboa egin zuten. Edozelan ere, lehenengo aldia zen eta antolaketa aldetik hainbat huts antzeman zituzten, hurrengo baten konpondu beharrekoak. Hiru ikastetxeek jende kopuru izugarria mugitzen dute abenduaren 24ko goiz horretan, eta antolatzaileak ez ziren gauza izan. Aendura begira, formula berriak aztertzeko geratu ziren. San Martin jaien ostean antolaketa lanari ekingo diote la aurreratu dute.



Hiru ikastetxeak elkarrekin aritu ziren kantuan abenduaren 24an. | GOIENA

EAJk bosgarren edukiontzia jartzeko hartutako erabakia bertan behera utz dezake Bilduk

Aurrerago, 2011ko martxoan hartutako erabakiaren gaineko azken erabakia hartuko du

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñati Zero Zabor eta Oñatiko AHT-ren kontrako taldeek Gipuzkoan azpiegitura-lan handiak geldiaraztearen aldeko mozioa aurkeztu zuten hilaren 26an egindako osokoan.

Hamar puntu zituen, eta bederatzigarrenak erreferentzia egiten zion 2011ko martxoaren 31ko osokoan materia organikoaren bilketaren inguruan EAJk hartutako erabakiari. Bertan behera uztea eskatzen zen mozioan. Bilduren aldeko botoekin mozioa onartu zen, baina alkateak esan zuen, batzordean aztertu ondoren, aurrerago planteatuko dutela edukiontzi marroien erabakia bertan behera uztea.

Galdeketa egitea eskatu dute

EAJk esan zuen osokoan hartutako erabaki bat bertan behera utzi aurretik "erabakia aztertu, proposatu eta galdetu" egin behar litzatekeela, eta "ez agindu". Alkateak erantzun zien bosgarren



Ika-mika handiak egon ziren urtarrileko osokoan. | MIREIA BIKUÑA

edukiontzia aldeko erabakia hartu zutenean ere "EAJk ez" zuela galdeketa egin.

EAJk kontra bozkatu zuen: "Behin eta berriz ezetza planteatzen duen mozioa delako ez gatzoz bat mozioarekin. Planteatzen

duen alternatiba bakarra hausnarketa da. Guk diogu herrialde honek aspaldi hausnartu zuela. Gainera dugun kokapen geografikoarengatik bide azkarren beharra dugula uste dugu", esan zuen Lourdes Idoiakak.

Bilketa selektiboaren aldekoak

Edukiontzi marroia jartzeko erabakia bertan behera uzteko erabaki hartzen badute, Oñatik bide berria hasiko du materia organikoaren bilketan. "Guk bilketa selektiboaren alde egiten dugu, eta une honetan dagoen sistema onena atez atekoa da", esan zuen alkateak. Bilketa selektiboaren gaineko formazio kanpaina abiarazi dute. "Aurreko astean Antzuolan egon ginen formazioa jasotzen, EAJko ordezkariekin batera. Aurrerantzean beste bi saio izango ditugu. Ondoren hasiko gara herritarrei informazioa banatzen", esan zuen alkateak.

Hamar puntu

Mozioak hamar puntu ditu. AHT-ren, Zubietako erraustegiaren eta espexarearen, Pasaiaiko portuaren eta A8 autopistaren bigarren gerrikoa luzatzearen kontrako adierazpenak zituen. Bestalde, eskatzen zuen azpiegitura-lan handien kontrako eztabaida ekimenak "sustatzea" eta otsailaren 4ko manifestazioaren "bat egitea".

ESANAK

"Bilketa selektiboaren aldekoak garelako erakutsi dugu"

MIKEL BIAIN | ALKATEA

"Behin eta berriz ezetza planteatzen duen mozioa da"

LOURDES IDOIAKA | EAJ-KO ZINEGOTZIA

Pankartaren gaineko iritzia

Mozioa bozkatu zutenean, PNV txikitzaile zioen pankarta erakutsi zuten aretoan zeudenek. "Minduta gaude. Pankarta erasotzailea da, eta alkateak ez du ezer egin hori kentzeko. Aurreko agintaldian PPKo zinegotziak ANVko ordezkariak iraindu dituen bakoitzean, defendatu egin ditut", esan digu Idoiakak. Mikel Biain alkateari gai horren gainean galdetu eta hauxe esan digu: "Adierazpen askatasunaren barruan sartzen dugu. Pankarta ipintzen duena gustuko izan edo ez".

Oñatira joandako turista kopurua %10 hazi zen iaz

17.481 bisitari egon ziren herriko monumentuak ikusten; gehienak katalanak izan ziren

M.B. | OÑATI

Turismo Bulegoak 2011ko datuak eman ditu, eta "positiboki" baloratu ditu: 17.481 pertsona pasa ziren iaz Turismo Bulegotik, 2010ean baino %10 gehiago. "Jakina da ez dela garairik onena turismoa egiteko. Krisiak turismoa egiteko ohiturak aldatu egin ditu eta gora-behera handiak daude urtetik urtera. Dena den, Oñatiko turismoak gora egin du, eta gu oso pozik gaude", esan digu Turismo Bulegoko langile Edurne Urteagak.

Turismo Bulegoak emandako datuen arabera, honela banatzen da turista kopurua jatorriaren arabera: oñatiarrak 1.637, EAEkoak 4.906, Espainiar Estatukoak 9.345 eta atzeritarrak 1.593.

Andaluziarrak gehiago

Espainiako Estatuko turistek dagokienez, beste urte batez katalanak izan ziren nagusi; bigarren madrildarrak eta hirugarren valentziarrak. Turismo Bulegoan "azpimarratu" dute Andaluziatik etorritako turistek kopurua: "Hazkunde nabarmena izan zuen iaz".

Euskaldunen artean bizkaitarrak izan ziren nagusi (%50), gipuzkoarrak %38 eta arabarrak %12. Atzeritarrei dagokienez, frantziarrak, italiarrak eta latinoamerikarrak aipatu behar dira.

Turismo Bulegoak emandako azken datua bisita gidatuei dagokio: 2011n 9.305 lagunek hartu zuten parte bisitetan.



Turista taldea Arrikruzteko kobalara sartzeko gertu. | GOIENA

goienagida 2012

OÑATI

GUARDIAKO FARMAZIEN EGUTEGI ZUZENA

MOZTU ETA GIDAN ITSATSU

| HILAB. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |
|-----------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
| URTARRILA | 3 | 2 | 2 | 3 | 3 | 1 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 |
| OTSAILA | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | X | X |
| MARTXOA | 3 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | |
| APIRILA | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | X | |
| MAIATZA | 4 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | |
| EKAINA | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | X | |
| UZTAILA | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 4 | 1 | 4 | 1 | 4 | 4 | 4 | 1 | 4 | 1 | 4 | 1 | 1 | 1 | 4 | |
| ABUZTUA | 4 | 1 | 4 | 4 | 4 | 1 | 4 | 1 | 4 | 1 | 1 | 1 | 1 | 4 | 4 | 2 | 3 | 3 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 2 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | |
| IRAILA | 3 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 2 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 3 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 1 | 1 | X | |
| URRIA | 1 | 4 | 1 | 1 | 1 | 4 | 4 | 4 | 3 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 2 | 1 | 1 | 1 | 2 | 3 | |
| AZAROA | 1 | 4 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 | X | |
| ABENDUA | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 4 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | |

Gaueko guardiak Arrasateko farmazietan izango dira.

- 1. ANDUAGA San Lorenzo 3. Tel.: 943 78 21 16
- 2. AMAIA IGARTUA Kale zaharra 1. Tel.: 943 78 01 22
- 3. GARATE Kale barria 42. Tel.: 943 78 05 58
- 4. JULDAIN Kale barria 6. Tel.: 943 78 11 28



Interneten PDF formatuan eskuragarri, deskargatu! www.goiena.net/gida



Informazio orokorra: www.cofgipuzkoa.com

ARETXABALETA

Bihar zabalduko dute Basotxo erretiratuen elkarteko taberna

Txukunberri enpresak utzi egin du, eta hango langile bik hartu dute ardura

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabalekako Basotxo erretiratuen elkarteko taberna itxita dago bihar, martitzena, bitartean, taberna kudeatzen zuten Txukunberri enpresak utzi egin duelako. Udaletik jakinarazi digutenez bi herritarren ardurapean geratuko da erretiratuen topaleku den taberna hori.

2010eko martxoan sinatu zuten Udalak hitzarmena Txukunberri enpresarekin hiru urterako, baina orain utzi egin du haren kudeaketa. Udalak lehiaketa deialdia egiten duen bitartean, enpresa horrendako lan egiten zuten langile bik hartuko dute orain tabernaren ardura. Aurreikuspenen arabera, maiatz inguruan izango da hori.

2010. urteko udaberrian sinatu zuten Durangoko Txukunberri



Txukunberriko langile ohi bik hartu dute taberna. | MIRARI ALTUBE

Osoko Zerbitzuak enpresarekin hitzarmena, taberna kudeatzeko eta suspertzeko. Esan bezala, hiru urterako sinatu zuten, eta

beste urtebetez luzatzeko aukera aurreikusten zuten kontratuak. Horrekin batera, erretiratuen tabernan lan egingo zuten langi-

leen ardura hartu zuten enpresa bizkaitarrak, eta horretarako formazio ikastaroak eman zizkieten taberna indartzeko.

"Guztien onerako"

Hitzarmena sinatu ostean, pozik azaldu ziren garai hartako udal agintariak. Guztien onerako izango zela nabarmendu gura izan zuten orduan. Izan ere, 1992an eman zuten taberna errentan urtebeterako, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin, eta ordutik berrikusi barik zeukan orduan hitzartutakoa. Hala bada, langilean lan egoerak nabarmen egingo zutela hobera uste zuten. Basotxo elkartean ere gustura hartu zuten hitzarmena, tabernaren jarduna hobetzeak jende gehiago erakarriko zuela uste zuten-eta.

Eskoriatzan ere Txukunberri

Azkenaldian, Txukunberri enpresak bi tabernetako kudeaketa utzi du: Aretxabalekakoaz gain, udazkenean Eskoriatzako Udalarekin Olazar erretiratuen elkarteko taberna kudeatzeko hitzarmena bertan behera utzi zuten.

ESKORIATZA

Gaur hasiko dira San Pedro auzoa berritzeko lanak

Udalak dio ura moztean abisatuko duela eta garajeak erabiltzeko deia egin du

M.B. | ESKORIATZA

Hastera doaz Eskoriatzako San Pedro auzoko 1 zenbakidun eskape paretik 9. eskaperantz doazen obrak. Gaur, astelehena, hasiko dituzte, auzoaren behe aldeko eskuma aldean. Udaletik azaldu dute lanok dirauten bitartean bidearen zati bat moztuta egongo dela, eta orain arte aparkalekuek erabili izan den gunea

ibilgailuak pasatzeko erabiliko dela, kale amaierako aparkalekura iristeko bide bezala. Obra horiekin amaitzean, bidearen beste erdikoekin eta eskapeen aldeko espaloiekin hasiko dira langileak.

Herriko langabetuekin

Oloquiegi enpresa arduratuko da lan horiek egiteaz, eta obra

esleitzeko egindako baldintza agirian jasotzen den moduan, Eskoriatzako langabetuak hartuko dituzte horretarako.

Obrek lau hilabete inguru iraungo dute. Udaletik aipatu dute zenbait eragozpen sortuko dituztela. Zenbaitetan ur hornidura sarea moztu beharko dela iragarri dute; dena dela, horrelakoetan aurrez abisatuko dute-

la gaineratu dute. Horrekin batera, azaldu dute saiatuko direla eskapeetako zein lokaletarako pasoa errespetatzen behin behinero pasabideak eginez.

San Pedro eta Intxaurtxuetan

Ez da eragozpen bakarra izango. Obrak direla-eta, kalean dauden aparkalekuaren kopurua gutxitu egingo da. Hori horrela, Udalak San Pedron eta Intxaurtxuetan garajea dutenei, ahal den neurrian, horiek erabiltzeko eta kaleko aparkalekuak libre uzteko deia egin die.



ESKORIATZA

ESKORIATZA

Udal gobernuaren arabera, PSE-EE "demagogia politikoa" egiten dabil

Aurrekontuari dagokionez, Jose Luis Canterok esandakoa kritikatu eta hainbat datu argitu ditu

M.B. | ESKORIATZA

Aurrekontuen harira, PSE-EE taldeko zinegotzi Jose Luis Canterok esandakoari erantzun gura izan dio udal gobernuak. Besteak beste, Canterok honakoa esan zuen: "Ez da Eskoriatzak behar duen aurrekontua, izaera antisoziala, ez solidarioa eta aurreikusituz ezin daitekeena duelako. Udaleko diru-kutxa zalantzan jartzen du. Horrez gainera, udalerriko ekonomia eta enplegua sustatzeko ekintzarik ez da aurreikusten. Bestalde, gizarte arloko partidak murrizten dituen bitartean, alkateak eta alkateordeak euren soldata %7,5etik gora igotzen dira. Lotsagarria da".

Udal gobernuaren esanetan aurrekontuak antisozialak, ez solidarioak eta aurreikusituz ezin direla esatea "demagogia politikoa" egitea da. Haren arabera, "ezja-

kintasunaren" adierazgarri dira, eta "alarmismoa" besterik ez dute sortzen herrian.

Aipatu du aurrekontuak gobernu taldeak egiten dituela, eta ez bakarrik Bilduko ordezkariak; eta lehenengo alkateordeak [Aranza Iregik] ez duela euro bakar bat bera ere jasotzen udaleko diru-kutxatik. Salbuespena alkatea eta [Leire Urtzelai] zinegotzia direla, eta bien liberazioa lan-jardun bakar osatzen dutela. Liberatuen soldata igo dela ere gezurtatu du; horren harira, onartu du partida hori handiago dela alkatearen ordainsaria aurreko lanean zuenaren parekoa izan dadin.

Ongizate arloan murrizketak egon direnik ere gezurtatu du. Aurrekontuak egiterakoan aurreikuspenak aurreko urteetan benetan izandako gastuari egokitzeko lana egin dela gogorarazi du.

ESKORIATZA

Erretiratuak Arnedilloko bainuetxera doaz otsailean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Olazar erretiratuen elkarteak bidaia antolatuko du otsailaren 13tik 17ra bitartean; hain justu ere, Arnedilloko (Errioxa) bainuetxera joango dira. Interesatuak gaur arte dute izena emateko aukera elkartearen egoitzan, 11:00etatik 12:30era.

Lau eguneko egonaldi horren prezioa 340 euro da. Horren barruan sartuta dago bidaia osorako logela bikoitza eta eguneko otordu guztiak eta baita tratamendu termal ere: besteak beste, erromatar terma, lokatzarekin egindako hainbat tratamendu, bainu termala, presiozko ur-zorro-tadak, dutxa zirkularra eta inhalazioak. Horretaz gainera, igerilekuekarako eta gimnasiorako sarrera ere librea izango da.

ARETXABALETA

Aurrekontuaz jardungo dute asteen Udalean

M.B. | ARETXABALETA

Eguenean ez ohiko osoko bilkura dago, 18:00ean; aurrekontuen gainean egingo dute berba horretan. Horrez gain, gaur ohiko osoko bilkura dago ordu berean. Horra hor hainbat gai: Udalaren hizkuntza politika, Finantziario Fondo Funtzaren Likidazioari, atez ateko zaborra batzeko sistema eta lapurtutako jai berrien auziari buruz PSE-EE taldeak aurkeztutako mozioak eta zabor biltzaren gainean EAJ-k aurkeztutakoa.

ESKORIATZA

Ingeniarirako onartuen zerrenda ikusgai

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak Obra Publikoetako Ingeniari Teknikoa (OPIT) kontratatuzko deialdia egin du eta aurkeztutako artean onartutako eta baztertutako behin behineko zerrenda onartu du. Horren gaineko iragarria urtarrilaren 24an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta orain jendaurrean dago; Eskoriatzako Udalaren (www.eskoriatza.net) webgunean kontsultatu daiteke. Interesatuak otsailaren 4ra arte dute erreklamazioak aurkezteko aukera.

Bigarren batzarra bihar, 19:30ean

Bihar, martitzena, egingo dute Eskoriatzako udal gobernuak gertatutako kudeaketa plana eta aurrekontuari buruzko bigarren eta azken bilera. Ibarraundi museoa izango da, 19:30ean. Goiko irudian, egunean eskainitako batzarra azaltzen da; Beñat Hercek Eskohitza prozesuaren bidez emandako urratsak azaldu zituen.



Herri eskolako ikasle eta irakasle taldea iaz, Santa Ageda egunean koplak abesten. | L.Z.

ELGETA

Santa Ageda bezpera aurten zapatua izanik herri mailan ospatuko da Elgetan

Herri eskolan San Blas eguna egingo dute barikuan; eta Arantzeta auzotik, berriz, domekarako iragarri dituzte San Blas eguneko ospakizunak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bata bestearen atzetik hemen dira Kandelaria eguna —otsailak 2—, San Blas ospakizunak —otsailak 3—, eta Santa Ageda bezpera —otsailak 4—.

Egutegia tarteko Elgetan aurten zenbait aldaketa egongo dira ospakizun horien bueltan, gehien bat Santa Ageda bezpera egunean. Herri eskolako haurrek betiko moduan ospatuko dute San Blas eguna, baina otsailaren 4a aurten zapatua izanik ez dira irakasleekin batera kalez kale koplak abestera irtengo. Herri mailan ospatuko da aurten Santa Ageda bezpera; koplak abestuko dira baldin eta talderik osatzen bada.

San Blas opila eskolan

San Blas eguna urtero moduan ospatuko dute Herri eskolako

neska-mutikoek. Lehen Hezkuntzako ikasleek errodillua, amantala eta zapia eraman beharko dituzte eskolara bariku goizean eta gozogle lanetan ariko dira goizean goizetik.

Sei urtetik gorako umeek bina opila egin beharko dituzte; bata norberarendako, eta bestea Haur Hezkuntzako ume bati emateko. Txikiak ez dira sukalde lanetan ariko, baina prozesua ikustera eramango dituzte, eta eskolako nagusienek eginda opila bana eramango dute etxera.

San Blas, Arantzeta auzoan

Arantzeta auzoko San Blas ermitan, berriz, otsailaren 5ean egingo dituzte San Blas eguneko ospakizunak. Zezia baserriak du aurten ermitako giltza, eta eurei tokatzen zaie San Blas eguneko ospakizunak antolatzea. Salda

eta txorizoa banatuko dituzte 10:00etatik 14:00etara. Elgetako parrokoak meza ere esango du; 13:00etan izango da.

Plenoa martitzenean

San Blas eta Santa Ageda ospakizunak iritsi aurretik baina urtarrileko osoko bilkura egingo du Elgetako udalbatzak. Plenoa biharko deitu dute, eta 19:00etan hasiko da. Gai zerrendan aurkitzen da Domingo Iturbe guneko bigarren faseko lanak esleitzea. Bigarren fase horretan aurreikusten da patronatuaren eraikina partzialki botatzea. Hortaz, biharko plenoan lanak nork egingo dituen onartuko du udalbatzak. Behin erabakia hartuta lanak berehala hastea da udal ordezkarien nahia. Hala, laster ikusi beharko genituzke martxan eraikina botatzeko lanak.

LEINTZ GATZAGA

Inauterietako ekitaldiak gertatzen hasi da Udala herritarrekin batera

Hainbat aldaketa izango direla aurreratu dute, baina oraindik guztiz zehaztu barik dituzte

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Otsailaren 18an ospatuko dira aurten Inauteriak, eta Udala dagoeneko hasi da antolatze lanetan. Horretarako herritarren eta Gurel guraso elkartearen laguntza eskatu du beste batzuetan legez, eta joan den astean elkartu ziren proposamenak jaso eta lanak elkarren artean banatzeko.

Azken urteotan arratsaldean ospatu izan dute mozorroren festa eta afaria egin gero. Aurten, baina, ospakizun ekitaldiak egunez egiteko asmotan daude, "hala, umeek ere gehiago goza dezaten". Hori horrela, afaria beharrean herri bazkaria antolatzekotan geratu dira, "baina oraindik guztiz zehazteko dago", argitu dute

Gureleko kideek. Horrez gain jolasak eta musika ere izango dira egun horretan eta "ezustekoren bat ere bai, baina oraindik ez dugu iragarri gura", diote.

Santa Ageda kantuan zapatuan

Inauteriak baino lehen Santa Ageda eguna dator, eta herriko umeak entseguetan dabilta ludotekan, santuaren koplak ondo baino hobeto abesteko gero. Hala, otsailaren 4an, zapatua, (18:00) kantuan ibiliko dira kaleetan zehar, eta Gureleko kideek jakinarazi dute edonork parte har dezakeela ekitaldian. Bukatutakoan merienda izango dute Toki Eder elkartearen.

ARAMAIO

Herritarrei dei zabala Santa Ageda bezperan kantuan irten daitezten

Bizente Goikoetxea abesbatzak entsegua deitu du eguaztenean pleno aretoan, 20:30ean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Bizente Goikoetxea abesbatzako kideek, Udalaren laguntzaz, deialdi berezia egin dute aurten Santa Ageda bezperari begira. Otsailaren 4ko tradizioa mantendu gura dute eta korotik haratago, herritar guztiei dei egin diete zapatuarekin bat egin dezaten. Kortabarriak dioenez, abesbatza zahartzen ari da eta tradizioa mantendu gura dute: "Inguruko herrietan badago ohitura egun horretan kantuan irteteko eta guk ere ohitura hori Aramaion ere mantentzea gura dugu", dio. Datorren urtean bertso eskolakoek ere parte hartuko dutela jakinarazi du Bizente Goikoetxea abesbatzako

presidentek. Izan ere, bertso eskolakoek zapatu honetan saioa izango dute Marixeka elkartearen (20:30), Arabako koadrila arteko bertso txapelketaren barruan.

Zapatuan eta egun osoz

Santa Ageda bezpera ospatzeko orain arte arratsaldean izan dira kantuan, baina aurten zapatua da eta egun osoz egitaraua prestatu dute. Goizean zehar auzoetako baserrietan arituko dira: 10:00etan geratu dira plazan eta, bestek beste, Matxain kale, Eguzkierripa, Arraga, Errotabarri eta Zalgo inguruan arituko dira eztarriak berotzen. Bazkalostean Ibarra auzoan egingo dute kantuan.



Bizente Goikoetxea abesbatzako kideak iaz egindako entsegu baten. | J.B.

ANTZUOLA

Martxoaren 8rako kartel lehiaketa deitu dute

Bidebarri mankomunitateak deitu du Leintz Gatzagarako, Elgetarako eta Antzuolarako

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Bidebarri mankomunitateak bigarren antolatuko du Martxoaren 8rako kartela aukeratzeko lehiaketa. Otsailaren 21era arte aurkez daitezke lanak, udaletxean, 15:00ak arte. Mankomunitateko herritarrek har dezakete parte lehiaketan.

Ezaugarriak

Kartelaren diseinua sortzeaz gain, leloa ere egileak egin behar du. Asmatutako testua kartelaren diseinua bezain garrantzitsua izango da.

Gainera, kartelak *Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko eguna 2012* errotulua eta Bidebarri mankomunitatearen logotipoa eraman beharko ditu. Bigarren antolatuko du Bidebarri man-

komunitateak Martxoaren 8ko kartelen lehiaketa. Martxoan erakusketa egingo dute jasotako lanekin.

Aratusteetako entseguak

Bestalde, bihar, hilak 31, egingo dute Aratusteetako dantzen lehen entsegua. Aratusteak bitartean, martitzenero izango dira entseguak, Torresoroan, 20:15ean. Batetik, sorgin-dantza egingo da; eta bestetik, herritar talde batek iaz egin ziren dantza berak egingo ditu: *Pxit*, *Barañain* eta *Ryam polka's* (txapeloa).

Oso dantza errazak direla azaldu dute antolatzaileek. Hala, dantzarako gogoia dutenek, neska zein mutil, parte-hartzera animatu nahi ditu Oinarin dantza taldeak. Aurten otsailaren 19an, domekan, ospatuko dira Antzuolan Aratusteak.



guk, elkar hezi

URTARRILAK 28, ZAPATUA
ATE IREKIAK

L.H.ko
eraikinean,

12:00etatik 14:00ak arte

11:00etan



sukaldean elkarrekin

11:00etan



musikoterapia tailerra



eta ondoren...luntxa



L.H.ko
eraikinean
17:00etan

magia tailerra
otsailak 2, eguena



L.H.ko
eraikinean
18:30-20:00

erlaxazio teknikak familian
otsailak 7, martitzena

ikastaroetan izena emateko:

idazkaritza@elkarhezi.com haurtzaindegia: 943718272



KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergara garaile justua izan zen, ohi baino derbi irekiagoan

Etxekoendako izan ziren jokoaren inizatiba eta aukera garbienak, baina Aretxabaletak Agorrosindik zerbait gehiago ateratzeko aukera izan zuen

EMAITZA

BERGARA

3-1

ARETXABALETA

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Mardaras, Urrutia, Arruti, Nafarrate, Arazkonaga, Crespo (Elorriaga 76. min.), Diaz (Valerio 72. min.), Oregi, Macho (Beitia 57. min.), Baltzategi (Retes 87. min.), Cabanillas (Fernandez 81. min.).

Aretxabaleta: Agirregabiria, Gorosabel, Etxabe (Arrizabalaga 70. min.), Azkarraga, Mar, Eraña, Sanchez (Eriz 82. min.), Orueta (Igartua 51. min.), Apraiz, Perez (Badillo 78. min.), Canas (Hernandez 51. min.).

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA
Borroka izan ohi da nagusi derbietan, eta joko txikia zein aukera gutxi. Zapatuan Bergarak eta UDAn Agorrosinen jokatu zutena salbuespena izan zen. Izan ere,

joko polita –etenaldi gutxi– eta aukera izan ziren. Hau da, derbia zela eta, Agorrosingo zelaiaren egoera ikusita, espero baino joko gehiago izan zuen lehiak, eta aukerak izan ziren bi ateetan. Aukera garbienak, baina, etxeko taldearendako izan ziren.

Sailkapenari begiratuz gero, UDA izan beharko litzateke fabroritua baina beste behin ere argi geratu zen derbien aurrean estatistikek ezer gutxirako balio dutela. Izan ere, Nicasio Galan *Neka*-ren mutilek merezimenduz hartu zuten mendean Aretxabaletako taldea.

Bergara hobeto hasieratik

Hobeto irten zen Bergara. UDA baino hobeto jarrita eta presioa oso aurrean eginez. Hala, 20. minutuan Imanol Cabanillas kapitainak jarri zuen 1-0koa markagailuan, erdilari baten pase sakona ondo baino hobeto aprobetxatuz. Handik oso gutxira Iker Agirregabiria UDAn atezainari ihes egin zion printzipioz inongo arriskurik ez zuen baloiak eta penaltia egin zion Iñigo Macho aurrelari bergararrari. Hala ere, Jokin Baltzategik gora bidali zuen baloia. Hortik gutxira hasi zen Aretxabaleta zelaiaren lekua hartzen eta

pixkanaka hasi ziren Iñaki Mardarasen atera hurbiltzen. Hala, 36. minutuan berdinketa lortzeko aukera izan zuten kanpokoek, epaileak penalti zalantzarri bat adierazi ostean, baina Aitor Perezek langara bidali zuen baloia. Eta atsedenaldirako lau minutu

Hiru penalti eta hiruretan kale

Ez da ohikoa partidu berean hiru penalti ikustea. Eta are ezohikoagoa da, oraindik, penalti jaurtiketa guztietan kale egitea. Hori gertatu zen Agorrosinen. Bergarak Jokin Baltzategi eta Andoni Nafarrate eta UDAn Aitor Perez ez ziren fin ibili hamaika metroetatik. Baltzategik eta Perezek 1-0koarekin egin zuten kale eta beraz, bestelakoa izan zitekeen lehiaren bilakaera. Iker Agirregabiria UDAn atezaina egotzi zuen epaileak, penalti bakoitzean txartel hori bana atera ostean; ez zuen eguna izan.

eskas falta zirenean, zapatuan atzelari moduan aritu zen Gilen Marek goitik zetorren baloi bat ez zuen ondo kalkulatu; han zegoen Iñigo Macho, beti bezain adi, Agirregabiriaren hanka artetik baloia sarera bidaltzeko. Atsedenaldira heldu aurretik David Canasek 2-1koa egiteko aukera izan zuen baina gutxiagatik bidali zuen baloia kanpora.

Bergara, atzean sartu barik

Bigarren zatia ezin izan zen okerrago hasi UDarendako. Izan ere, 50. minutuan Aitor Oregik 3-0koa egin zuen. Orduan lasaitu egin ziren mahoneroak eta ia berehala Oxel Apraiz aurrelari beteranoak 3-1koa jarri zuen markagailuan. Urteak aurrera egin arren argi dago Arrasateko aurrelari beteranoak ez duela gol sena galdu. Berdinketa lortzeko asmoz, Juanan Cruz UDAn entrenatzaileak hiru aurrelari jarri zituen baina bergararrek ondo eutsi zioten kanpokoan saiakerei.

Beste askok lerroak atzeratu ziotuztenean, *Neka*-k atzean ez sartzeko agindua eman zuen eta horregatik UDAn ez zuen larregi estutu. Are gehiago, oraindik ere etxekoek arriskua sortu zuten Agirregabiriaren atean, beti ere



Jokin Baltzategi baloiarekin, Julen Erañaren ondo

erasoko joko Jokin Baltzategiren oinarrituz. Etxekoen onena izan zen Baltzategi. Lehiako azken txanpan, 82. minutuan, partiduko hirugarren penaltia adierazi zuen Mikel Sarasua epaileak, bergararren alde. Baina Andoni Nafarratek kanpora bidali zuen baloia. Zapatuko garaipena garrantzitsua izan zen etxekoendako, maila mantendu ahal izateko 40 puntuak lortzeko. UDarendako, berriz, atzerapauso galanta izan zen porrota sailkapeneko goiko postuei begira.



EMAKUMEZKOEN IGOERA

Merezimendu osoz eta larregi sufritu barik irabazi zuen Arizmendik

Ane Vicenteren bi golen ostean, ia deskontuan heldu zen kanpokoan gola (2-1)

J.B. | ESKORIATZA

Arizmendiko neskek ondo hasi dute igoera fasea. Atzo eguerdian Ibarra futbol zelaiaren Intxaurdiren aurka erdietsitako garaipenaren ostean (2-1) bigarren dira sailkapenean (6), Zarauzko taldearen atzetik (9). Igoera faseko partiduak Ibarra ari dira jokatzeko eta Jone Agirregabiria jokalariren arabera "gusturago" jokatzeko dute Aretxabaletako zelaiaren Almeneko hondarrezko zelaiaren baino.

Igoera faseko bi partidu jokatu ostean, Intxaurdi lider zela heldu zen Aretxabaletara eta

beraz, garaipen baliotsua lortu zuen Aritz Elortzak zuzentzen duen taldeak.

Larregi sufritu barik irabazi zuten eta uneoro kontrolpean izan zuten norgehiagoka. Etxekoen lehen gola 20. minutuan heldu zen, Ane Vicenteren area barruko aldaratze bat ederto aprobetxatu ostean. Lehia 1-0koarekin heldu zen atsedenaldira.

Ane Vicente protagonista

Bigarren zatian ere jaun eta jabe izan ziren Arizmendiko neskek eta zenbait aukera izan ostean

berri ere Vicenteren zulatutako kanpokoan atea. Atezaina maisutasunez driblatu ostean lortu zuen 2-0koa aurrelariak.

Etxekoen bi golak eginda, partiduko protagonista nagusia izan zen Vicente. Markagailuan lasaitasuna lortu ostean atzean sendo jarri eta baloiaren jabetza mantentzen saiatu ziren etxekoak. Hala, partidua amaitzera zihorean Intxaurdik gola egin zuen, baina beranduegi zen Ibaratik zerbait ateratzeko. Hurrengo jardunaldian Arrobi Berri taldearen aurka jokatuko dute.



Maialen Zabaleta baloia kontrolatu nahian, aurkariz inguratuta. | JULIO CALLEJA

ESKUBALOIA | Aloña Mendiko neskak, Euskadiko goi mailara | 25



Partidu borobila egin zuen lehenak; Erañak, berriz, ez zuen egun onena izan. | JULIO CALLEJA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloña Mendik 0-7 irabazita eta Mondrak urrezko puntu bat lortuta bueltatu ziren

Oñatiarrak ez ziren erlaxatu partidua laster erabaki arren; eta arrasatearrak, konforme berdinketarekin

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Partidu latzetik emaitza goxoa ekarri zuen Aloña Mendik, Aurrerari 0-7 irabazi eta gero. Aurkaria sailkapenean behealdean egon arren, oñatiarrek ez zuten inondik inora halako emaitza ikusgarria espero.

Zelaia gaizki zegoen eta "hasieratik, borroka handiko partidua" gorpuztuz joan zen, Aitor Orueta entrenatzailearen esanetan. Hala baten, lehenengo gola egin zuten txantxikuek. Eta segituan, partidua oso baldintzatuko zuen gertaera: Aurrerakoek falta egin,

jokalariak erantzun eta gorria ikusi zuen. 20. minutua zen, eta hurrengo 10 minutuetan, Aloña-koek beste bi gol egin zituzten. Horrela, "partidua hasi eta ordu erdira, erabakita geratu zen", diosku Orueta. Hurrengo golak ere erraz etorri ziren: 44. minutuan, bigarren zatiko 5.ean eta azkeneko bi minutuetan. Publikoa asaldatuta, eta bozgorailutik lasaitasuna exijitu behar izan zuten.

"Aste osoan entrenamenduetan egindakoa praktikara eraman zuten. Oso sentsazio onekin itzuli gara", esan du Orueta.

Buelta eman zioten

Mondrako mutilek banako berdinketa lortu eta puntuarekin konforme bueltatu ziren Trintxerperen zelaitik. Sailkapenean dauden lekuan egonda, urrezko puntua da; are gehiago Trintxerpe ipini zelako aurretik.

Datorren astean, Hondarribia hartuko dute etxean. Partidu hori irabaztea oso garrantzitsua izango litzateke arrasatearrendako, izan ere, lau puntu harengandik azpitik daude. Partidua irabaztea jauzi kualitatibo izango litzateke.

ANDONI NAFARRATE


BERGARAKO ATZELARIA



"Ondo hasi dugu partidua, aurrera egiteko asmoz. Era berean, ondo irten gara kontraerasoan eta horietako bi aprobetxatu ditugu atsedendira 2 eta 0 joateko. Bigarren zatia hasi eta gutxira sartu dugu hirugarrena eta 3-1 egin badigute ere ondo eutsi diogu. Pozik emaitzarekin. Orain ondo dago taldea, ondo ari gara lanean eta erritmoa hartu dugu".

JULEN ERAÑA

ARETXABALETAKO ERDILARIA



"Eurak izan dituzte aukera garbienak eta orokorrean eurak izan dira partiduen jabe. Ohiko derbia izan dela esango nuke; borroka handia eta txartel asko. Eta gainera, hiru penalti. Sailkapenera begira atzerapauso argia izan da porrota. Lehen postuetatik gertu egoteko lanean jarraitu behar dugu; hurrengoa etxean da eta beraz, irabaztekoa".

FUTBOLA

Mondrako neskak garaipenarekin itzuli ziren etxera, Atletico Revellin taldearen aurka 0-4 irabazi ostean

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Domekan Logroñon jokatu zuten partidua Mondrako neskek Atletico Revellin taldearen aurka. Andoni Ezkurra entrenatzailearen hitzetan partidu "gogorra" izan zen, baina garaipenarekin itzuli ziren.

Lehenengo zatia Mondrako neskek dominatu zuten eta ez zuten asko sufritu. Aukera izan zutenean, Melani Concepcion taldekideak lehenengo gola sartu zuen.

Bigarren zatira Atletico Revellin taldeko neskak fisikoki nekaturatsuta iritsi ziren eta orduan etorri ziren beste hiru golak. Bigarrena

Tania Diazek sartu zuen, hurrengo Raquel Morinok, eta azkena, Alaine Roak.

Logroñokoek sei partidu zera-matzaten etxean behin bakarrik galduta, eta horregatik, Mondrako neskek partidu "arriskutsu" bezala ikusten zuten asteburukoa. Hala ere, emaitza ikusita, gustura itzuli ziren etxera.

Hurrengoa, Añorgaren aurka
Sailkapenean goian gelditzea da Mondrako nesken nahia, eta horretarako, datorren astean etxean Añorgaren aurka jokatu duten partiduan ere gogor ibili beharko dira.



JUBENILEN EUSKAL LIGA

JULIO CALLEJA

Ustekabeko porrota etxean

Atsekabetuta geratu ziren aretxabaletarrak Indartsuren aurka 1-4 galdu ondoren. Irabazten hasi arren, zenbait faktore aurka izan zituzten: "Atsedenera 1-1 ailegatu gara, eta bigarren denboran, gure ustez jokoz kanpo zen jokaldi baten bigarrena sartu digute. Gero, jokalaria bat kaleratu digute. Gure aurka epaitu dute", baloratu du Igor Arenatza entrenatzaileak. Orain, helburua, Ibarra gotorleku bihurtzea.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Gustura izerditu ostean irabazi zuen Antzuolak Oriokoren aurka (2-1)

Antzuolak garaipen garrantzitsua lortu zuen zapatuan Ohorezko Erregional mailara igotzeko lehian jarraitzeko. Orioko jaso zuten Eztalan eta kanpokoak penalti bati esker 0-1 aurreratu ostean Juanina Garairen mutilek partiduari buelta ematea lortu zuten. Banakoa kapitainak lortu zuen eta garaipenaren gola, berriz, Josu Zubikaraik.

Azken minutuetan estutu egin zuten kanpokoek baina ez zuten berdinketa lortu.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Aretxabaleta esku hutsik itzuli zen Getariatik (4-0)

Aretxabaletak ezin izan zuten ezer egin sailkapenean bigarren dagoen Getariako Ketauren aurka. Etxekeok hasieratik bukaerara kontrolatu zuten norgehiagoka eta aretxabaletarrak euren zelaitik irten ezin ibili ziren partidu osoan zehar. Futbol zelaiaren egoera eskasak beheko jokoa oztopatu zuen eta beraz, goiko baloiak izan ziren nagusi. Getarian jasotako porrotaren ostean, Aretxabaletako bigarren taldea 13. postuan dago, 18 punturekin.



Erasoan ez ziren fin ibili oñatiarrak, batez ere azken txanpan. | JULIO CALLEJA

EBA LIGA

Bolada txarrak ez du etenik oraingoz Natra Oñatirendako

Partidua parekatua joan zen azken laurdenera arte; orduan, behera egin zuten nabarmen oñatiarrek

| EMAITZA |
|--------------|
| NATRA OÑATI |
| 67-75 |
| EASO |

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Bederatzi partidua geratzen zaizkio Natra Oñatiri denboraldia amaitzeko. Bederatzi final. Izan ere, zuloan sartuta dago Oñatiko taldea eta sei edo zazpi partidua irabazi beharko ditu datorren urtean EBAn egotea gura badu.

Zapatukoa hil edo biziko lehia zen; partidua aurretik Xabi Igartua entrenatzaileak esan zuenez, "tortillari buelta emateko ordua".

Baina zapatuan ere ez zen posible izan, eta porrota ez zen aurkaria askoz hobea izan zelako: "Ez dugu partidua aurrera ateratzeko meriturik egin", zioen Iagoba Gamarrak. Haserre eta atsekabetuta amaitu zuen eskolta oñatiarrek: "Ezin diogu errua kanpo faktoreei bota; gu izan gara errudun bakarrak. Azken minutuetan aurkariak talde moduan eta egoismo gabe jokatu dute. Eta, gure kasuan, hori alde-rantziz eman da akaso".

Lehia orekatuta egon zen azken laurdenera arte, baina orduan behera egin zuen etxeko taldeak. Defentsan ahul, errebote gehienak kanpoko taldearendako, eta aurrean arinegi hainbat jokalditan. Azken urteetan ohituta egon da Oñatiko taldea berdinduta zeuden lehiak azken txanpan ira-

baztera, baina orain bolada txarrean daude eta oso bestelakoa da errealtatea. Honela azaldu du Gamarrak: "Arrazoi bategatik edo besteagatik, harri berberekin egiten dugu topo, dinamika txarrean sartuta gaude erabat. Kirola barrutik bizi ez duenak akaso ez daki zer esan gura duen horrek; orain irabazi beharrekoak direnek ihes egiten digute".

Partidu bat irabazi beharra

Bolada txarrari buelta ematea ahalik eta azkarren. Hori da talde oñatiarrek behar duena. Partidu bat irabaztea ezinbestekoa da horretarako, konfiantza hartu eta beste dinamika baten sartzeko. "Datorren jardunaldian, ahal bada", dio Gamarrak. Etxeko lehiatan behintzat, ez zaie harmailaren laguntzarik faltako.

JON LEKUONA | NATRA OÑATI TALDEKO JOKALARIA

"Ez dut uste halako agur ekitaldirik behar nuenik; hala ere, eskerrik asko denoi"

Natra Oñatirekin azken partidua jokatu zuen Jon Lekuonak zapatuan. Omenaldi xumea egin zioten amaieran, taldearen alde egin duen lana eskertzeko. Atsekabetuta amaitu zuen: "Pena bat da kiroldegia horrela egonda garaipenik ez lortzea".

Azken partidua izan da zuretako. Pena ematen dizu?

Pena bai, baina denboraldi hasieratik horrela planifikatuta zegoen eta ez dut uste halako agur ekitaldirik behar nuenik. Hala ere, eskertzen da erre-



Jon Lekuona. | J.B.

konozimendua, eskerrik asko denoi. Orain beste jokalaria bat etorriko da nire ordeiz; ea bolada txar honi buelta emateko laguntzen duen.

Non egon da, zure ustez, porrotaren gakoak?

Azken laurdenean, esango nuke. Intentsitate pixka bat falta izan zaigula uste dut, eta maila honetan intentsitatea apur bat jaitsiz gero ordaindu egiten da. Erasoa ez ditugu erabaki onenak hartu, izan ere, zenbait jokalditan arinegi ibili gara. Gure buruari presio larregi sartzen diogunean behera etortzen gara. Eurek, bestalde, oso modu eraginkorrean amaitu dituzte erasoko jokaldiak. Erasoa min handia egin digute, batez ere azken laurdenean.

LEHEN NAZIONALA

Erabakigarria ez zen partidua zailean ondo moldatu ziren Arrasatekoak

Liderra, Bide Bide Ibiza, hartu zuen MUK: 69-77 izan zen emaitza

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Partidua azkarra planteatu zuen MUK zapatuan BideBide Ibizako tolosarrei, liderrei, aurre egiteko. Estrategia horri erdizko probetxua atera ahal izan zioten azkenean: irabazi ez (69-77 izan zen azken emaitza Iturripen), baina gutxienez kontrakoari presioa sartu, eta emaitza itxurosoa lortzeko balio izan zion.

Zer-nolako aurkakoa zuten jakinean zeuden Josu Larreategiren mutilak: "Taldea indartsua da, batez ere barrutik, eta bagenekien gauza bakarra takarradan

egitea zela. Ondo hasi ginen, baina laster 10 puntuko aldea atera ziguten, eta horri buelta ematea gauza zaila da".

Aldea txikitu zuten

Hori bakarrik ez, eta erasoan ere ondo ez zirela ibili onartu zigun entrenatzaileak: baloi asko berreskuratu bai, baina ez zuten saskiratzerakoan asmatu.

Alde positiboan, berriz, jokalarien jarrera eta talde sena azpimarratu behar dira: "Gure jokariak une oro saiatsu dira, kantxa osoan presionatuz. Hala, 18 pun-

tuko aldea zeukatzen, eta sei puntura txikitzea lortu zuten", baloratu zuen Larreategik.

Hemendik bi astekoa

BideBide ez da MUKen aurkari zuzena. Datorren astekoa ere ez: Santurtzira joango dira Arrasatekoak, bigarren sailkatuari irabazten saiatzera; EBAr joango dira datorren urtean, eta partidua zaila izango da. Baina hitzordu garrantzitsuagoa hemendik bi astera izango dute, Iturripen: seigarren dagoen Lizuan.com hartuko dute etxean.



Baloi asko berreskuratu zituen MUK. | JULIO CALLEJA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Talde ona dela erakutsi du beste behin Ford Mugarrik

31 eta 18 irabazi zion Urdulizi zapatuan Musakolako kantxan

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Taldean jokatu zuen beste behin Ford Mugarrik zapatuan, eta irabazi zuen beste behin. Partidu bukaeran denak zeuden pozik, jokalaria eta entrenatzailea.

Nahiko lasai, "lasaiegi" hasi ziren etxeok eta hori da, hain justu, Ane Herrero entrenatzaileari gutxien gustatu zitzaiona.

"6 eta 0ko defentsarekin ateraginen. Horrelako defentsetan erdia zaindu behar da, ez da hutsunerik utzi behar, eta kontrakoa egin genuen. Urdulizek eskatutako hutsartean berba egin genuen eta hortik aurrera zeharo aldatu zen gure jokoa". Horren

adibide da 20 minutu pasa egin zituela Ford Mugarrik golik jaso gabe. Eta hori talde-lana ondo egitearen ondorioa dela aitortu zuen Ane Herrero partidu bukaeran: "Jokalaria guztiak dira onak banaka, eta talde bat gara. Aldagelan garbi ikusten da talde bat gabela, eta talde on hori aprobe-

txatzen jakin behar dugu. Eta Urdulizen jokaturako partiduan talde ona izan gara".

Helburua beteta

16 eta 10 bukatu zen lehenengo zatia. Irabazten joan arren, urduri atera ziren bigarren zatira etxeok. Baita kanpokoak ere. Baina atsedendian jarritako helburua bete zuten Herreroen mutilek: "Gogor hasi behar ginea komentatu genuen, eta lehen bi erasoetan Urdulizek ezin zuela golik egin. Lehen hiru erasoetan guk lapurtu genien baloia, eta horrek aurrera egiten lagundu zigun; guri aurrera egiten eta beraiei behera jaisten". Partidua

aurrera joan ahala Ford Mugarriren abantaila ere handitzen zihoan, eta taldea lasaitu egin zen. Etxeko entrenatzaileak hutsartea eskatu zuen orduan, eta gauzak aldatu egin ziren berriz. Bederatzi minutu falta ziren partidua bukatzeko. "Ordurako 16 gol zituzten eurak eta 20ra ez heltzera jarri genuen helburu". Eta baita lortu ere, 31 eta 18 bukatu zen partidua-eta.

Urduliz behealdean dagoen taldea da eta hasierako lasaitasuna berriz ez errepikatzea izango dute helburu Ford Mugarriko jokalariek, "talde handien aurka horrek ez digulako mesede egingo, kontrakoa baizik".



Ford Mugarriko jokalaria ondo aritu ziren, bai bakarka baita taldean ere. | JULIO CALLEJA

ANE HERRERO | ENTRENATZAILEA

"Hurrengo fasean sartzea da gure helburua, baina partiduz partidu"

17 partidu jokatu ditu Ford Mugarrik eta oraindik ez du galdu: 16 garaipen eta berdinketa bat.

Zorionak! Ez da marka txarra.

Ez. Partidu eskasak egin ditugu baina talde ona dugu eta orain arte erakutsi dugu buelta ematen badakigula.

Hurrengo fasea heltzea da helburua?

Bai. Baina partiduz partidu heldu behar gara. Partidu bakoitza irabazi behar dugu eta matemati-



Ane Herrero. | OE

koki heldu behar gara fasea. Fasea sartuko garela pentsatzen hasten bagara susto asko hartu ditzakegu.

Noren kontra duzue hurrengo asteburuan?

Askartzaren aurka jokatu dugu, etxean berriz. Han partidu

zaila jokatu genuen; lehen zatia galtzen bukatu genuen. Aste gogorra dugu aurretik. Arerioek ez dute ezer oparitzen eta zuzendu beharreko fleko horiek ondo landu behar ditugu.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Partidu ona egin arren, 27 eta 29 galdu zuten bergarrek Askartzaren kontra

Sailkapenean atzeko postuetan daude Soralue-BKEko mutilak

USOA AGIRRE | ARRASATE

Zapatu arratsaldean jokatu zuten senior mailako eskubaloia partidua Labegarietako kiroldegian. Lehen zatian oso ondo aritu ziren Soralue-BKEko mutilak. Defentsan ondo aritu ziren, joko bizkorrekin eta golak erraz egiten, 16 eta 15 bukatu zuten lehenengo zatia.

Bigarren zatia ondo hasi zuten, baina bergarrek penalti bat huts egin eta 5 eta 1eko partzia-

la lortu zuten Askartzakoek. Bigarren zatian defentsa aldatu zuten kanpokoek, oso atzean jarri ziren, eta bergarrek ez zuten jakin horrela jokatzeko. Partidua amaitzeko bi minutu falta zirela Askartzako atezaina kanporatu zuten eta jokalaria bat jarri zuten haren ordean. Bergarrek orduan gola egiteko bi aukera izan zituzten, baina bi jaurtiketetan atezainari eman zioten baloiarekin. Bergarrek partidu ona jokatu

arren, 27 eta 29ko kontrako emaitza izan zen bukaeran.

Maila mantentzeko arazoak

Sailkapenean, azken postuetako multzoan lehenengo daude Bergarrek, 10. postuan. Josetxo Munategi entrenatzaileak esan digunez, zortzi puntu ez badituzte ateratzen "arazoak" izango dituzte mailari eusteko. Adierazi digunez, "ez da nahikoa ondo jokatzeko, puntuak egin behar ditugu".



EUSKADIKO PREFERENTEA

JULIO CALLEJA

Mailaz igo dute Oñatiko neskek

Datorren urtean goi-mailan arituko dira Aloña-Mendiko neskek, Euskadiko txapelketa jokatzeko. Atzo, domeka, Aiala Zarautzen kontra Oñatin jokaturako partidua galdu egin zuten, 21 eta 22ko emaitzarekin, baina mailaz igotzeko lehian zegoen Ereintzak ere galdu egin zuenez, oñatiarrek lortu dute goiko mailan jokatzeko lekua.

LEHEN TERRITORIALA

Zumarragan berdinduta, sailkapenean atzealdean jarraitzen dute Izarraitz-Aloña Mendiko neskek

Gipuzkoako txapelketako partidua jokatu zuten zapatuan Zumarragan Izarraitz-Aloña Mendiko neskek Urola Laztiren kontra. Berdinketarekin bukatu zen partidua; 24na gol egin zituzten bi taldeek. 13. jardunaldiaren ondoren sailkapenean zortzigarren postuan dira oñatiarrek, 13 punturekin. Datorren jardunaldian etxean jokatu du Izarraitz Aloña-Mendiko taldeak; Amenabar ZKE izango dute aurrean. Ez da partidu erraza izango, sailkapenean lehenengo baitago Amenabar, 22 punturekin.



Begarrek erasoan, bigarren zatiko une batean. | USOA AGIRRE

ELURRA

Bi erakustaldi etapa eta gero, ibilbide luzerako gertu dago Itoitz Armendariz

Baqueira Bereten 38 kilometro egingo dituzte gaur gauean, Pirena proban

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA
Ikusleen gozamenerako aste bukara izan da honakoa Pirena lasterketan; izan ere, kronoak ez ziren sailkapenerako. Itoitz Armendariz eskoriatzarrak 11. bukatu zuen zapatukoan, eta 9., domekakoan, bi egunetan lasai ibilita.

Asteburuko erakustaldi etapetan, behe-laino handia izan

zuten, baina etapa motzak izan ziren, bina kilometrokoak. Txakur onenei atseden eman zien Armendarizek.

"Ona da niretako"

Txakur onenek gaur gogoz lan egin beharko dute, izan ere, etapa "erabakigarria" dela esan zigun musher eskoriatzarrak: "38 kilo-

metro egingo ditugu, gauez, Baqueira Bereten".

Eskoriatzarra pozik zegoen iragarpenekin: "Elur berria izango dugu. Bestalde, etapa luzea izango da, eta gauez, eta nire txakurrendako ona da hori".

Baqueiran jarraituko dute bihar, eta segidan Andorrara sartuko dira.



Zaleekin pentsatuta antolatutako etapak izan dituzte aste bukaeran Pirenan. | PIRENA/GONZALO AZUMENDI



ARETO FUTBOLA

JOKIN BEREZIARTUA

Dribling, lider sendoa Zaldibarren

Zaldibarko futbito txapelketako 11. jardunaldia jokatu ostean, Dribling taldeak sendo jarraitzen du lidergoan. Portaboleiros sailkapeneko azken sailkatuaren aurka neurtu zituzten indarrak atzo eta argi geratu zen sailkapenak erakusten duena ez dela kasualitatea: 6-1.

MENDIKO ESKIA

Eski irteerak Formigal, Panticosa eta Pirinioetara

Eski irteerak antolatu dituzte elkarrekin. Aloña Mendiko mendi sailak Pirinioetara joatea antolatu du otsailaren 25erako eta 26rako. Besaide Formigalera joango da hilaren 11 eta 12rako. Eta Pol-Pol taldekoak Panticosan izango dira hilaren 18an eta 19an.

IKASTAROA

Hainbat elur motatan jaisten ikasteko aukera, GMFrenkin

Ireki da, GMF-k antolatuta, otsailaren 11 eta 12an izango den elur mota guztiak jaisteko tekniken ikastarorako izenemate epea. Elur mota desberdinetan segurtasun handiagoz jaisteko trebeziak erakutsiko dituzte. Argibideak: www.gmf-fgm.org.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

| | |
|----------------------|-----|
| Trintxerpe-Mondra | 1-1 |
| Hondarribia-Urola | 2-2 |
| Bergara-Aretxabaleta | 3-1 |
| Elgoibar-Tolosa | 1-2 |
| Oiartzun-Real Union | 0-2 |
| Behobia-Berio | 2-1 |
| Roteta-Anaitasuna | 0-6 |
| Aurrera-Aloña Mendi | 0-7 |
| Beti Gazte-Pasaia | 2-3 |

SAILKAPENA

| TALDEA | P | J |
|----------------|----|----|
| 1 Anaitasuna | 41 | 19 |
| 2 Tolosa | 38 | 19 |
| 3 Berio | 35 | 19 |
| 4 Pasaia | 35 | 19 |
| 5 Oiartzun | 33 | 19 |
| 6 Aretxabaleta | 33 | 19 |
| 7 Real Union | 31 | 19 |
| 8 Aloña Mendi | 30 | 19 |
| 9 Beti Gazte | 26 | 19 |
| 10 Bergara | 26 | 19 |
| 11 Urola | 24 | 19 |
| 12 Elgoibar | 21 | 19 |
| 13 Trintxerpe | 21 | 19 |
| 14 Hondarribia | 20 | 19 |
| 15 Aurrera | 19 | 19 |
| 16 Behobia | 16 | 19 |
| 17 Mondra | 16 | 19 |
| 18 Roteta | 12 | 19 |

HURRENGO JARDUNALDIA

| |
|-----------------------|
| Trintxerpe-Beti Gazte |
| Mondra-Hondarribia |
| Urola-Bergara |
| Aretxabaleta-Elgoibar |
| Tolosa-Oiartzun |
| Real Union-Behobia |
| Berio-Roteta |
| Anaitasuna-Aurrera |
| Aloña Mendi-Pasaia |

EUSKAL LIGA, GAZTEAK

| | |
|-----------------------|-----|
| Aretxabaleta-Indartsu | 1-4 |
|-----------------------|-----|

ERREGIONAL PREFERENTEA

| | |
|-------------------------------|-----|
| Getariako Keta-Aretxabaleta B | 4-0 |
| Antzuola-Orioko | 2-1 |

1. ERREGIONALA, IGOERA FASEA

| | |
|------------------|-----|
| Allerru-Mondra B | 2-1 |
|------------------|-----|

1. ERREGIONALA, KOPA

| | |
|-------------------------|-----|
| Aretxabaleta C-Ontzerri | 1-2 |
|-------------------------|-----|

OHOREZKO GAZTEAK

| | |
|----------------------|-----|
| Mondra-Ikasberri | 1-4 |
| Bergara-Amaikak Bat | 2-2 |
| Elgoibar-Aloña Mendi | 1-3 |

GAZTEAK 1. MAILA, KOPA

| | |
|-----------------------------|-----|
| Aretxabaleta B-Eibartarrak | 3-1 |
| Arizmendi-Bergara B | 4-1 |
| Eibartarrak B-Aloña Mendi B | 2-7 |

OHOREZKO KADETEAK

| | |
|--------------------------|-----|
| Aurrera-Bergara | 2-1 |
| Aretxabaleta UDA-Eibar B | 0-1 |
| Aloña Mendi-Reala B | 1-4 |

KADETEAK 1. MAILA, IGOERA

| | |
|-----------------------|-----|
| Arrasate-Real Union B | 1-0 |
|-----------------------|-----|

KADETEAK 1. MAILA, KOPA

| | |
|------------------------------|-----|
| Soraluze-Arizmendi | 3-2 |
| Antzuola-Arrasate B | 1-7 |
| Bergara B-Eibartarrak | 1-0 |
| Aloña Mendi B-Aretxabaleta B | 3-2 |

OHOREZKO INFANTILAK, KOPA

| | |
|--------------------------|-----|
| Euskalduna-Bergara | 1-0 |
| Amaikak Bat-Aretxabaleta | 1-0 |
| Arrasate-Tolosa | 2-2 |
| Aloña Mendi-Urola | 2-1 |

EMAKUMEZKOAK, IGOERA FASEA

| | |
|---------------------|-----|
| Arizmendi-Intxausti | 2-1 |
|---------------------|-----|

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPEL. GIZON.

| | |
|-----------------------|-------|
| Ford Mugarriz-Urduliz | 31-18 |
|-----------------------|-------|

| | |
|-----------------------|-------|
| Soraluze BKE-Askartza | 27-29 |
|-----------------------|-------|

EMAKUME SENIOR PREFEREN.

| | |
|-------------------|-------|
| Aloña Mendi-Aiala | 21-22 |
|-------------------|-------|

1. LURRALDEKO TXAPELKETA

| | |
|------------------------------|-------|
| Urola-Izarraitza Aloña Mendi | 24-24 |
|------------------------------|-------|

2. LURRALDEKO TXAPELKETA

| | |
|-------------------------|-------|
| Arrasate-Ordizia Vicuña | 32-25 |
|-------------------------|-------|

KADETEAK, GIZONEZKOAK

| | |
|------------------------|-------|
| Urola-Soraluze Bergara | 28-30 |
|------------------------|-------|

| | |
|-----------------------|-------|
| Talleres Chapime-Egia | 18-35 |
|-----------------------|-------|

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

| | |
|-----------------------------|------|
| Aloña Mendi B-Aloña Mendi A | 7-31 |
|-----------------------------|------|

SASKIBALOIA

EBA MAILA

| | |
|------------------|-------|
| Natra Aloña-Easo | 67-75 |
|------------------|-------|

LEHEN NAZIONAL MAILA

| | |
|---------------------|-------|
| MU-Bide Bide Ibizia | 69-77 |
|---------------------|-------|

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

| | |
|------------------------|-------|
| MU-Autoescuela Lagunak | 75-81 |
|------------------------|-------|

SENIOR GIZONEZKOAK

| | |
|------------------|-------|
| Allerru-Soraluze | 73-68 |
|------------------|-------|

| | |
|----------------------|-------|
| MU-Aluminios Alberdi | 51-60 |
|----------------------|-------|

SENIOR, 2. MAILA

| | |
|----------------------|-------|
| Aloña Mendi-Donibane | 48-46 |
|----------------------|-------|

SENIOR EMAKUMEZKOAK

| | |
|-------------------------|-------|
| Cafes Aitona-Eskoriatza | 53-54 |
|-------------------------|-------|

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

| | |
|------------|----------|
| Eskoriatza | Atsedena |
|------------|----------|

GIPIZKOA, BIGARREN MAILA

| | |
|-----------------------|-----|
| Aretxabaleta-Hirukide | 6-4 |
|-----------------------|-----|

GU RE KI RO LA

GOIENA TELEBISTA HARMAILATIK ASTELEHENERO, 20:45, 22:30



goiena

PILOTA

Mauri Zubillaga | Leintz Gatzagako Pilota Txapelketako antolatzailea

"Gatzagako pilotalekuan galdu nuen bista, argirik ez zegoenean, pilota bila"

- ▶ Zubillaga Gatzagako beteranoren torneoko bigarren edizioa prestatzen dabil
- ▶ Aurtengo asmoa da Gatzagako txapelketa bailara osora zabaltzea

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Arrasaten urteak egin baditu ere Mauri Zubillagak Hondarribian hartu du erretiroa. Orain ez du Arrasateko Pilota Taldean entrenatzaile moduan jarduten, baina bertako pilotariak gertu-gertutik jarraitzen ditu, hara eta hona ibiltzen da-eta partiduak ikusten. Eta ez hori bakarrik, iaz Gatzagako Pilota Txapelketak izan zuen arrakasta ikusita, aurten bigarren edizioa antolatuko du. Pilotan jokatu nahi duen ororendako zuzendutako txapelketa da, ez da federatuta egon behar eta izenematea otsailaren 19an amaituko da. Aurten, gainera, Lau Terdiko modalitatea ere gehituko du.

Badator berriro ere Gatzagako torneo. Iaz gustura geratu zinen emaitza ikusita.

Ikustekoa izan zen finaletan, Gatzagako jaietan zelako giroa egon zen pilotalekuan. Jende mordo bat zen harmailetan, eta horrek izugarri poztu ninduen. Aurten maila txikitako pilotariendako antolatuko dugu txapelketa, baina baita beteranendako ere.

Hondarribian jaietakoa, baina 17 urtera arte Gatzagan bizi izandakoa. Ondo ezagutuko duzu pilotaleku hori.

Pilotaleku horretan galdu nuen bista, argirik ez zegoenean pilota bila ibiltzen ginen-eta [Barre]. Gaztetan martxoan hasten ginen pilotan jokatzen, egunak luzatzen hasten zirenean, urrira arte. Hilabete horietan ez genuen besterik egiten. Eta neguan argirik ez zegoenez, bada esandakoa, ilunpean ibili behar... Gatzagarrei eskerrak emateko antolatzen dut han txapelketa, eta herrian giro polita egoten delako; gainera, pilotaleku aproposa da, bai gaztetxoendako eta baita beteranendako.



Mauri Zubillaga, Arrasateko Herri Arteko Txapelketa irabazi ostean, omenaldian. | GOIENA

lazkoarekin alderatuta, aurten bailara osora zabalduko duzu txapelketa.

Iaz ederrak entzun behar izan nituelako. Oñatitik, Antzuolatik... jendeak deitu zidan esanez eurek ere torneoan parte hartu nahi zutelara, eta aurten denak daude gonbidatuta. Hori bai, aurten ez ditugu partidu guztiak Gatzagako pilotalekuan jokatuko.

Zergatik?

Ezin dugulako domeka goizero 09:00etatik 14:00etara pilotalekua guretako hartu, besteak beste Gatzagako gaztetxoek ere pilotalekua behar dutelako han jolas

egiteko. Horregatik erabaki dut txapelketa bailara osora zabaltzea, baina ez bikoteei begira bakarrik, baita pilotalekuetara begira ere. Hau da, Antzuolako pilotariak badaude, Bergarakoak, Elgetakoak... partiduak euren herrietako pilotalekuetan ere jokatuko ditugu. Hori bai, finalak Gatzagan jokatuko ditugu, irailean.

Martxoan hasiko duzue beteranoren txapelketa.

Gaztetxoeren torneoak ere arrakasta handia izan du, eta Araba aldetik hainbat klubetako ordezkariak etorriko direnez gazteekin otsail erdialdean hasiko gara.

Beteranoak bai, horiek martxoan hasiko dira.

Zelako kategoriak izango dira beteranoren mailan?

Bi maila jarriko ditugu, pilotan ondo jokatzen dutenak batean, eta horren ondo jokatzen ez dutenak bestean, B multzoan. Pilotan jokatzerara ohituta daudenekin trinketeko pilotekin jokatuko dute, nahiko txukunak dira horiek. Eta, pilotan jokatzerara ohituta ez daudenendako pilota bereziak ditugu, oso bigunak, ia trapuzkoak; denek pilotan jokatu ahal izango dute horrela. Gainera, iaz jendeak eskuz binaka jokatzea

"Iazkoa txapelketa polita izan zen, eta errepikatu egingo dugu aurten"

"Bi maila jarriko ditugu beteranotan, jendea lasai apunta dadin"

"Partidu guztiak ez dira Gatzagan jokatuko, pilotalekua libre uzteko"

"Otsailaren 19an amaituko da izena emateko epea; 14 bikote daude orain"

rekin batera bakarka jokatuko lukeela ere esan zuen, eta aurten lau terdiko txapelketa ere egingo dugu.

Zer egin behar da izena emateko?

Izenematea otsailaren 19an amaituko da, eta pilotari bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu jokatu ahal izateko. Izan ere, irabazleendako txapel bakoitzak 70 euro balio ditu! Eta nire erretiroa ez da urrezkoa! [Barre]. Izena emateko nire telefono zenbakira deitzearekin nahikoa da (605 724 096). Norgehiagokak hamabost egunean behin jokatuko ditugu, domeketan, 09:00etan hasita. Hala, martxoaren 4ean hasiko dugu torneo.

Orain arte zenbat bikotek eman dute izena?

Txapelketa itxura polita hartzen dabil, dagoeneko iazko bikote kopurura iritsi garela, hamalau bikotek eman dute izena. Ederra izango litzateke beste lau bikote gehiago animatuko balira, multzoka hobeto banatzeko. Gehiago etortzen badira ere ondo, denendako lekua egingo dugu.

Gatzagako txapelketa alde batera utzita, Arrasateko pilotalekuan lehen baino gutxiago ikusten zaitugu.

Ahalegintzen naiz egubakoitzetan joaten, edo bestela, Arrasateko pilotariak Donostia aldera etortzen badira partiduak ikustera joaten naiz. Joan den asteburuan ere Arrasateko taldeko koadrila polita elkartu ginen Hondarribiko elkartearen, mahaiaren bueltan. Baina entrenatzeari utzi nion Arrasatera buelta mordo eman behar nituelako autoaz, eta Elgoibarren izan nuen susto baten ostean erabaki nuen horrela ezin nuela jarraitu. Orain lasaiago nabil, eta antolatzen dudana ilusio handiaz egiten dut.

Gatzagako txapelketa, esaterako. Baita beste batzuk ere. Martxoaren 4an, esaterako, Arrasateko eta Hondarribiako pilotarien artean txapelketaxoa antolatu dut. Eta hor, gazteak pozik eta gurasoak gusturago. Hondarribin gazteen pilota partiduak ikusi, poteoa egin, bertan bazkaldu... Ez dago gehiago eskatzerik!



Iazko txapelketak zale asko batu zituen pilotalekura. | JULIO CALLEJA



Ikusleak Gatzagako harmailetan. | JULIO CALLEJA



Beteranoren mailan partidu txukunak ikusi ahal izan ziren. | JULIO CALLEJA

Gure haurrei helarazten dizkiegun ahozko mezuak esanahiz janzteko lanean

Gurasoek seme-alabei helarazten dizkieten mezuen gainean hausnarketa egin du Nerea Agirrek

NEREA AGIRRE | ARRASATE

Zenbaitetan hutsik daude gure hitzak. Haurrei, jostailu berriari eta batez ere gurasoei begira aritu naiz, aurreko artikuluetan zuei eta nire buruari oparitutako betaurreko more eta belarri berdeak jantzirik. Oraingo honetan ordea, begi eta belarriak nahikoa ez, eta nire arreta gurasoen ahoetara eta bertatik ateratzen ziren mezueta (des)bideratu dut.

Urtarrileko malda luzea eta gogorra egiten ari zait, ez dakit zuei... Oraindik Gabon eta oporraldiek sortzen duten mozkorraldiaren ajeaz nago ni. Gabonak aipatu ditudala... egun horietan etxeko txikienak ere, helduok

bezala, mozkorturik ikusi eta sumatu nituen, opariak handik eta opariak hemendik.

Bazkari oparoen ostean mahainguru amaigabeak, eta gure etxeko txikienak alfonbra gainean, lurrean jostailu berriekin jolasean. Postal edo irudi hau ezaguna egingo zaizue askori:

- Aittatxo, beittu zelako marrazki politta inddoten!
- A baiii, oso polittaaa!!!
- Ala, jarraitu marrazkixak itten...
- Amatxo, amatxo, beittu patinete berrixakin zer itten doten!
- A baiii, oso ondo ume, oso ondo!

Hasiera batean, nire belarriak



Haurrei egiten duten edozeren gainean laudorioak botatzeak ez du zertan mesede egin. | CHILDLINKFOUNDATION.COM

horrelako laudorio eta goraipamenak entzunda pozez saltoka irudikatu nituen, margo berriekin aritu edo patinetean jira eta buelta aritzeko gogoz hauek ere. Baina hausnarketarako tartetxo bat hartu ostean, saltoak amaitu eta zera pentsatzen hasi nintzen: haurrek gurasoen onarpen eta

errekonozimenduaren beharra izaten dute; baina aurrerapen, urrats eta lorpen hauek modu kontzientean goraipatzen al ditugu? "Oso polita!" eta "Oso ondo!" ez al ditugu gehiegixto erabiltzen? Eta honatx gaur zuekin konpartitu nahi dudun kezka: Zenbatetan gure hitzak ez al dira hutsik

gelditzen? Egin dutena egitea edo lortzea haurrarentzat zein zaila izan den ia baloratu gabe, nahiko modu inkontzientean ateratzen zaizkigun ohiko esamolde horiek erabiltzeak epe motzera funtziona dezakeen arren, guk beste erantzukizun bat dugula uste dut [Jarraipena, guraso.com-en].

Haurrak hezten, telebista ikusle aktiboak izan daitezten

GURASO.COM | ARRASATE

Telebista ikusten dabilzanean, ona da haurrei ikusten duten horren gaineko galderak egitea. Izan ere, saioek transmititzen dituzten baloreak zaintzea komeni da, eta baita umearekin ikusitakoaz hitz egitea ere. Horrela lortuko dugu haurrak telebista ikusle aktibo bilakatzen.

Horretarako, hasiera ona izan daiteke honako hau: Zergatik ikusten duzu saio hori? edo, zein da zure pertsonaia gogokoena? Elkarrizketa abiarazteko modu bat izan daiteke eta lagunduko digu jakiten gure semea edo alaba zerekin identifikatzen den, zer ikusten duen gustura, eta zergatik. Oso adi egon behar dugu saioak transmititzen dituen

balioen inguruan. Zaindu behar dugu, halaber, ikusitakoak umearen jarreran eragina duen ala ez.

Jarraipena egiten utzi

Gomendagarria da telebista ikusleko ordutegi bat finkatzea, eta haurrak gustuko saioa baldin badu utzi telesail horren jarraipena egiten. Hobe da hori telebista modu aleatorioan piztea baino.

Azkenik, haurraren adinak aukera ematen badu azaldu marrazki bizidunak nola egiten diren, uler dezala ikusten ari den hori zelan egiten duten. Gainera, marrazkien edo argazkien bitartez ere etxean egin daitezke istorioak.



Haurra telebista ikusten, adi. | BLOG.MONTESSORIFOREVERYONE.COM

Ikastetxeetan 2.0 programak handitu egin du gazteen inplikazioa

GURASO.COM | ARRASATE

Irakasleen %96k uste dute ikasleen inplikazioa handitu egin dela Eskola 2.0 programaren bitartez -eskoletan ordenagailuekin ibilita. Hala dio, behintzat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2011ko ekainean eginiko azterlan batek.

Oro har, irakasleek oso positiboki baloratu dute Eskola 2.0 aplikatu izana. Euren iritziz, ikasleek informazioa bilatzen ikasten dute (%82) eta hobeto barneratzen dituzte ezagutzak (%69). Baina baditu alderdi negatiboak ere. Hala, %54k uste dute ordenagailuak "gutxi edo batere ez" diela laguntzen taldean lan egiten eta %57aren iritziz, ezta ere hobeto espre-

satzen edo komunikatzen ere. Une honetan, eskola 2.0 EAEko ikastetxe publiko guztietan ari da garatzen. Eskola 2.0 programaren aplikazioa jada burutu da lehen hezkuntzan eta orain bigarrenean inplementatzen ari dira. Lehen hezkuntzako irakasleen %87k maiz erabiltzen dituzte ordenagailuak ikasgiletan.

Pantaila digital interaktiboek erabilpen txikiagoa dute, (%52), baina %9k arbel tradizionala baino gehiago erabiltzen dute, eta %12k erabat baztertu dute metodo zahar hori. Bada beste datu esanguratsu bat ere: ikasleen %79k eduki propioak sortzen dituzte Eskola 2.0 tresnak erabilita.



Bi ikasle ordenagailu aurrean. | CLASS.GEORGIA/SOUTHERN.EDU

Eskola Kontseiluak eskaintza publikoko desorekak azaldu ditu

EAEko Eskola Kontseiluak 2008-2010 artean hezkuntzaren egoeraz egindako txostena aurkeztu du. Eta bertan, Eskola Kontseiluak adierazi dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari lanpostu publiko gehiago behar direla Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian. Gainera, eskaintza publikoaren kudeaketan desorekak azpimarratu dituzte. Besteak beste, lanpostu publikoen kopurua eta jaiotze tasaren hazkundea ez datoz bat, eta gabeziak daude.

Lodosa-Sartagudako ikastolari laguntzeko kanpaina abiatu dute

Aurten 25. urteurrena beteko duen Lodosa-Sartagudako (Nafarroa) Ibaialde ikastola diruz laguntzeko kanpaina jarri du abian Ikastolen Elkarrekin. Eremu ez euskalduneko kokatua, ikastolak zailtasun ugari du behar ekonomikoak aurre egiteko. Ibaialde ikastolak gizarte osoari egin dio dei laguntza emateko. Bere ekarpena egin nahi duen herritar orok, dirua Euskadiko Kutzako kontu korronte honetan sartu ahal du: 3035 0153 46 1531026051.

KULTURA



Sketx batean herritarrak txistek gaztelaniaz eta euskaraz kontatzen. | J.C.



Oihan Vega aurkezle lanetan. | J.C.



Esketx batean alaba bere aitari irakasleak euskaraz esaten zion hori bere erara itzultzen. | JULIO CALLEJA

Arrakasta izugarria izan zuen 'Euskararen espektakulua'-k

- ▶ Hiru saio egin zituzten Arkupen eta guztietan bete zen aretoa
- ▶ Herritarren barre algara ugari entzun ahal izan ziren ikuskizunean

AMAIA TXINTXURRETA | ARETXABALETA
Euskararen espektakulua-k aretxabaletar askoren arreta piztu zuen; zapatu arratsaldean Arkupeneko Zaria aretoan hiru saio eskaini zituzten eta guztietan bete zen aretoa.

Aretxabaletako Loramendi euskara elkarte barruan, iaz sortutako Sustapen Taldeak gertatu du ikuskizuna. Kepa Errasti aktore aretxabaletarrak zuzendu ditu herritarrekin grabatutako esketak eta Oihan Vega irrati esatari bergararrak bideratu zituen emanaldiak.

Euskara ardatz hartuta eta umore giroan, bertaratu ziren ikus-entzuleei euskararekiko duten jarreraren gainean hausnartzeko bidea eman zien ikuskizunak.

Ikuskizun arrakastatsua

Oihan Vegak emanaldia egunkarian irakurritako titular kezkarri batekin hasi zuen: "Euskaraz dakiten hiru euskaldunetatik bik gaztelaniaz hitz egiten du

egunero", esan zuen. Eta beste datu bat ere ekarri zuen gogora Vegak: euskaldunen %80ek sexu harremanak hamabost egunean behin izaten ditu. Vegak hauxe ondorioztatu zuen: "Denbora gehiago egiten dugu gaztelaniaz

hitz egiten txortan baino, eta hori ez da ona. Hobeto biziko ginatke bi titularrak alderantziz izango balira: Euskaldunen %80ek hamabost egunean behin egiten dute gaztelaniaz eta hiru euskaldunetatik bik egunero egiten dute

txortan". Hortik abiatuta, bizi-tzako hainbat une errealetan gertatzen dena gogorarazi zuen Vegak; euskaraz ez dakigula iraintzen, txistek ere orokorrean ez ditugula euskaraz kontatzen, ume guztiakin euskaraz hitz egi-

ten dugula baina gero geure artean hitz egiten dugunean gaztelania-ra joateko joera daukagula... EGA ziurtagiria, euskaltegiak edota euskal kantagintza ere izan ziren hizpide. Azpimarratu zuen naturaltasunez hitz egin behar dugula eta hau esaten amaitu zuen ikuskizuna: "Bai sexurako eta bai euskararako, honekin edo harekin, baina egin".

Balorazio positiboa

Herritarrak izan ziren esketxetako protagonista eta Kepa Errasti zuzendariak balorazio positiboa egin zuen: "Oso polita izan da bideoetan herritarrak azaltzea, eta eskertu egin nahi diet lehengo momentutik egin duten lanarengatik. Ikus-entzuleak oso gustura egon direla esan didate, barre algarak ere entzun dira, eta pozik nago emaitzarekin".



GABRIELA GERAZIMOBA
IKUSLEA

"Oso polita eta orijinala iruditu zait. Ikusten da lan asko egon dela atzetik eta asko gustatu zait. Herritarren esketxak oso politak izan dira eta euskara bultzatzeko ideia polita da".



ARANTXA BENGEOA
IKUSLEA

"Euskararekin bizi dugun egoera emanaldian oso ondo azalduta dagoela iruditu zait, askotan gaztelaniara jotzen dugulako. Ondo eginda dago eta gustatu zait".



IBAI ZANGITU
PARTE-HARTZAILEA

"Esketxetan parte hartu dut; ezetz esaten ez dakigu eta, egia esan, oso ondo pasatu genuen. Jendeak zoriondu egin gaitu eta elegante irten dela iruditu zait".



IDOIA ELEXPURU
PARTE-HARTZAILEA

"Esperientzia oso polita izan da esketxetan parte hartzea. Ahal bezain ondo egiten saiatu ginen eta oso ondo egin dugula esan digute orain herritarrek; lan polita egin dugu".



GOIO ARRIETA
PARTE-HARTZAILEA

"Aberasgarria izan da esketxetan parte hartzeko esperientzia. Muntaiak ikusi gabe geneukan eta oso ondo dagoela iruditu zait; esperientzia polita izan da niretako".



Loquillo eskenatokian, ohikoa duen keinua egiten entzuleei. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

Harrokeria eta dotoretasuna

USOA AGIRRE | ARRASATE

Azken aurreko diskoko *Balmoral* kantuarekin hasi zuen kontzertua Loquillok, Amaian batu ziren 400 bat ikusleren aurrean. Eszenografia minimalista taula gainean Loquillo "bakarrik" entzuteko, baina musikari ugariarekin: bi gitar-jolea, piano jolea, biolin jolea, kontrabaxu-jolea eta bateria-jolea zituen bakarkako bidaian lagun.

Lehenengo eta oraingo kantuek

Aurreko diskoko abestiarekin hasi zuen kontzertua, baina *Su nombre era el de todas las mujeres* disko berriko kantuekin jarraitu zuen, *Nuestra vecina* eta *La noche blanca* -rekin, kantu bakoitza abesteaz gain, interpretatuz. Abesti zaharrak eta berriak tartekatu zituen kontzertuan, formatu intimista horretarako egoki ekarritakoak: *Cuando*

pienso en los viejos amigos ezagun zaharra jo eta *Cuando vivías en La Castellana* lasaia etorri zen gero. Bernardo Atxagaren hitzekin osatutako *La vida que yo veo* etorri zen ondoren, country ukituarekin, txalo zaparradarekin eskertu zieten entzuleek. *La belle dame sans merci* sentikorra jo zuten gero.

Kontzertua goraka zihoan eta momentu hunkigarriena etorri zen

FITXA

MUSIKA KONZERTUA

LOQUILLOREN 'A SOLAS' BIRAKO KONZERTUA

Estiloa: Rocka.

Non: Arrasateko Amaia antzokian.

Eguna: Egubakoitza, urtarrilak 27.

Iraupena: la bi ordu.

eta betaurrekoak kendu barik, *Brillar y brillar* bikaina.

Aldarrikapenak

Ohikoa baino formatu lasaiagoan egon arren ez zuen rockero ukitua alde batera laga eta horren lekuko izan zen *Antes de la lluvia*, *Mujeres en pie de guerra* dokumentaleko soinu bandakoa, eta dokumentaleko beste bat ondoren, *Salvador*, Salvador Puig Antic-i eskainitakoa.

La mala reputación abestiarekin kantuan eta txaloka jarri zen publikoak. Mario Benedettiren letrak dituen *Transgresiones* etorri zen gero eta lehen zatia bukatzeko, Johnny Cashen bertsioa, *El hombre de negro*.

Entzuleen artean kantari

Atsedendialdiaren ondoren alkandora zuria jantzita, kopa eskuan eta zigarroa errez sartu zen Loquillo eskenatokira, Jaime Urrutiaren *Caray* abestia ederki interpretatuz. Jaques Brel poetaren argitaratu gabeko letra duen *Elegancia* kantua eskenatokitik jaitsita butaka artean abestu zuen.

"XX. mendeko gizona" dela esanez *Vintage* eta *Los gatos lo sabrán* abestiekin bukatu zen kontzertua, entzuleen txalo zaparradarekin

Musikari bikainekin, harrokeriaz eta dotoretasunez zahartzen dakiela erakutsi zuen Loquillok, rockero izaera baztertu barik.



Adabegi taldearen zuzeneko bat. | GOIENA

Esperimentazioa ekarriko du Adabegi taldeak eguenean

Vomito eta Foxy Leires izango dira otsailean Koolturen izango diren gainerako taldeak

U.A. | ARRASATE

Datorren eguenean, otsailak 2, Zestoako Adabegi taldearen kontzertua izango da Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan. Ohi bezala 22:00etan, Arrasateko gaztetxean izango da, 5 euroren truke.

Adabegi musika taldea orain dela bi urte inguru sortu zen Gipuzkoako Urola bailaran. Txalaparta oinarri hartuta, esperimentazio musikalarik ekin zieten eta esperimentazio horren

fruitu da argitaratu duten bost kantuko diskoa.

Dantzariak eskenatokian

Zazpi musikaririk eta bi dantzarik osatzen dute taldea. Txalaparta, bestelako perkusioak, baxua eta dj-a daude, eta horiei eskenatoki gainean gehitzen zaizkie bi dantzari, flamenko eta afrikar kutsuarekin. Hori xe da, hain zuzen ere, taldearen berezitasunetako bat eta zuzenekoak ikusgarri egiten ditue-

na. Arrasateko gaztetxean lehen ere taula gainean ikusi izan dugun Askoa Etxebarrieta *La Pulga* da flamenkoa dantzatzen duena.

Otsaileko egitaraua

Adabegi taldeak hasiko du Kooltureko otsaileko egitaraua eta hilabete horretarako beste bi kontzertu programatu dituzte. Otsailaren 9an Vomito punk doinuak ekarriko ditu gaztetxera. Potencial Hardcore diskoetxearekin argitaratu berri duten *Paralizando 13* izeneko diskoa aurkeztuko dute. Otsailaren 23an, berriz, Foxy Leires taldeak eskainiko du kontzertua. Blues eta rock doinuak lantzen ditu Bilboko talde horrek. Bi kontzertuak 22:00etan izango dira; 5 euro da sarrera.

Ama-semeen erlazioa, 80ko hamarkadan girotua

'Eunon' izeneko antzerki-esperimentua ikusi zuten atzo Aretxabaletako Arkupen

U.A. | ARETXABALETA

Iurgi Etxebarria aktore aretxabaletarrak zuzendutako Apropox proiektuak *Eunon* antzezlan eskaini zuen atzo, domeka, Arkupen. 80ko hamarkadan girotuta, ama-semeen arteko maitasun-gorrotu istorioa kontatu zuten ordubeteko saioan.

Semeak ama hurbilegi bizi du, aldameneko atean. Hurbiltasun horrek, egunerokoan, sentimendu eta egoera desberdinak sorrarazten ditu, batzuk

oso barregarriak, eta beste batzuk, ez horrenbeste.

Berberik gabe

Maskarak jantzita irten ziren protagonistak taula gainera, baina ez zuten inoiz topo egin. Izan ere, aktore bakarrak bi rolak antzezten ditu.

Maskarez gain, beste berezitasun bat ere badu: ez dutela berbarik egiten. Berbarik egin gabe ere ederki ulertzen da ama-semeen arteko erlazioa.



Ama, semearen logelan. | JULIO CALLEJA

Kontakizun musikatu arrakastatsua, herritarren eskutik

80 lagun inguru izan ziren udaletxe zaharreko atarian ikuskizunaz gozaten

AMIA TXINTXURRETA | ARETXABALETA
Egubakoitz gauean Aretxabaleta-ko udaletxe zaharreko ataria xarma berezi batekin inguratu zen; *Zast!* izeneko helduendako kontakizun musikatuak hartu zuen lekua. Ipuinetatik abiatuta, hainbat eratako testuak irakurri zituzten musikaren laguntzarekin lau aretxabaletar eta arrasatear batek osatutako taldeak.

Beñat Zamalloa kontalari lanetan ibili zen, Martin Antxia perkusioetan, Eñaut Zubizarreta txeloan, Aitor Ziardegi pianoan eta Arrasateko Maialen Arratibel gitarran eta kantuan.

Lehenengo emanaldia

Gazteen lehenengo emanaldia izan zen Aretxabaleta eta Zamalloa taldeko kontalariak aitortu digu "lagundu" egin ziela lehenengo ikuskizuna euren

herrian izateak. "Hasieran urduri geunden baina esperientzia oso polita izan da. Ikutu berri-tzailea dauka ikuskizunak eta orokorrean pozik gelditu gara egindakoarekin".

Guztira, taldekideek sortutako 14 kontakizun eskaini zituzten eta hainbat gai jorratu zituzten; heriotza umore ukituarekin, gai erotiko-pornografikoa zeukan kontakizuna, ume lapurtuen ideiatik sortutakoa edota bakarzaletasunari buruz jardun ziren, besteak beste. "Nahiko urduri hasi gara ikuskizunarekin eta horregatik erritmo oso bizia hartu dugu hasieran. Uste dut horrek asko azkartu duela ikuskizuna, baina ahal duguna egin dugu, ez gara honetatik bizi eta ahal bezain ondo egiten saiatu gara" esan digu Zamalloak esperientzia polita izan dela azpimarratuta.

Ikus-entzuleak gustura

Zast! ikuskizuna ikustera 80 lagun inguru joan ziren udaletxe zaharrrera eta jendea zutik ere egon behar izan zen ikuskizunaz gozaten. "Adin desberdinetako jendea animatu eta etorri da eta guretzat hori oso garrantzitsua da; interesgarria izan da jende nahasketa egon dela ikustea" esan digu Zamalloak.

Hurrengo emanaldia Arrasateko gaztetxean izango da otsailaren 4an 18:00ean eta hirugarrena Eskoriatzako Ibarraundin izango da.



Kontakizun musikatuaren une bat. | JULIO CALLEJA

Aitaren heriotza umorez erabaki zuten Zabalotegin

Bederatzi urtez koman dagoen aitaren etorkizuna erabaki zuten hiru anai-arrebak, 'La Lechuga'-n

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Bederatzi urtez koman dagoen aitaren etorkizuna erabaki behar zuten hiru anai-arrebak egubakoitz gauean Bergarako Zabalotegi aretoan. Ordu eta erdi behar izan zuten horretarako, eta tarte horretan barreari eutsi ezinik egon ziren aretoa bete zuten ikusleek. Gaia bera serioa zen, baina barreak eragindakoak izan ziren ikusitako malko bakarrak.

Etxe bateko egongela handi baten kokatzen da antzezlanak. Hiru anai-arreba eta bi koinatu aitaren urtebetetzea ospatzeko elkartu dira, urtero moduan. Eta urtebetze festa horretan urteroko gaia ateratzen da mahai gainera: zer egin bederatzi urtez koman dagoen aitarekin. Denbora horretan etxean izan duen alabak (Mari Cruz Melgosa) eta haren gizonak (Gabriel Ocina) nekatuta daude la diote, eta anaiei eskatzen die-

te erreleboa. Anaia batek (Gorka Aginagalde) eta emazteak (Gurutze Beitia) diote sei seme-alaba dituztela eta ezinezkoa zaiela aita etxera eramatea; eta ezkongai dagoen anaiak (Galder Perez) ere ezin duela dio.

Eutanasiaraino barrez

Hiru anai-arreben elkar ulertu ezin eutanasia planteatzera bultzatzen ditu. Gaia serioa, eta egoera hotza, baina ikusleak eroso eta goxo egon ziren. Batzuen eta besteen arrazoiak eta senideen arteko harreman hotz eta agerikoak umorez kontatzea lortu zuten Glu-Glu konpainiako aktoreek.

La lechuga antzezlanak ikusle asko erakarri zituen. Zabalotegi aretoa betetzeko hamar bat lagun falta izan ziren eta denak barrez atera ziren, bukaeran aktoreei txalo zaparrada eskaini ostean.

SORALUCE
50 urte

50 urte zuri esker

Mende erdi geroago, proiektu honen sortzaileen eta jarraipena eman diotenen ahaleginari esker, SORALUCE arrakasta globalizatu bihurtu da.

Gaur egun SORALUCE marka munduko bost kontinenteetan dago eta fresaketa-mandrinaketa mundu mailako erreferentia da.

DANOBTGROUP | SORALUCE
Osintxu auzoa
P.O. Box 90
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa) Spain

Tel.: +34 943 76 90 76
Fax: +34 943 76 51 28
soraluce@soraluce.com
www.danobatgroup.com



La lechuga antzezlaneko une bagt. | O.E.

IRABAZLEAK

Urtarrileko zozketako irabazleak

Urtarrilean emandako sariak

Erremeixuak DVD

Izen-abizenak:
Loli Zeziaga
Bengoa
Herria: Arrasate

Liburuak helduentzat

Izen-abizenak:
Eneko Barberena
Mondragon
Herria: Arrasate

Ipuinak umeentzat

Izen-abizenak:
Karme Ildarua
Garitano
Herria: Bergara

Ron Lala antzerkia

Izen-abizenak:
Eusebio
Errasti
Herria: Arrasate

Donostia 2016 kamisetak

Izen-abizenak:
Juan Ramon Balenziaga Errasti
Amaia Bikuña Mtnez. de Zuazo
Jabier Uribetxebarria Bolinaga

Herria:
Arrasate
Oñati
Arrasate

Anthony Blake ikuskizuna

Izen-abizenak:
Jon Pildain Igartua
Enara Minguez Aranberri

Herria:
Oñati
Bergara

ZOZKETA: 2 SARRERA

Mexikoko
'TWIN TONES' kontzertura
Amaia antzokian,
otsailaren 3an, 20.00etan.



Deitu **943 25 05 05** telefonora.
Eguazteneko 14:00ak arte jasotako deiak sartuko dira zozketan.



Topakide txartelarekin ere bai!

Hemen ere erabili zure Goiena klubeko txartela



Amaia Palacios Zubia | Dendaria

Bergarako Jaixak dendako Amaiak kudeatzen duen dendak aurkeztu eta Goiena klubeko txartelarekin lortu daitezkeen abantailak egin digu berba.

Zer da Jaixak?

Euskal jantziak, mozorroak, jostailuak, ikas-materiala eta gizon eta emakumearendako

osagarriak dituen denda da. Hitz gutxitan esan behar badut, jaietarako eta oparietarako denda.

Zergatik denda mota hau?

Bergaran eta inguruan ezaguri bereko dendarik ez dago. Horrelako produktuak (euskal jantziak, mozorroak, jostailuak...) herrian bertan eta urte osoan erosteko aukera ematen dizu. Jaixak dendan haurrek



eta helduek behar dutena erosi ahal duzu, edota opari egokia aurkitu.

Zer abantaila du Goiena Klubeko txartelaren erabiltzaileak?

20 eurotik gorako erosketetan %10eko deskontua.

Non dago?

Bergarako Ibargarai hiribideko 9. zenbakian.

2012an atera etekina txartelari



AQUARIUM

Donostia, 943 44 00 99
■ Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da)



AVIA MECA GASOLINDEGIA

Arrasate, 943 79 13 39
■ %2 gasolindegian erregaia erositak.
■ %2 dendako produktuetan



BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta, 943 79 98 21
■ %15 produktu guztietan. Kontsulta doan.



GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Eskoriatza, 943 71 43 41
■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.



ESKO SPORT KIROLO DENDA

Eskoriatza, 943 71 52 96
■ %10 produktu eta zerbitzu guztietan



GAES ENTZUMEN ZENTROA

Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55
■ %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



IKER SUKALDEAK

Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48
■ Sukalde osoa erositak, mikrouhin-labea opari.



LASTAI

Gasteiz, 945 35 85 59
■ Helduentzako atsedean arloan, %5eko deskontu gehigarria.
■ %5eko deskontua haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
■ %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehungaietan.
■ %10eko deskontua denboraldiko haur-arropan. (Beharpenetan eta eskaintza berezietan izan ezik)



LILURA EDERTZE INSTITUTUA

Bergara, 943 76 31 71
■ %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
■ %20 elikagai-intolerantzia proban.
■ %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo beka-nak.
■ %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan. Bazkidearentzat eta lagunarentzat



JAIXAK

Bergara, 943 76 31 45
■ %10eko deskontua 20 eurotik gorako erosketetan.



MULTIOPTICAS

Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75
■ %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89
■ %15 zerbitzu guztietan.



RENAULT AUTOBERRI

Arrasate, 943 71 24 72
■ %5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
■ %25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
■ Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.



TXIKI ZOO

Aretxabaleta, 943 79 51 15
■ Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zarpigarrena doan.
■ %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)



TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA

Donostia, 943 46 44 00
■ Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiagun, jaiagun bezpera, zubia edo oporraldia)
■ %20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)
■ %10 zubi eta oporraldietan.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

Donostia, 943 01 24 78
■ %10 deskontua.



GURE MUSIKA TALDEAK

"Iluna eta oso 'kañeroa' da egin dugun diskoa; gustura gaude emaitzarekin"

- ▶ Urtarrilaren 13an kaleratu zuen Dark Code taldeak lehenengo diskoa: 'Raise of Death'
- ▶ Taldeko kideak gazteak dira, baina dagoeneko hainbat lehiaketatan hartu dute parte

IRATI GOITIA | ARRASATE

Elorza, Willy, Rodri eta Etxanizek osatzen dute Dark Code taldea. Lehenengo hirurak bergararrak dira eta azkena, berriz, azpeitiarra. *Raise of Death* izeneko lehenengo diskoa kaleratu berri dute, eta Etxanizekin izan gara euren lanaren gainean berbetan.

Nolako da diskoa?

Iluna, esango nuke; guk jotzen duguna death metala da. Hala ere, ez dugu gogoko gure musikari etiketarik jartzea, denetarik jotzen dugu eta hainbat estilo jorratzen ditugu.

Gustura gelditu zarete eginikoarekin?

Emaitzarekin pozik gaude, eta eginiko lanaz gustura. Nahiko disko *kañeroa* da, bederatzi kantuk osatzen dute.

ZERTZELADA



'RAISE OF DEATH'

Estiloa: Death, thrash, metal...

Egilea: Dark Code (Bergara).

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 43,41 minutu.

Malenkonia eta bortizkeria bat eginda

Bergarako talde honek oso argi dauka nahi duena, nahiz eta partaideak oso gazteak diren oraindik. Death estiloak gorantz egitea nahi dute eta itsuan sinisten dute horretan, gure bailara honetan halako talde gutxi dauden eta eszena oso-oso txikia den arren. Ingelesez abestutako bederatzi kantu batu dituzte hemen, hondamenditik abiatuta aurrera egitera animatzen dutenak. Death-metala eta ahots guturalak ikur dituzte, baina tartean eskola zaharreko thrasharen autentikotasuna eta heavy epikoenaren ukitua ere oso nabarmen daude jasota. Malenkonia eta bortizkeria biak bat egiten dute.

IKER BARANDIARAN

Zer transmititu nahi duzu zuen abestien bitartez?

Gehienbat, bateriak, Willyk, idazten ditu letrak. Izan ere, gure abestiak ingelesez dira eta hark ondo menderatzen du hizkuntza. Nik neuk ere egiten dut ahalegina, ingelesez erdiz-purdiz egiten dudana arren. Kantu gehienak heriotzari buruzkoak dira, eta, noski, baita bizitzari berari buruzkoak ere.

Metal doinuak gogoko dituztenedako aproposa, beraz.

Bai, hori uste dugu, eta, horregatik, metala eta rocka gustuko dutenei gure kontzertuetara etortzeko gonbita egiten diet, eta baita diskoa erosteko deia ere. Sei eurotan eros daiteke, gurekin harremanetan jarrita (www.myspace.com/darkcodemetal).

Noiz hasi zineten diskoa prestatzan?

Pixkanaka egin ditugu kantuak, batzuek bi urte ere badituzte. Taldea sortu eta urte eta erdi ingurura pentsatu genuen bage-nuela errepertorioa diskoa grabatzeko, eta, hala, 2011ko apirilean ekin genien grabazio lanei. Gure lokaleko txoko bat prestatu genuen horretarako, eta DB Uhinak produkzioaren bitartez egin dugu.

Orain, diskoaren aurkezpen lanetan ibiliko zarete.

Kontzertu bila eta diskoa ahalik eta gehien zabaltzen gabiltza. Dagoeneko hitzartuta ditugu emanaldiak Azkoitia, Donostia eta Bergaran. Gu prest gaude deitzen diguten edozein lekutara joateko.

Oso taldekide gazteak zarete, baina dagoeneko hainbat lehiaketatan parte hartu duzue.

Bai; Danbakan hartu genuen parte, eta baita Espainia mailako *Wacken Metal Battle*-n ere. Azken horretan, gainera, 80 talderen artean finalera iritsi ginen. Ez irabazi arren, oso gustura gelditu ginen eginikoaz, erronka zaila zen-eta.

Zer ikasi duzue lehiaketa horietan?

Nahiz eta irabazi ez, beti segitu behar dela gogor egiten eta ez dela goibeldu behar; esperientzia ederrak izan dira.

Danbaketik ze oroitzen duzue?

Oso ondo pasa genuen. Taldea ezagutzera emateko erreminta ona izan zen. Gainera, taldeko bideoak grabatzeko ere balio izan zigun eta hori guretzako oso ona izan zen.



Dark Code taldeko Etxaniz, Willy, Elorza eta Rodri. | DARK CODE

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Atxondo. 75 m². 3 logela, sukaldea, egongela, komunak, balkoia. Oso eguzkitsua. Kanporea ematen du etxe guztiak. Berogailua. Berriztatua eta altzairuz hornitua. Deitu konpromisobariketaikusi. 180.000 euro. Tel.: 655-73 74 47.

Atxondo. 200 m²-ko txaleta salgai. Sukaldea, bi egongela, lau logela, hiru bainugela (bata logela baten barruan), trastelekua. Altzairuz hornitua. Berogailua, zoru erradiantea eta aspirazio zentrala. Terraza eta 4.000 m²-ko terrenoa. Prezioa: 900.000 euro (negoziazarriak). Tel.: 615-70 12 23.

Berriz. Pisua salgai herri erdian. 71 m²: egongela, sukaldea, 3 logela, komunak eta ganbarak. Bihorma-armairu, berriztua eta eguzkitsua. Aurrealde margotu berria, eta komunitateko gasturik gabe. 193.000 euro. Tel.: 679-86 17 30.

Berriz. Berriz erdian pisu berria salgai. 80 m². Oso kokapen ona. Guztiz jantzia dago. Sukaldea, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despentsa txiki batez). Berogailua, zoru erradiantea da. Oso eguzkitsua da. Tel.: 607-52 24 26.

Bolibar. Etxe zaharra salgai Bolibarren. 34 m² x 3. Teilatua berria eta proiektuagaz. 3 gela eta 40 m² terraza. 150.000 euro. Tel.: 660-35 80 67.

Durango. Pisua salgai Muruetarren. 90 m². Sukaldea eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela barruan). Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia. Eguzkitsua, bista eta kokapen ederrekoa. Ganbara eta garajea. Tel.: 686-13 89 09.

Durango. 98 m²-ko etxebizitza oso eguzkitsua; 3 logela, sukaldea-jangela, egongela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m² eta 8 m²-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz bete eta guztiz jantzia, berogailuaren baldar jarri berria, hormak lau armairu, aluminiozko leihoak, atea eta zorua aldatuta. Garaje eta igerilekuarekin. Tel.: 655-70 46 84.

Elorrio. Zentrikoan den 90 m²-ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, garaje partzela eta trastelekua. 657-79 39 38.

Elorrio. 76 m²-ko etxe berria. Erdigunean. Sukalde ekipatua, 2 logela, 2 komun eta 10 m²-ko trastelekua. Garajea aukera erosteko aukera. Prezioa: 38 milioi. Tel.: 634-45 72 01.

Elorrio. Salgai estreinatzen dagoen 162 m²-ko terraza duen atikoa (73 m²), 2 logela, egongela bat, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekua. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea!. 615-75 59 85 (goizez) eta 636-22 49 02 (arratsalde).

Eskoriatza. Etxebizitza duplexa, 120 m², salgai. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. 679-16 24 96.

Gasteiz. 57 m², egoera onean, kalefakzioa eta ura elektrikoak dira, hegoaldera begira, 1. Solairua, 5 ate pisu bakoitzeko, igogailua, eraikinak 20 eta 30 urte bitartean ditu, 2 logela, 2 komun (biak bainerekin), sukaldea (garbigailua, mikroondasa, etab.) balkoia, moketa logeletan, parketa egongelan eta baldosak gainontzekoan, banakako garajea, itxia, eskiak gordetzeko tokia, pizsina eta belardia urbanizazioaren barnean, aurrean plaza bat dauka, kolunpioekin etab. orain dela urte bat hormak margotu ziren eta zoru aldatu zen, altzariekin. Telefonoa: 665-75 78 07. Posta: marian.formigal@gmail.com.

lurreta. Pisu bat salgai Arriandin, lurretan. 78.000 euro. Tel.: 685-72 80 42.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorenzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. 699-78 47 49.

Ormaiztegui. Etxebizitza salgai. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. Etxe bildua eta argitsua. Bi logela. 160.000 negoziagarriak. 659-75 40 83.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai trastelekuarekin. Igogailua. Tel.: 675-71 72 83.

102. EROSI

Durango. Baserri bifamiliar osoa erreformatzen ditzut, baserri erdiaren truke, durangaldeen. Beste proposamenen bat badaukazu, kontutan hartuko dut. 618-93 62 14.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Bi logelako eta terraza handia duen etxebizitza ematen da errentan. Deitu zenbaki honetara: 665 72 18 59.

Arrasate. Logela bakarreko apartamentua ematen da errentan. Beokuntza zentralarekin, argitsua, ondo kokatua eta merke. 628 22 45 09

Atxondo. Atxondon pisua alokatzen da. 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Telefonoa: 680-42 77 02.

Bergara. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukaldea. Hornitua eta jantzia. 607-32 74 32.

Donostia. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det Donostian, Antigua auzoan bertan. Persona batentzako egokitua, bi planta dauka eta kotxea sartzeko aukera dago. Eguskitza da eta lasaia. Prezio 500 euro. 609-48 11 24.

Durango. Logela bat alokatzen dot 3 logelako pisu batean. Emakumea nahiago. Tel.: 600-45 83 16.

Elorrio. Pisua alokagai herri-gunean. 3 logela, 2 bainugela. Trastelekua. Amueblatua. 600 euro hilean. Deitu zenbaki honetara: 634-45 72 01.

Elorrio. Banako etxea alokagai elorrian. 125 m²-ko etxea, 100 m²-ko sotoa eta 100 m²-ko aterpea. 2.500 m²-ko lursaila. 616-936 351. Manu.

Elorrio. Pertsona batentzako logela alokairuan elorrian. Etxean txakur bat daukat. Deitu zenbaki honetara: 665-72 19 47.

lurreta. Gelak alokatzen dira Maspe kalean, abendutik aurrera. Tel.: 687-58 66 37

Oñati. Errekalde 3an etxebizitza ematen da errentan. Igogailua, oso eguzkitsua, guztiz berritua, oso ondo hornitua eta

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkiaburrak.com



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrости.com

Bergara:

- Lorentxokan pisuak estrenatzeko. 3 logela. 240.481€. PREZIO BEHERAPEN HAUNDIAREKIN!!!
- Lorentxoko 73 m². 2 logela. 227.450€. Aukera ezin hobea.
- Urteagan pisuak estrenatzeko. 195.000€.
- Bidekurutzetan pisuak estrenatzeko. 1,2,3 eta 4 logela.
- Masterreka 104 m². 3 logela. Estrenatzeko. Trastelekuarekin. 294.495€.
- Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.
- Justo Garate Plaza. 80 m². 3 logela. la berria. Garajea aukeran.
- Artzamendi 80 m². 3 logela. Igogailua. Oso ondo. 198.334€.
- Simon Arrieta 90 m². 3 logela. Balkoia, igogailua, berogailu eta trastelekuarekin.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Toki Eder Plaza. 54 m²ko apartamentua. Oso ondo. 126.212€.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailua eta berogailuarekin. Prezio ona.
- San Lorenzo 67 m². Garajearekin.
- Zubiaurre 51 m². 102.000€.
- Herri Lagunak 60 m². 2 logela. Oso ondo. 160.771€.
- Zabalotegi 54 m². Balkoiarekin. 96.000€.
- San Pedro 65 m². 2 logela. Erabat berriztuta. Ganbararekin. 122.606€.
- Dr. Fleming 82 m². + ganbara goian. Duplexa egiteko aukera.
- Burdiñate. 104 m². Garajearekin. Oso prezio ona.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
- Bolu 140 m². duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona
- Ibaragarai 74 m². Igogailua eta garajearekin.
- Burdiñate 53 m². Apartamentua, oso ondo.
- Bidekurutzetan 60 m². obra itxeko. Oso prezio ona.
- Zubiaurre 82 m². Igogailua eta berogailuarekin. 150.253€.

Antzuola:

- Baseria 200 m². 3 logela. Berria. Garajea. Lur sailarekin.
- Buztinzurin apartamentua estrenatzeko. Aukera ona.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aiera eta Errekalde. Etxe onak.

Soraluze:

- Sagar Erreka, Rabal, Axturi eta Rekalde. Etxe onak.

Elgeta:

- Torrealedea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Bergaran, 15 m²ko garaje itxia salgai Ozaetan. Prezio negoziagarria. 655-72 63 13 / 943-76 50 71.

Bergara. Garaje itxia salgai Aranerrekian, Bolu auzoan. Dimensio handikoa: auto bat eta motorra sartzen dira. Prezio negoziagarria. Deitu 20:00ak arte mugikorrera eta ondoren finkora mesedez. 646-92 74 69 / 943-71 52 46.

Berriz. Garaje itxia salgai. 42 m². Ate automatikoagaz. Ura eta argiaren instalazioak iaztik. Komunak eta bodega txiki bat. 2-3 kotxe. Txokoa sukaldeagaz. 615-75 21 36

Durango. Garajea salgai. Montorretan, Simply supermerkatuaren ondoan. 2. lerro, autokarabana sartzeko toki aproposa. Tel.: 652-76 81 31.

Eskoriatza. 15 m²ko garaje itxia salgai Intxaurtueta 23an. 679-16 24 96.

Otxandio. Garaje itxia salgai Otxandion, persianarekin. Tel.: 675-71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje bat alokatzen da Arrasaten. Larrea etxteen atzetik (Usaetxe enparantzan). 60 euro hilabetean. Sergio. Telefonoa: 678 53 82 48. Posta: soliveira@hotmail.es

Bergara. Garaje itxia, 17 m²koa, ematen da errentan Burdinaten. 943-76 06 60.

Berriz. Gabiola kaleko 5. behean. Garaje itxia. 2 kotxe. Kaleko sarrera oinez sartzeko eta atzeko partetik kotxearekin. 660-12 50 70.

Durango. Kotxe partzela alokagai Askatasun etorbidea 11n. 94-681 39 32.

Durango. Garaje itxia alokairuan Sasikoa inguruan. 75 euro. Tel.: 688-80 70 92

Otxandio. Garaje itxia alokatzen da Otxandion. Deitu zenbaki honetara: 675-71 72 83.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garaje baten bila nabil, Bergarako edozein zonatan. 618 90 23 66

3. LOKALAK

301. SALDU

Abadiño. Mekanizazio enpresa salgai, ezin diogulako behar den arreta eskaini. Lan kartera eta onura garrantzitsuarekin. Prezioa: 192.000 euro. Tel.: 615-70 12 23.

Elorrio. 170 m²-ko lokala alokagai edo salgai. Oso toki onean, erdialdean. Eskaparate handiekin. Edozein negozio ipintzeko aproposa. Tel.: 94-658 21 01 (dendako ordutegian).

Gasteiz. Azken erabilera: Tailer mekanikoa, garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditut. Bulegoko altzariak eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsoneri molatua. Hiri erdiguneko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzera ere posible da: 800 euro/hil. Deitu zenbaki honetara: 665-75 78 07 (Ana)

302. ERRENTAN EMAN

ARETXABAleta

Taberna/puba salgai edo errentan. 943 53 38 27

ARRASATE

Taberna ematen da errentan alde zaharrean. 619 91 16 07

305. BESTELAKOAK

Oñati. Lokala daukat partekatzeko moduan. Guztiz hornitua dago. Erdigunean. Deitu 651 70 1741 telefonora.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

BERGARA

Neska behar da harategirako. Euskara beharrezkoa. 615 78 45 75

Bergara. Euskaraz hitz egiten duen emakume bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Harremanetarako deitu 637 77 45 57 edo 678 64 15 18 telefono zenbakietara.

402. ESKAERAK

Abadiño. Persona nagusien zaintzarako, garbiketarako edo umeen zaintzarako lan bila. Orduka, gauz edo asteburuetan. Sukaldatu, plantxa egin,... Ospitalean, garbiketan eta nagusien zaintzan esperimentzia. Tel.: 696-75 35 30.

Aramaiio. Aramaioko neska gaztea, haur hezkuntzan diplomata, goizetan haurrak zaindu eta eskolara eramateko prest. 645-73 22 72.

Arrasate. Emakume arduratsua etxeko lanak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest. 656-77 53 37.

Arrasate. Emakume arduratsua garbiketa lanak edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu zenbaki honetara: 617-30 02 49.

Arrasate. Neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko edota umeak zaintzeko prest, esperimentzia handikoa. Deitu zenbaki honetara: 618-41 24 79.

Arrasate. Emakume euskalduna. Umeak zaindu eta eskolara eramango nituzke. Orduka plantxa egiteko ere prest nago. 626-29 98 43.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa egin edo bestelako etxeko lanetarako, orduka. 699-54 17 27.

Arrasate. Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 682-31 97 37 / 610-99 70 46.

Arrasate. Neska gertu etxe zain atariak garbitzeko. Erreferentzia onak ditut. 610-82 02 17.

jantzia. Hiru logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Nahiago bertako pertsonak. Deitu zenbaki honetara: 677-07 19 37.

Oñati. Kalebarrian 5 urte dituen etxebizitza berria ematen da errentan. Guztiz jantzia. Oso erosoa bizitzeko. Bigela, komunak, eta sukalde eta egongela bateratuak. Bi balkoio ere baditu. Deitu zenbaki honetara: 605-76 63 87.

Zestoa. Etxebizitza berri eta eguzkitsua alokagai Arteaga kalean. Hiru logela eta bi bainugelarekin. Garajea eta trastelekua aukeran. 656-752 602 / 659-837110.

Oñati. Lokala daukat partekatzeko moduan. Guztiz hornitua dago. Erdigunean. Deitu zenbaki honetara: 651-70 17 41.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza bila, errentan. Hiru logelako. Oso arduratsua. Deitu zenbaki honetara: 617-86 00 55.

Durungaldea. Pisu bila nabil durango edo inguruetan. Pertsona arduratsua. Deitu zenbaki honetara: 617-86 00 55.

Elorrio. Alokatzeko pisu bila nabil Elorrian. Altzariekin. Tel.: 94-658 21 91.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean.

Mutil batentzat. Deitu zenbaki honetara: 678-73 66 54.

Arrasate. Neska arduratsua behar da etxebizitza osatzeko. Erdigunean dago, etxe berria da eta egoera oso onean dago. 606-88 94 14.

Arrasate. Pixua osatzeko jende bila gabiltza. Guztiz hornitua: garbigailua, ontzi-garbigailua, berokuntza zentrala... 250 euro hilabetero. gastuak barne. Lorea: 620-52 94 98.

Arrasate edo Bergara. Logela bila nabil. Bergaran edo Arrasaten logela edo konpartitzeko pisu baten bila nabil, nahi eta nahi ez kontratouarekin. 648-01 32 39. **Bergara.** Logela ematen da errentan pertsona bakar edo bikotearentzat. Deitu zenbaki honetara: 699 09 46 26

Berriz. Logela alokagai baserri batean. Estreinatzeko eta leku paregabea. Aukeran, nahiago emakumea. Interesatuak deitu telefono honetara: Deitu zenbaki honetara: 619-66 58 57.

Durango. Mutil gaztea pisu konpartitu batean logela bila. Durango edo lurretan. Deitu lasai. Deitu zenbaki honetara: 658-42 86 12 edo 658-71 16 42 (Malick/Iñaki).

Eskoriatza. Pertsona bat behar duguz plaza dagoen etxebizitza osatzeko. Guztiz eraberritua. Leire. Deitu zenbaki honetara: 685-73 60 57.

Arrasate. Arrasateko esperientzadun 28 urteko mutila gertu barrako zerbitzari, furgonetako gidari banatzailea, motozikleta gidari banatzailea, banatzailea orokorrean, pintore eta arotza laguntzailea, komertzio dependiente moduan lan egiteko. 677-61 95 92.

Bergara. Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko goizez zein arratsalde. 605-51 96 89.

Bergara. Eskarmentu handiko emakumea, geriatría ikasketaduna, orduka, etxean bertan bizi izaten zein asteburuetan laneako gertu. Urte asko daramatzat hemen eta legezko paperak ditut. 617-12 61 44.

Bergara. Goizetan garbiketa lanak egin edo nagusiak zainduko nituzke. 680-77 06 46.

Bergara. Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Deitu zenbaki honetara: 610-34 97 88.

Bergara. Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Erreferentziaduna. Deitu zenbaki honetara: 669-10 13 94.

Debagoiena. Denetarik garbiketarako egiteko nituzke. Maite. 696-88 93 73.

Debagoiena. Mutil gaztea lan desberdinak egiteko gertu. Mekaniko lanak, garbiketa, pertsona nagusiak zaindu... 645-54 43 25.

Debagoiena. Elgeta, Bergara edo Arrasate. Emakume euskalduna gertu lanerako. 606-50 02 67.

Debagoiena. Emakume euskalduna lanerako prest. Emakume heldua, pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. 666-26 07 62.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketarako eta abar. 638-59 04 71.

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak zaindu, atari zein elkartek garbitu edo bestelako lanerako. 685-42 72 80.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo taberna, bulego eta abarrak garbitzen lan egiteko nuke. Tel.: 943-10 96 89 / 671-18 50 83.

Debagoiena. Etxeko lanak eta garbitasunak egingo nituzke. 646-10 21 66.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketarako eta abar. 638-59 04 71.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egiteko nuke etxean bertan bizi izanda. Erizain laguntzailea naiz. Etxeko lanak ondo egiten ditut. Baserrietan ere lan egiteko nuke. Erreferentziak ditut. 618-93 59 29.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zaintzeko orduka edo asteburuetan ere bai. Deitu zenbaki honetara: 606-54 89 90.

Debagoiena. Emakumea etxeko lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. 680-12 73 16.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zaintzeko orduka edo asteburuetan ere bai. Deitu zenbaki honetara: 690-71 94 45.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanak egin edo nagusiak zaindu zein laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943-71 53 74 / 695-73 87 95.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu umeak eta nagusiak zaindu eta etxeko garbitzeko. Informeak ditut. Esperientziaduna. 671-35 22 60.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, garbiketa eta abarrak egingo nituzke. Gozogintzan aditua naiz. Orduka zein egun osoz. 686-66 80 63.

Debagoiena. Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota klase partikularrik emateko. Magisteritzan diplomaturik eta hezkuntza berezian espezialista. 600-39 47 77.

Debagoiena. 40 urteko emakumea gertu nagusi zein umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 620-43 85 40.

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusiak zaindu eta etxeko garbiketarako egiteko. Eskarmentu handikoa. 696-84 19 51.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketarako, nagusiak zaindu zein tabernetan lan egiteko. Egun osoz zein orduka. 605-41 88 20.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Deitu zenbaki honetara: 651-38 85 38.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Legezko papereak eta gidatzeko baimena dauzkat. Eskarmentu eta erreferentziak onak. 603-14 59 17.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke asteburuetan, jaiegunetan edo etxean bertan. Gueuz ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Deitu zenbaki honetara: 638-13 97 28.

Debagoiena. Neska arduratsua eta atsegina garbiketa, ume zein nagusien zaintza edo bestelako lanerako gertu. Etxean bizi izaten edo orduka. Magaly. 615-06 28 04.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, garbiketa edo nagusiak zaintzen jardungo nuke. 691-03 25 02 / 943-54 09 41.

Debagoiena. Haur hezkuntza ikasia eta esperientzia duen neska euskalduna goizez zein arratsalde haurrak zaintzeko prest. 680-34 29 60.

Debagoiena. Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketarako orokorrek egiteko, esperientziaduna. Lanean hasteko prest. Deitu zenbaki honetara: 672-88 01 01.

Durungaldea. Interna edo orduka lan bila dabilen neska. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketarako lanerako. Pertsona nagusien zaintzan esperientzia: 689-98 72 06.

Durungaldea. Ume edo nagusien zaintzarako edota garbiketarako lanerako prest. Interna edo externa. Gueuzedo asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. 628-00 22 17.

Durungaldea. Emakume arduratsua nagusien edo umeen zaintzan, etxeko garbiketarako, portaletan, tabernetan, ... Lan egiteko prest. Orduka edo jardunaldi osoan. Erreferentziak. Tel.: 620-82 85 79.

Durungaldea. Bertako emakumea ume edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Goizez, arratsalde edo gueuz. 94-658 33 32.

Durungaldea. Etxeko laguntzaileak gara. Pertsona nagusiak zaintzeko prest gaude: etxeko lana, zainketak, errezetak kudeatzea, gauak ospitaleetan, aseok... Durungaldean eta Bilbon. Tel.: 690-28 60 71

Durungaldea. Interna edo externa modura lan bila. Ume edo nagusien zaintzan edota garbiketarako lanerako. Orduka, asteburuetan edota gueuz ere. Erreferentzia eta esperientziarekin. Deitu zenbaki honetara: 679-71 64 42

Durungaldea. Neska euskalduna asteburuetan umeak zaintzeko prest, bai egunez zein gabez. Tel.: 628-24 36 02.

Durungaldea. Emakume arduratsua lanerako prest, pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko edota garbiketarako lanerako. Erreferentziaduna. Mugitzeko arazorik ez. Tel.: 660-64 20 98.

Durungaldea. Ipuin kontaketa eta monologo humoretsuak eskaintzen dira. Tabernetan,

ezkontzetan, juergetan... Tel.: 651-36 97 69. Roman

Durungaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. Deitu zenbaki honetara: 638-20 34 50.

Durungaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. Deitu zenbaki honetara: 689-30 85 82.

Durungaldea. Emakume arduratsua umeen edo nagusien zaintzan edota garbiketarako lanerako prest. Interna, externa edo orduka. Erreferentziak eta esperientzia. Deitu zenbaki honetara: 659-73 92 65.

Durungaldea. Goizez, arratsalde zein gueuz lan egiteko prest. Garbiketa lanerako edota gueuz pertsona nagusiak zaintzeko. 690-68 73 95.

Durungaldea. Illeapaintzaile behar da. Heziketa izateko beharrekoko da. Orduetara eta soldata negoziagarri. Langilearen aurretiazko lanak eta esperientzia kontutan hartuko da. 94-621 64 91.

Durungaldea. Interna edo orduka umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko garbiketarako lan bila. Deitu zenbaki honetara: 646-20 72 71.

Durungaldea. Nagusien zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Esperientzia eta erreferentziarekin. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:30 arte. Tel.: 633-03 86 09.

Durungaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako edota garbiketarako lan bila. 14:00etatik 20:00etara. Esperientzia eta erreferentziak. Deitu zenbaki honetara: 638-43 79 01.

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Klase partikularrik emateko prest ere bai. 646-53 83 90.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna edo externa. Tel.: 683-47 28 05.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna. 632-11 77 23.

Durango. Garbiketa edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxean edo portalen garbiketara, ospitaleko edo etxeko zaintzak, ... Jardunaldi osoa edo erdia, gueuz, orduka, ... Esperientzia. 690-68 73 95.

Durango. Garbiketa edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxean edo portalen garbiketara, ospitaleko edo etxeko zaintzak, ... 16:00etatik 20:00etara. Esperientzia. 646-92 52 15.

Durango. Nagusien, umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila. 09:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 22:00etara. Erreferentziak eta esperientzia. 681-21 82 30.

Durango. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketarako lan bila. Interna, externa, orduka edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 619-15 58 04.

Durango. Bulegoan, etxean, portalen, ... Garbiketarako edota nagusien zaintzarako lan bila. Jardunaldi erdian, goizez prefe-

rentziaz, astelehenetik zapatu eguerdira. Esperientzia. Tel.: 676-54 66 91. Lola

Durango. Goizetan umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest nago. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezian diplomaturik; neure kotxea daukat. 695-75 23 25.

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Gitarra eta baxu klaseak. Gitarra eta baxu klaseak ematen ditut, Durangon. Tel.: 616-31 02 49 edo 94-620 05 98. karsaso4@hotmail.com

Debagoiena. Ordenagailua ondo erabiltzen ikasi nahi duzula? Internet, web orriak egin eta abar. Eskola partikularrik zure ordutegira egokituta. Edozein adin. Merke. 679 74 00 61

Durango. Umeak zaintzeko edo partikularrik emateko prest. Magisteritzan diplomaturik. Ingelesko eta euskerazko tituluarekin. Esperientzia. Tel.: 657-77 61 71.

Durango. Erizaintzako ikasle euskalduna LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrik emateko prest. Esperientziaduna. Deitu zenbaki honetara: 685-73 70 15 (Ane).

Villabona. Ingelesko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeko edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@hotmail.com

6. MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana salgai. 2009 urtekoa. 6 plaza. Egoera onean. 652-76 81 31.

Autokarabana salgai. Autokarabana Benimar Sport 310 salgai. 50.000 km. Hiru urtekoa eta 6 pertsonentzako lekua. Ekipamendu osoa eta oso ondo zaindua. 31.000 euro. Deitu zenbaki honetara: 676-61 71 54 edo 676-98 33 06.

Autokarabana salgai. Autokarabana salgai. 2002. urtekoa. 100.000 km. 21.000 euro. 607-86 32 24.

BMW f 650 gs 2004 33.000km. Gutxi erabiltzen dudalako, BMW f650gs saltzen dot, oso ondo zainduta. Abs, kalefakzioa eskuetan, pantaila altua, warning, givi maletategia (bi kasko gordetzeko), 3.000 km dituzten eruberrak. IAT-a 2013ko uztailean arte. 44-45eko botak eta XL neurriko kaskoa opari. Deitu zenbaki honetara: 665-71 29 31.

Smart kotxea salgai. Smart Fortwo Coupe Passion salgai. 62 zp. 48.000 km. la berria eta oso egoera onean. 676-61 71 54 edo 676-98 33 06.

Suzuki sj 410 salgai. Suzuki sj 410 hard top (samurai) salgai. Gasolina. 1.000 cc. 45 zaldi. IAT-a urterto. Tel.: 667-48 51 66 edo 667-48 54 36.

125eko motorra salgai. Yamaha ybr 125 salgai. Kotxeko karnetaz eraman ahal da, 10.000 km eta egoera ezin hobean dago. Deitu eta probatu. 676-90 01 05.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ahuntzak. Salgai, bakoitza bi antzumerekin. 180 euro. 678 25 52 35

Ahuntzumeak salgai. Ahuntzume bi saltzen dira Mallabiko Elgetzu baserrian. Tel.: 606-70 91 18.

Artzai txakurra salgai. 3-4 urteko euskal artzai txakur Mantsoa salgai. Tel.: 692-81 90 35. Amaia

Behorrak salgai debagoienan. Bi behor salgai, prezio onean. 695-73 67 61.

Moxala salgai. Moxala salgai. Okelarako. 9 hilabete. 270 euro. Deia 15:00etatik 18:00etara. 679-23 47 46.

Txakurra salgai. Gold Terrier bat saltzen dut. 4-5 urte ditu. Zuria. Tel.: 653-72 70 18.

703. EMAN

Arratoi txakurra opari. 7 hilabete arratoi txakur emea opari. Beltza eta bizia da eta oso polita da. 655-71 39 27.

Artzai txakurra opari. Bi hileko artzai txakurra oparitzen dugu. Nahi duenak deitu 94-681 43 24 telefonora.

Txakur kumeak opari. Azaroan jaiotako txakurkume oparitu nahi ditut. Ama labradorea da. Txakur bat, marroia, arra da. Eta bestea, beltza, emea. Tel.: 638-98 59 30

Txakurkumeak ematen dira opari. Ama Setter Ingles arrazakoa. Hiru hilabete dituzte. Deitu zenbaki honetara: 685-72 46 86 / 943-79 96 55.

8. DENETARIK

801. SALDU

Abadiño. Lursail salgai Matienan (Abadiño), Arzubia kalean, 2.000 m², erreka ondoan eta bide ertzean. Apropo ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolaz hornitua. Matienatik hiru minututara oinez. Deitu zenbaki honetara: 658-75 65 12.

Altzariak salgai. 1,50m-ko haritzeko ohea saltzen da, bi ohe-mahairekin batera: 400 euro. Koltxoi berria: 100 euro. 6 kajoiidun sinfoniera: 150 euro. Banak markako apur rustikoak: 400 euro. Mahai rustikoak: 100 euro. Tel.: 610-41 55 11

Amairuren lurra salgai. Amairuren lurra salgai, familia bakarrek etxebizitzarako egiteko baimenarekin. Ikaragarri toki eder. Harremanetarako deitu 667-63 36 56 telefonora.

Behoko sua, kristalduna, salgai. Behoko sua, kristalduna, salgai. Erdi berria. Haize beroa botatzeko zuloekin. 66x80x50cm. Tel.: 619-48 50 58.

Bernedo. Lursail eraikigarria Urturn salgai dago, Bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta Izkiko golfetik 3 minututara baino ez. 308m² eraikitzea posible da, 7m-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitzak batzuk ditut; baita golfeko hotela ere. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana)

Bikiendako Firstwheels karro urdina. Bikiendako firstwheels karro urdina. Oso

gutxi erabilia. Bijesarleku, bi kapazo, plastikoa, bi zakutxo zuri (piketzkoak) eta moskitoendako sareak. la berria. Begiratu web-eko argazkiak. 450 euro. Deitu konpromiso barik. 659-34 72 81 (Iñaki).

DVDa. LG DVD berria salgai. Prezio interesgarria. Deitu: 943 77 00 26

Egongelarako aulkiak salgai. Zure egongelarako zoragarririk diren 5 aulki saltzen dira. Oso egoera onean eta prezio ezin hobean: 60 euro bostak. Tel.: 615-72 62 52.

Eskiak salgai. Eski Alpinoko eskia saltzen ditut. Dynastar markakoak, look fijazioekin. Kantoak zorrotzuri berri eta enzeratuak daude. 1,90 neurrikoak dira (pertsona altu samarrentzako). Eskiatzen hasteko aproposak. 50 euro. Harremanetarako: aitz2gain@yahoo.es

Eskiatzeko materiala. 10-12 urteko umearendako praktika, 36 neurrikoa, eta snow taula salgai. 1,25 neurrikoa, lokailuekin. 656-78 64 64.

Esnea ateratzeko gailua salgai. Esnea ateratzeko gailua salgai, Medela Swing markakoa, merkatuko onena. Egoera onean. Automatiko. Honekin batera avent markako esnea ateratzeko gailu manuala oparitzen da. 60 euro. Tel.: 607-86 32 24.

Furgonetako jarlekuak salgai. Traffic furgonetako atzeko jarlekuak salgai. Hiru plaza da. Erabili gabea. 400 euro. Argazkiak ditut. Tel.: 650-73 51 56.

Gitarra elektroakustiko. berria salgai. Tanglewood model premier Twissas. 1012929 seriekoa. 620 64 96 37

Hozkailu konbinatua salgai. Hozkailu konbinatua salgai. Hile baten bakarrik erabilia. Martxoan erositako. Ecron markakoa. No frost eta 2 urteko garantiarekin. Saltzeko premia. 300 euro, negoziagarriak. 691-35 40 31.

Lasterka egiteko zinta salgai. Pro-form 360 pultsazio. 400 euro (negoziagarriak). Tel.: 688-64 05 05.

Mendi eskiko botak. Mendi eskiko botak debagoienan. Scarpa Avant mendi eskiko botak saltzen ditut egoera onean. 75 euro. 43 zenbakia. Kontakatzeko deitu zenbaki honetara: 652-72 66 97.

Mountain bike a salgai. Mountain bike horia salgai. 3 plato eta 8 pini. 6tik 10era urteko ume batentzat. 75 euro. Tel.: 94-682 07 67 (Igor).

Paratxokea. Volkswagen Golf 3 autoaren aurreko paratxokea salgai. 50 euro. 665 74 51 80

Psp go-a salgai. Debagoienan. Berria. Prezio interesgarria. 943-77 00 26.

Piano elektriko salgai. Yamaha Clavinova clp 150 piano elektriko salgai. Kontakta: 650-17 22 85 edo stratokaster@gmail.com

Paratxokea. Volkswagen Golf 3 autoaren aurreko paratxokea salgai. 50 euro. Deitu zenbaki honetara: 665-74 51 80.

Solariuma. Gorpuztuz guztiko Philips HB solarium tolesgarria sagai. Egoera onean. 3 lanpara Philips Cleo HPA Flex-Power ditu, azalera 60cm. Deitu eta probatu. 1200 eurotan baloratua.

500 euroan salgai. Negoziagarria. Deitu 685 72 46 86 edo 943 79 96 55 zenbakietara.

Taxi lizentzia. salgai Arrasaten. 606 76 36 85

Trabesiako botak. Trabesiako botak salgai. Nordica tr10. 42-43 oinarentzako. Hiru fijazio lotura. 90 euro. Harremanetarako: aitz2gain@yahoo.es

Trikitixa salgai. Interesaturik bazaude hots egin 610- 81 28 88 telefonora.

Umeak eramateko. Jane etxeko kapazoa, Maxi Cosia eta aulkitoxa salgai. Oso ondo zainduta. 199 euro. 653 722 254 edo marysea15@hotmail.com

Xurgagailua. (aspiradora) salgai. Bigarren eskuko, ia erabili gabekoa. Akaroen aurkako eta kontsumo baxukoa. 659 62 02 49

802. EROSI

Bizikleta. 4 urteko mutikoarentzat bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. 649 00 53 42

Bizikleta. Esekidura bikoitzeko bizikleta erosiko nuke. Egoera onean dagoen bizikleta baldin badaukazu eta saldu nahi baduzu, email bat bidali mesedez. laguntzen@gmail.com.

Lursaila erosiko nuke Bergara inguruan (Bergara, Arrasate, Oñati, Elgeta, Angiozar, Antzuola, Osintxu...). Beharrezkoa kotxek bertara heldu ahalizatea. 669 17 09 51

806. GALDU

Telefono mugikor berria galdu dut. Errege bezperan, urtarilaren 5ean,

Googlek erabilpen baldintzak aldatu eta datuak gurutzatzen hasiko da

- ▶ Youtube, Gmail ala Picasako datuak gurutzatuko dituzte
- ▶ Google-eko kontu batera konektatzea nahikoa izango da

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Google-ek ez du zifra orokorrik aspaldi eman baina orain dela bi urte 200 milioi e-posta kontu zeuden Gmail-en eta orain dela gutxi esan dute Google+ sare sozialak 90 milioi erabiltzaile dituela. Politika aldaketak beraz erabiltzaile askori eragingo dio

eta erabakiak hautsak harrotu ditu komunitate askotan. Erabiltzaile asko, zerbitzu ugari eta kontu mota ezberdinak baitaude Google-en ekosistema osoan.

Google-etik diote Buzz zerbitzua-ekin ikasi zutela erabiltzaileek argi eta garbi izan behar dituztela erabilpen baldintzak eta

“eskuragarriago eta ulergarriago” egin beharra zeuzkatela. Martxoaren lehenean sartuko dira aldaketak indarrean.

GMail, Youtube, Picasa...

Google Plus eta Gmail zerbitzuez gain, Picasa eta Youtube-eko erabiltzaileei ere eragingo diete

baldintza berriek. Aurrerantzean zerbitzu horietako guztietako erabiltzaileen datuak gurutzatu ahaliko ditu Google-ek, guztiaren jabeak, beti ere, azpimarratzen dutenez, "erabiltzaileari ahalik eta zerbitzurik aberasgarriena emateko" helburuarekin. Lokalizazio datuak ala erabiltzen den gailuari buruzko informazioa jasoko dira. Bilaketa lehentasunak, e-postaren erabileran oinarritutako ohitura pertsonalak edota Google Calendar egutegiko datuak erabiliko dituzte; zuzenean erabiltzailek zerbitzu horietan ematen duen informazioa da hori, baina, baita, ezkutuago geratzen direnak ere jasoko ditu Google-ek,

esate baterako, IP helbidea ala telefono zenbakia, mugikorretik jardunez gero, lokalizazio datuak ala erabiltzen den gailuari buruzko informazioa.

Android sistema

Google-en sistema eragileak berez eta automatikoki ez omen du, azaldu dutenez, zuzenean erabiltzailearen daturik emango, beti ere, bilaketa bat edota e-posta Gmail kontu batetara konektatuta egiten ez bada baina zerbitzu gehienak erabiltzeko Google-en konturen batera ala bestera konektatu egon beharra dago; e-posta mezuak kontsultatzea da adibide ohikoena.

Twitter-en gordailua egingo du IBM enpresak

J.B. | ARRASATE

Twitterreko jardun globala aztertzen ibili da bi urtetan IBMko zortzi zientzialarik ostaturako

taldea eta bertan esaten den "zarata" ala benetan balioa duen diskurtsoa den jakin guran. Horretarako mezuak ulertzeko eta

bertan adierazten dena baloratze-ko sistema inteligentek sortu dituzte. Makina horiek gai ei dira sentimenduak antzemateko.

'Tweet' guztiak artxibatu

Honekin beste proiektu handiago bat daukate eskuen artean IBM enpresakoek, eurak arduratuko baitira Estatu Batuetako Kongresuko liburutegiak 2006tik honako tuitak artxibatzeaz.

Bideo-jokoak aurtengo Komunikaldiaren ardatz HUHEZIn

Aurtengo Komunikaldia jardunaldietan bideo-jokoak hartuko dituzte gai moduan, hezkuntzarekin duten loturan sakonduz, martxoaren 21ean. Cretivity Zentrum-eko Jone Zubiagak, Delirium Studios-eko Asier Quesadak eta Carlos Gonzalez Tardonek egingo dituzte goizeko berbaldiak. Eguerdian bideo-jokoaren demok erakutsiko dira eta arratsaldean mahai ingurua egongo da Igor Leturia, Iruri Knor (Ideateca), Juan Luis Laskurain (DigiPen) eta Hafo (Dada Company) alorreko profesionalekin.

Ikerlariek aurkitu dituzten bitxikeriak: Kate handiak eta itxoite-denborak

STARBUCKS



Segunduko 10 tweet argitaratzen dira Starbucks kafetegi katea aipatzen dutenak. Ondo ala txarto, baina etengabe da Starbucks hizpide Twitterren.

WILARAK AIREPORTUETAN



Erabiltzaileen twitetan jasotako informazioarekin eta erabiltzaileei galdetuta hegaldietako ilaretan itxaron beharreko atera dezake IBMren sistemak.

"TRISTE NAGO"



Antza, jendeak egoera tristeak adierazten ditzuzte mezuak gehiagotan botatzen dituzte alaitasuna ala poza adierazten dutenak baino. Sentimendu negatiboak adierazteko joera handiago dago.

LADY GAGA



Abeslari ezagunaren jarraitzaile kopurua azkarrago hazten da twitterreko kontu berrien kopurua bera baino.

HIZKERA ETA LEKUA



Sistemak erabiltzaile estatubatuarren hitz motak eta esaldiak aztertuta, haiek jatorria asma dezake, azentuaz gaindi.



TWIT-EN LIBURUTEGIA
2006tik argitaratutako twit guztiak Estatu Batuetako Kongresuko liburutegian artxibatuko dira, digitalki.

'Ahanztura Eskubidea' erregulatuko du Europar Batasunak lege berri batekin

Justizia Komisarioak dagoeneko aurkeztu du proposamena

J.B. | ARRASATE

Helburua da erabiltzaileei euren datu pertsonalen jabetzaren kontrola itzultzea eta sareko enpresek kudeatzen duten informazio pertsonal kopuru eskergari ere zelanbaiteko araudi bat ezartzea. Lege proposamenak dakarren berrikuntzetako bat aitaturiko *Ahanztura Eskubidea* da eta legea onartzekotan edozein sare sozial edo enpresak derri- gor ezabatu beharko ditu erabiltzailearen datuak hark eskatutako momentu berean. Viviane Reding komisarioak dio datu pertsonalak beti direla erabiltzailearen jabetzakoak eta behin hirugarrenen bati emanda ere, erabiltzaileak hala eskatuz gero, ezabatu egin behar direla datuok. Gainera, enpresak erabiltzaileak eskatu eta berehala egin beharko dute ezabaketa eta ez denbora batera, Twitter eta Facebook-ek bezala.



Viviane Reding. | PARLAMENTU.EU

Megauploaden itxierak P2P sareak atzera haztea dakar

J.B. | ARRASATE

Megaupload itxi eta gutxira p2p (erabiltzaileetik erabiltzaileera konentatzeko) sareen banda zabalera okupazioa %15 haztera heldu da. Torrent fitxategien bitartez egindako partekatzeak dira gehien bat e-Mule edo Ares aplikazioekin.

Megaupload itxi eta berehalakoa izan da hazkunde Internet Observatory erakunde independenteak kaleratu dituen emaitzen arabera eta eta Bit Torrent aplikazioaren bitartez egin dira deskarga gehienak azken egunetan. P2P aplikazioen zerrandan bigarrena eDonkey da eta askoz ere erabilpen maila apalagoan Pando eta Ares daude. IRC txatek ere gora egin dute epe berean.

Larrialdi abisuak emango ditu Google Mapsek

Google Public Alerts izenarekin, lurrikara, tornado edo uholdeen gaineko informazioa ere emango du aurrerantzean Google Maps aplikazioak. Momentuz Estatu Batuetako zerbitzu meteorologikoko eta alerta zentroetako informazioa emango du eta, hortaz, Estatu Batuetaralo soilik egongo dira eguneraketak. Momentuz gainera mahaigaineko bertsioan soilik erabil daitezke eta ez dago mugikorretarako aplikazio oraindik merkaturatu.

Liburutegi musikala jaisteko aukera ematen du Google Music-ek

Lainora igo daitezkeen moduan, aurrerantzean musika liburutegia jaitsi ere egin daitezke, oso osorik Google Music zerbitzutik bertatik. Music Manager aplikazioa behar da horretarako eta Google Music Store-en erositakoak eta ordenagailutik igotakoak, biak, jaits daitezke disko gogorrera. Sistema honek segurtasun kopia baten alternatiba izan gura du eta horregatik sistema bakarrera egin daitezke kopia, artxiok ezabatu ala diskoa izorratzen denean.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON



'Prime time'-aren bila

Pello Sarasolaren agerrialdi publiko txiki-txoa ekarri nahiko nuke lerro hauetara. Antena3 utzi eta ETBko txalupatxoaren gobernatzera bueltatu da programazio zuzendaria. *Berria*-n argitaratu zen Sarasolaren elkarrizketak ETB1en etorkizuna baikortasunez begiratzera animatu ninduen berriro.

Apustu ausarta egin nahi dute euskarazko katearen *prime time* ordutegia indartzeko. Horrela, bada, Iban Garateren profesionaltasunari plaza emango dio *late night show* batek otsaletik aurrera, *Ai ama!* izenarekin.

Aipatu dute ere *Bi eta bat* saioaren *remake*-a egingo dutela, fikzio horrek arrakasta itzela izan zuen bere garaian eta pertsonaien itzulera oparoa espero du Sarasolak.

ETB1en *prime time*-a sendotzearen erabakia ezin da epaitu merkatuaren joko-arraren ikuspegitik, ordu horretan beste kateen konpetentzia izugarria da-eta.

Baina errepresentazioaren aldetik ezinbestekoa da erabakia. Izenik ez duena ez dela existitzen diote, eta euskarazko *prime time* duin baten beharra badagoela begitantzen zait.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 30



Maria Izaga aramaioarra

19:42

Adele abeslariaren kantua abestu duen Maria Izaga aramaioar gaztea elkarrizketatu dugu *Magazinea* saioan.

12:25 *Magazinea*

13:25 Onein

13:50 Kantari

14:23 Walker: Baliarrain

14:44 Berriak

15:14 Ikusmira: Alkoholiko anonimoak

15:41 Ur eta lur

16:11 Hamaika.bit

16:44 Berriak

17:14 Bizitegia

17:44 28. Klip

18:08 Berbetan: Xabier Amuriza

18:47 Berriak

19:12 Kantari

19:42 *Magazinea*

20:42 Harmailatik

21:27 Beranduegi.tv

21:47 *Magazinea*

22:47 Harmailatik

23:32 Gipuzkoa Kultura

MARTITZENA, 31



Iñaki Muruari elkarrizketa

19:45

Bertsozale Elkarteko presidentea da Murua. 25 urte betetzen dute aurten, eta zapatuan jaialdia egin zuten Donostian.

12:30 *Magazinea*

13:30 Harmailatik

14:15 Kantari

14:42 Berriak

15:12 Beranduegi.tv

15:33 Harmailatik

16:16 Onein

16:42 Berriak

17:12 Bizitegia

17:42 Harmailatik

18:27 28. Klip

18:51 Berriak

19:18 Kantari

19:45 *Magazinea*

20:45 Erreportajea: Kupeletik kupelera

21:25 *Magazinea*

22:25 Bizitegia

22:55 *Magazinea*

23:55 Gipuzkoa Kultura

EGUAZTENA, 1



'Kupeletik kupelera'

22:25

Txakolin eta sagardo berriari buruz jardungo dugu eguaztenean eskainiko dizuegun *Kupeletik kupelera* erreportajea.

12:20 *Magazinea*

13:20 Erreportajea: Kupeletik kupelera

13:58 Beranduegi.tv

14:17 Kantari

14:47 Berriak

15:17 Gipuzkoa Kultura

15:47 Onein

16:15 Erreportajea: Kupeletik kupelera

16:55 Berriak

17:25 Bizitegia

17:52 Walker: Baliarrain

18:13 Harmailatik

18:56 Berriak

19:21 Kantari

19:46 *Magazinea*

20:46 Berbetan: Xabier Amuriza

21:25 *Magazinea*

22:25 Erreportajea: Kupeletik kupelera

23:05 *Magazinea*

EGUENA, 2



'Wilt' antzezlan hizpide

22:15

Ados antzokian *Wilt* antzezlan aurkeztuko dute. Tom Sharpe-ren izen bereko nobelan oinarritutako antzezlan da *Wilt*.

12:30 *Magazinea*

13:30 Hamaika.bit

13:55 Kantari

14:20 Bizitegia

14:45 Berriak

15:15 Onein

15:42 Berbaz

16:42 Berriak

17:12 Kantari

17:42 Walker: Baliarrain

18:03 Beranduegi.tv

18:23 Ikusmira: Alkoholiko anonimoak

18:50 Berriak

19:20 Kantari

19:45 *Magazinea*

20:45 Hamaika.bit

21:15 *Magazinea*

22:15 Gipuzkoa Kultura

22:45 Erreportajea: Kupeletik kupelera

23:25 *Magazinea*

00:25 Berbetan: Xabier Amuriza

EGUBAKOITZA, 3



'Beranduegi.tv' saioa

18:21

Argiak ekoiztutako *Beranduegi.tv* saio fresko, umoretsu eta alaiarekin gozatu ahal izango duzue egubakoitzean 18:21ean.

12:30 *Magazinea*

13:30 Gipuzkoa Kultura

13:55 Kantari

14:22 Onein

14:47 Berriak

15:14 28. Klip

15:38 Bizitegia

16:08 Kantari

16:38 Berriak

17:11 Esatea libre

18:21 Beranduegi.tv

18:41 Berriak

19:16 Kantari

19:48 *Magazinea*

20:48 Gipuzkoa Kultura

21:18 *Magazinea*

22:18 Hamaika.bit

22:45 *Magazinea*

23:45 28. Klip

ARRASATE IRRATIA

Adabegi taldearen kontzerturako sarrerak ditugu zozketan

Kooltur egitasmoaren barruan, Adabegi taldeak kontzertua eskainiko du gaztetxean. Perkusioa, flamenkoa eta musika afrikarra batzen dituzte. Kontzertura joan nahi baldin baduzue, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera; egue-nean egingo dugu zozketa.

Mexikoko Twin Tones taldearen kontzerturako sarrerak

Amaia antzokiko *hall*-ean, egubakoitzean, otsailak 3, 20:00etan, Mexikoko Twin Tones taldearen kontzertua izango da. Sarrerak ditugu irratian, eta egubakoitzean zozkatuko ditugu. Zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com*-era.

AUKEAko kirol teknikariari elkarrizketa gaur

Amaia Zabaleta AUKEAko kirol teknikaria elkarrizketatu dugu gaur, astelehena, Arrasate Irratian. Erabiltzaileei egin dieten inkestaren emaitzen berri emango digu eta antolatu dituzten doako ikastaroen gainean ere jardungo dugu. Hori eta gehiago, *Igo autobusera!* irratsaioan, 10:30ean.

TELE-ALBISTEAK

'Lokalero' saltseroen bila dabilta ETB3n bigarren edizioarako

Lehenengo edizioako arrakasta ikusita, udaberrian hasiko dira berriro 'Lokaleroak' saioak emititzen

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Duela gutxi jakin genuen ETB3ko *Lokaleroak* saioaren lehenengo denboraldiko irabazleak norzuk ziren. Saloura bidaia Zornotzako *Damasy* lokaleko kideek eskuratu zuten eta Gernikako nesken *Txark* izeneko lokaleko lagunek bazkari eder batez gozatu dute Olaizola sagardotegian.

Sari horiez gain, gustuko lokalari botoa eman dioten pertsonen artean Buatxabal moda-etxe lesakarraren kamisetak zozketatu dituzte, baita Urdaibain

dagoen Muretako Ibaigune hotel-lean bi gaueko egonaldia ere.

Orain, lehenengo denboraldiari amaiera emanda, bigarren edizioan hasi dira pentsatzen.

'Lokalero' bila

Udaberrian hasiko dute ETB3ko *Lokaleroak* saioaren bigarren denboraldia, eta, horretarako, *lokaler* saltsero, alai eta aktiboen bila dabilta antolatzaileak.

Bigarren edizioan ere saio dibertigarriak eta entretenigarriak eskaini nahi dituzte, eta kamera aurrean ondo moldatuko



Saioaren lehenengo edizioako Zornotzako irabazleak euren lokalean. | ETB

'Lokalero' saltseroenek sari potoloak irabazteko aukera izango dute

diren lagun taldeen bila dabilta. Eta noski, pertsona horiek lokal bat izan beharko dute.

Ondo pasatzeko gogo duen edonork har dezake parte; lokaleko partaide kopurua, adina eta herria zehazten dituen mezu bat

bidali beharko dute interesatuek. Eta aukeratzen dituzten lokalen artean, onenek sari potoloak irabaziko dituzte. Horrenbestez, gaztea baldin bazara eta lokal bat baldin badaukazu, animatu eta parte hartu.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Xabi Roo eta Izaro Telleria
Xabi Roo Gardokik otsailaren 7an, urtebete eta Izaro Telleria Gardokik, 14 hilabete. Etxeko danen partetik oin arte moruen jarraitxu ondo jan eta lo itxen formal-formal..



ARRASATE
Elene Loiti Montero
Otsailaren 5ean, 5 urte. Zorionak, printzesa! Esku bete urte! Primeran pasatu zure urtebetetze egunean eta amantala jantzi pastela egiteko! Infinito muxu Oihan, Iraia, Nikole, Imanol eta etxeko guztien partetik.



BERGARA
Hodei Murgizu Rodriguez
Otsailaren 5ean, 7 urte. Zorionak, politxo! Ondo-ondo pasatu domekan eta jaso muxu handi bat etxeko danen partetik.



OÑATI
Ane Osinaga Osinaga
Otsailaren 4an, 2 urte. Zorionak, polittore. Besarkada eta muxu handi bat etxekuen partetik.



BERGARA
Ariadna Anton Serrano
Otsailaren 4an, urtebete. Zorionak, printzesa! Belarriko lehen tirakada! Patxo handi bat familiaren eta bereziki Aitorren partetik.



OSINTXU
Irati Mujika Domenech.
Otsailaren 4an, 4 urte. Zorionak, Irati, eta muxu pila bat gure neskatila polit maitxiari, amatxo, aitatxo, Eki, Fito, Sintxan, tia Sorgi eta etxeko dan-danen partetik. Zorionak eta urtek askotarako, *presiosa!*



ARRASATE
Anartz Eraña Garcia
Otsailaren 3an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto pasatuko dou zure urtebetetzian. Patxo haundixe etxekuen partetik batez be Jon, Unai, Urko eta Manexen partetik.



DEBAGOIENA
Mikel Iglesias Larrañaga
Otsailaren 2an, 7 urte. Zorionak, Messi txiki! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna familia eta lagun guztien partetik.



ESKORITATZA
Iker Vicente Raso
Otsailaren 1ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Familia guztiaren partetik, muxu bero handi bat!



ESKORITATZA
Florencia Gallego Tena
Otsailaren 1ean, 68 urte. Zorionak senarra, seme-alabak eta iloben partetik.



ARRASATE
Javier Sandoval
Otsailaren 1ean, 41 urte. Zorionak, "Sando" Konkistatzaile! Dagoeneko mendi-gailurra lortu duzu dudarik gabe. Jarraitu horrela! Ederto pasatu eguna, mutil, laguntza guztien partetik. Kiloka muxu potoloak, *guapo!*



BERGARA
Jokin eta Alex Piñero Flores
Otsailaren 1an, 9 eta 13 urte. Zorionak, bikote futbolzale! Beti erreala, eh? Ederto pasatu eguna eta hobeto ospatu guraso eta lagunekin. Arrasateko laguntza guztien partetik kiloka muxu potolo-potoloak. Patxoak, *morenazos!*




URRETXU
Itziar Zabaleta Artolazabal
Urtarrilaren 31n, 6 urte. Zorionak eta muxu potoloak Urretxuko neskatila txintxoeneri. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna familia eta lagunxoekin. Besarkada bero bat tio, tia, Edurne eta bereziki zure anai Markelen partetik.



ARETXABALETA
Kepa Iturbe Etxeandia
Urtarrilaren 31n, 5 urte. Zorionak, Kepa! Muxu handi-handi bat maite zaituzten guztien partetik, bereziki, June txikiaren partetik.



ARRASATE
Ane Barrenetxea Garzia
Urtarrilaren 30ean, 5 urte. Zorionak, prexioxa. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea! Patxo handi bat ama, aita eta Jonen partetik.




OÑATI
Unax Egaña Umerez
Urtarrilaren 30ean, urtebete. Zorionak, Unax! Zeinen azkar pasatu den urtea eta zenbat eman diguzun hain denbora gutxian! Muxu potolo bat etxekoen partetik.



BERGARA
Mikel Peñin Alberdi
Urtarrilaren 30ean, 9 urte. Zorionak gure skatolariari! Ondo ospatua opa dizugu zure arreba Sara, lehengusu Gorka eta Jokinen partetik. Eta lagun guztiekin, noski! Muxu borobil handi bat amatxo, amama eta aitatxoren partetik.



BERGARA
Jone Ibarra Guridi
Urtarrilaren 30ean, 11 urte. Zorionak, potxola! Muxu handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Gorka.



ARRASATE
Hodei Garitaonandia Uriarte
Urtarrilaren 30ean, 4 urte. Zorionak mutiko handi. Mila patxo eta besarkada etxekuen partetik bereziki lxone eta Urki. Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu.



OÑATI
Begoña Idigoras
Urtarrilaren 29an, 60 urte. Zorionak eta urte askotarako, amama! Bazkai ederra preparauko dozula dudarik ez daku! Maite zaitugun danon partetik, mila kilo zorion, batez be Unax, Uxue eta Elaia.




ESKORITATZA
Ekaitz Andres Eizmendi
Urtarrilaren 28an, 8 urte. Zorionak, Ekaitz! Patxo handi-handi bat etxeko guztien partetik, eta jarraitu horrela!



BERGARA
Mikel Larrañaga
Urtarrilaren 28an, 22 urte. Zorionak eta urte askotarako txurfer! Ondo pasatu! Peña elektro!!




ESKORITATZA
Iker Gimenez Segovia
Urtarrilaren 28an, 3 urte. Zorionak, poxpolin. Ondo pasatu urtebetetze eguna. Muxu handi bat Naroa eta Ibaien partetik.




BERGARA
Irati Iriondo Igarza
Urtarrilaren 27an, 7 urte. Zorionak, potxola. Muxu bat aita, ama eta Uxueren partetik.



OÑATI
Izar Bikuña Malbadi
Urtarrilaren 27an, 8 urte. Zorionak, maitte! Ondo pasatu zure egunian...guk ahalegiñak ingottu holan izateko... Muxu asko danon partetik.




ARETXABALETA
Ainere Caballero Altube
Urtarrilaren 27an, 6 urte. "Handitzen, handitzen, hasi naiz handitzen...". Oso ondo, andereño. Abestiak dioen moduan, handitu egin zara; pentsaizu, laguntza apur batekin, hau irakurtzen ari zara. Muxu asko eta ondo-ondo pasau zure egunean, zure familiaren partetik.



OÑATI
Aiur Moreno Zubia
Urtarrilaren 26an, urtebete. Zorionak, Aiur! Naroa, aitatxo, amatxo eta familia guztiaren partetik muxu potolo bat. Mua!



ARETXABALETA
Mikel Zubizarreta Eraña
Urtarrilaren 26an, 36 urte. Aitatxo, zorionak! Patxo handi-handi bat Beñatek eta amatxok. Pa!



ARRASATE
Raquel Modino
Urtarrilaren 26an, 30 urte. Zorionak, amama! Ondo pasatu zure egunian... Guk ahalegiñak ingou holan izateko entrenamentuan! Pasten zain egongogare. Muxu asko danon partetik.



ARRASATE
Txaber Urgoitia Agirre
Urtarrilaren 24an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat etxekoen partetik!



ARETXABALETA
Erik Justel Galan
Urtarrilaren 23an, 21 urte. Zorionak, Erik, Untzak VBkoen partetik! Ondo pasatu eguna.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

- Internet**
Sar zaitetz goiena.net atarian eta Zorion agurra bidali botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.
- Posta elektronikoa**
Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.
- Ordezkaritzak**
Etor zaitetz GOIENAKO ordezkari zure batera.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Nerea Fernandez

Arrasate 2,700Kilo. Urtarrilaren 20a. Gurasoak: M. Jose eta Fran. Argazkian, Nerea gurasoekin




Nora Elortondo

Aramaio 3,440Kilo. Urtarrilaren 18a. Gurasoak: Ander eta Eneritz. Argazkian, lasai lo



Nahia Muniozguren

Arrasate 4,020Kilo. Urtarrilaren 21a. Gurasoak: Amagoia eta Iosu. Argazkian, Nahia sehaskan lo.



Kholud El Wafi

Bergara 3,770Kilo. Urtarrilaren 26a. Gurasoak: Najat eta Mostafa. Argazkian, Kholud izebarekin.



Iker Murillo

Bergara 3,080Kilo. Urtarrilaren 25a. Gurasoak: Karen eta Diego. Argazkian, Iker aitarekin.




Noah Ropero

Arrasate 3,140Kilo. Urtarrilaren 23a. Gurasoak: Monica eta Javi. Argazkian, Noah lotan.

DENBORA-PASA



HITZ GEZIDUNAK

| | | | |
|---|--------------------------|--|----------------------------------|
|  | Irabazle * NEGUAN | Xinaurri, txingurri Ahuntzaren ar | Putreak Altzairuzko ziriak |
| Gizaseme heldua | Hegazti mota | | |
| Intsektu abeslariak | Itsas ondoko amildegi | | |
| Ez erraz | | Idi, hitz elkartzeetan | Oinarrizko edaria |
| Lixiba | | Barazki hostotsua | Zaren hori |
| | | | Tona, labur-labur |
| Sodioa | Ostiko | | |
| Ibarra | Bokala | | |
| | | Errepikatuz, gorotza | |

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | K | | V | N | A | R | A | H |
| R | | Z | U | | V | N | | |
| Z | | A | D | A | B | O | G | |
| I | T | L | I | L | Z | | | |
| K | R | R | A | K | L | K | | |
| A | R | R | A | E | P | E | G | |
| I | | | | A | K | U | R | |
| A | | | | X | A | N | O | |
| S | | | | I | T | | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 8 | 5 | 3 | 1 | 6 | 9 | 2 | 9 |
| 2 | 4 | 1 | 9 | 7 | 5 | 8 | 3 | 6 |
| 6 | 3 | 9 | 4 | 8 | 2 | 7 | 5 | 1 |
| 8 | 7 | 4 | 5 | 6 | 1 | 2 | 9 | 3 |
| 3 | 5 | 2 | 8 | 9 | 7 | 6 | 1 | 4 |
| 1 | 9 | 6 | 2 | 3 | 4 | 5 | 8 | 7 |
| 9 | 6 | 7 | 1 | 2 | 8 | 3 | 4 | 5 |
| 4 | 2 | 3 | 7 | 5 | 9 | 1 | 6 | 8 |
| 5 | 1 | 8 | 6 | 4 | 3 | 9 | 7 | 2 |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| H | A | M | S | T | E | R | M |
| K | O | I | P | L | N | T | K |
| L | U | R | O | E | Z | L | |
| X | F | U | O | K | B | T | M |
| A | K | A | T | U | A | E | O |
| T | O | U | P | U | B | I | R |
| I | R | O | | | | | |
| P | O | X | T | E | K | L | P |
| L | A | U | X | O | K | L | |
| B | A | R | R | A | B | | |

SUDOKUA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 8 | | 3 | | | 2 |
| 2 | | 7 | 5 | | | | |
| 6 | 7 | | | | | | |
| | 6 | | 3 | 4 | | 8 | |
| | 2 | 8 | 9 | | 6 | | 4 |
| | | 5 | | | | | 3 |
| 6 | | 4 | 8 | | 7 | 5 | |
| | 4 | | 7 | | | | 6 |
| 7 | | 3 | | 6 | | 2 | |

HIZKI SALDA

Topa itzazu bost animalia, etxean egon ohi direnak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | X | A | K | U | R | R | A | B |
| G | S | T | A | U | X | O | K | L |
| Z | T | X | T | E | K | L | P | O |
| T | U | O | U | P | U | B | I | R |
| K | A | K | A | T | U | A | E | O |
| X | F | U | O | K | B | T | M | A |
| H | U | I | U | R | O | E | Z | L |
| K | Y | O | I | P | L | N | T | K |
| H | A | M | S | T | E | R | R | M |

HIEROGLIFIKOA

Zer erosi duzu janari-dendan?

B

2000-9

A



Hieroglifikoak:
Apokalipsia.

AI, ENE!

Larrua bakarrik ez, baita burua ere

Ados egon edo ez, krokodilo larruzko zapatak preziatuak izan ohi dira. Kasu horretan, preziatuagoak, buru eta guzti datoz-eta. www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Nik erditu ezin dudan neurrian, emakumeek ezin dute mezarik esan"

JAUME PUJOL | TARRAGONAKO ARTZAPEZPIKUA

Pujolen hitzetan, gainera, homosexualen portaera ez da gizartearentzat egokia; eta emakumeek arreta handiagoa jarri behar dute euren bikoteengan. Barkamena eskatu behar izan du gero. Barkamena, esan zuenagatik, ala esan egin zuelako? **TV3ko 'Els matins' saioa**

EGURALDIA



Max. 7°

Min. 1°

Goizean eguzkia ikustea posible izango bada ere, bigarren zatian lainotu egingo du. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-01-30

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Iñaki Perurena Harakina, harri-jasotzailea, aktorea... Nork ez du ezagutzen leitzarra? Orain, harria eta herria, biak uztartzen ditu bere azken proiektuan, Peru-Harri museoan. | TXOMIN MADINA

"Azken urteotako apustua harria jasoaz zahartzea dut"

1. Eguneko 24 orduak nahikoa dira dituzun okupazio guztiendako?
Ordu horietako batzuk okupatzeko izaten ditut, zeregin bila ibiltzen naiz denbora alferrik ez galtzeko. Gauza batzuk egin eta egin ibilita ere ez dira amaitzen, eta tarte bat hartu behar da bizitzako puska txiki eta gozagarriak egiteko.

2. Aizkoran hasi arren, egurretik harrirako saltoa eman zenuen.
Umetan zaletasuna harria nuen, baina etxean ez zuten nahi, kalte egingo zidalakoan. Herrian aizkora ezagunagoa zenez, horretan ibili nintzen; baina nire benetako zaletasuna harria izan da beti.

3. Herri kirolek zenbat dute folkloretik eta zenbat kiroletik?
Folklorearen diogunean, badirudi pisua kentzen diogula zerbaiti. Folklorearen eta folklorikoa ezberdinduko nituzke. Herri kirola da herri baten izaera, kultura eta folklorea. Ez dago neurriak zehazten ibili beharrik.

4. Zer da indarra bururik gabe?
Batzuetan arrisku larria indarkeriara eramane dezake-eta.

5. Ez duzu lehiaketetan parte hartzen. Norberaren burua da aurkari gogorrena?
Niretzat beti da lehiaketa; lehiatzea norberaren edo beste baten aurka izan daiteke. Nire garaian egin nituen apustuak; egun, aukera dago egin gabe ibiltzeko. Azken urteotako apustua dut harri jasoaz zahartzea, eta, oraingoz, ari naiz lortzen.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Hainbati, makila kenduko nieke"

"Makilak, zoritxarrez, egurra ulerrazten digu askotan; zigorra eta laguntza izan daiteke. Euskal Herrian badu beste izen bat: akuilua. Askotan, baina, lagundu beharrean gauzak okertu egiten ditu. Existitzen ez dela jakinda ere, makilatxo magikoa erabiliko nuke makilaren indarra erabiltzen dutenak indarririk gabe uzteko".

6. Inazio semea gogor dator; markak hobetuko dizkizun beldurrik? Nola beldurra? Poz handia hartuko nuke. Sasoiu ikusten dudana? 28 urte oraintxe eginda, sasoiu egon beharra dauka. Dena den, galdera hari egitea nahiago nuke.

7. Noiz arte Goenkale-n?
Orain esan didate bukatzen zaidala. Hamasei urtean gauza polit asko erakutsi eta momentu polit asko bizi arazi dizkit. Eskerrak eman eta kito. Faltan igarriko dut.

8. Bilbo aldeko kazetari batekin zizun elkarrizketak hautsak harrotu zituen sarean. Nola bizi izan zenuen?
Egun komunikabideak zer diren esaten dit: elkarrizketa Interneten jarri eta hilabeteetara egin zuen eztanda. Hautsak hor daude beti; harrotutakoan konturatzen dira nolakoak diren.

9. Argigeratuzen historia kontuetan jantzia zaudela. Betiko grina?
Ez, duela bederatzita bat urte garai berezi bat bizi izan nuen eta Nafarroako azken mariskalaren istorioa ezagutzeko hasi nintzen. Maliziaz edo ezjakintasunez egindako galderari erantzuteko prest egotea ere polita izango zela pentsatu nuen. Orain jakintza dut eta pozik nago.

10. Leitzan duzun Peru-Harri museoaren zure proiektu kutuna?
Harriaren inguruan ditudan sentipen eta bizipenak azaldu gura nituen. Egiten eta azaltzen, gozatzen ari naiz. Harriaz hitz egitean, gainera, herriaz ere ari naiz berbetan.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Kuxkuxero begiluzea

Ofizioa bera bezain eztabaida zaharra da munduko ofizio zaharrenaz eztabaidatzearen afizioa. Eztabaidak eztabaida, nago irakurleari gogora etorri zaiona bezain antigalekoa dela espioitzarena; izan ere, pertsonok pertsona garenetik dugu etxekoneko berri jateko grina. Zelatari-lana erabakigarria izan da gerrateak irabazteko, negoziatzen trebetasun-itxura emateko zein era guztietako lehietan aurrera egiteko. Eta jakina, kuxkuxeroen kontrako prebentzioari gripetik geure burua babesteko bufanda lepolarri lotzea bezain naturala deritzogu. Prebentzio hori, hala ere, maskaltzen hasia dugu zokomoko guztietan bideokamera begi biribil bezain begirada luzekoak daudenetik.

Espioi-lanetan azken urratsa ematera etorria, baina, Google da. Lotsa zokoratu (non gordetzen du lotsa Googlek?) eta Interneten intimitate-arrasto oro baztertu beharra dagoela esana du Googlek, pribatutasuna kontzeptu zaharkitua dela gaineratuz.

Europako agintariak bilatzaileei eta sare sozialei erabiltzaileen pribatutasuna gordearazteko neurriak hartzea doazenean, Google datuen trataera aldatzea doa, datu horiek, gure datuak, gmail, Google+ eta Picasa iturrietan lortuak, hobeto mirubutzandu eta zukutu ahal izateko.



Gasolindegiko ordutegi berria
Astelehenetik ostiralera
07:00-21:30
Larunbat, igande eta jaiegunetan
09:00-21:30

Hipermerkatuak



zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

www.grupoeroski.es